goienа

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2015-05-29
EGUBAKOITZA
641. ZENBAKIA
15. URTEA
DOAKOA
GOIENA.EUS
TOKIKOM


## Igoera faseko lehena jokatuko du Aretxabaletak domekan | 27

## Oñati Euskadiko txapelketarako lauko finalean: '#aurtenbai' | 28

Aretxabaletan dute hitzordua Debagoieneko trikitilariek | 32



Gaztetxoei zuzendutako lehen triatloia egingo dute, Bergaran | 29



Ikastaro monografikoak iragarri ditu Herrixa Dantzan ekimenak | 31

UDAL ETA FORU HAUTESKUNDEAK 2015




# Indarrak parekatu egin dira

Hauteskundeetako lehia bukatuta, ekainaren 13ko kargu-hartze ekitaldiak dira epe motzera begira hurrengo hitzordu ofizial | **2 eta 'Herriak' saila**

## Egun magikoak izango ditu Elgetak ondorengoak

Asteburuan magia ikuskizunak eta tailerrak | 30

## SINADURAK

**Ada, Evo, kontuz zorro beltzekin** | 7
XABIER LETONA

7 | **Akordioa, are garrantzitsuago**
JOKIN BEREZIARTUA

**Herri harresia, herri boterea** | 10
ANE GOROSABEL

**Bestondoa** | 16
MAIALEN MADARIAGA

18 | **Nepal, a ze pena!**
JOSE LUIS MADINAGOITIA

21 | **Pitzadurak estaldu**
MAITE FRAILE

**Maiatzak 24** | 40
AGURNE BARRUSO




ASTE HONETAN 'PUNTUA'-N:

**Elkarrizketa Nerea Osinalde zientzialariari**

**Hirira ohitu ondoren, erraza da herrira egokitzea?**

JASO 'PUNTUA' ETXEAN: 943 25 05 05







DEBAGOIENA 2 | IRITZIA 5 | HERRIAK 9 | KIROLA 27 | KULTURA 30 | GAZTEAK 33 |ZURE IRAGARKIAK 35 | TELEBISTA-IRRATIA 36 | ZORION AGURRAK 35 | EZKONTZAK 36 | ESKELAK 37 | NON-ZER 38


Arrasateko EAJko hautetsiak. | JOKIN BEREZIARTUA


Bergarako EAJko hautetsiak. | JULEN IRIONDO


Aretxabaletako EAJko hautetsiak. | MIRARI ALTUBE


Eskoriatzako EAJko hautetsiak. | IMANOL BELOKI

# Lehia bukatuta, orain ikusteko dago etorkizuna elkarlanerako izango den

Bederatzi udalerritatik hirutan emakumeak dira zerrenda bozkatuenetako buru, eta, ezustekorik ez bada, alkate

**UBANE MADERA** | DEBAGOIENA

Debagoienak abertzalea izaten segitzen du. Erabat.

Horixe da hauteskundeetako emaitzek erakusten dutena, eskualdeko maparen erdialdea jeltzaleen esku eta periferia ezker abertzalearen esku geratu da-eta. Bototan ere, antzera samar: 12.468 boto eskuratu ditu EAJk (40 zinegotzi) eta 12.933 boto, berriz, EH Bilduk (46 zinegotzi).

Gainontzean, jaitsi egin dira beste alderdi guztiak –PP nabarmen–; eta indartsu sartu da Podemos-en ildoko Baleike, aurkeztu den herri bakarrean, Arrasaten, bi zinegotzi eskuratu ditu-eta.

**Jeltzaleak, hunkituta**

Hortik aurrera, ezustekoa da hauteskundeek Debagoienean eragin duten emozio nagusia.

Jeltzaleen artean bai. Baita poza –handia– eta zirrara ere –24 zinegotzitik 40 izatera pasatu dira–. "Guztiz hunkituta nago", azpimarratu zuen, esaterako, domeka gauean Jose Ramon Zubizarreta jeltzale eskoriatzarrak. Negar malkoak ikusi ziren Maria Ubarretxenaren begietan, Arrasaten garaipen historikoa ez ezik bertan zituzten zinegotzi kopurua bikoiztuta.

Aretxabaletan ere "salto handia" eman dute, Unai Elkoro alkategaiak nabarmendutako moduan bi zinegotzitik seira pasatuta. "Hainbesterainokoa, guk ere ez genuen espero", onartu zuen hark. Eta xanpainarekin ospatu zuten bergararrek garaipena, nahiz eta, kasu horretan, ezustekorik ez izan, Juanje Alberdi alkategaiak adierazi moduan, asmoa zutelako zerrenda bozkatuena izatea eta horixe lortu dutelako, beraz: "Sorpresa ez da izan, horretan ibili garelako".

**Ezker abertzalea, triste**

Tristura, ezustekoa eta hausnarketarako deiak, berriz, dira EH Bilduren lerroetan nagusitzen dabiltzanak eskualdean izan duten gainbeheraren ostean –60 zinegotzi izatetik 46 izatera pasa dira–. "Porrot mingarria" izan dela onartu du, esaterako, Eneko Barberena arrasatearrak. "Jaitsiera bat aurreikusten genuen, baina ez tamaina horretakoa (…) penatuta gaude", onartu du Agurne Barruso bergararrak.

"Kiroltasunez hartu behar, eta oposiziora", adierazi du, berriz, Xabier Igartua aretxabaletarrak. Eskoriatzan, hauxe adierazi du Aitor Zubizarreta ezkertiarrak: "Egindako lana ez bada baloratu, agian erreflexionatu egin beharko dugu, zergatik ez den izan ona".

**Herritarrekin, hausnartzera**

Bada, hain justu, bide horretan jarriko ditu indarrak datozen asteotan ezker abertzaleak.

Dagoeneko egin dute hausnarketarako deia Aretxabaletan eta Elgetan, datorren asterako; Arrasaten ere hala egingo dute datozen asteotan. Eta, besteak beste, Bergaran "autokritika" egingo dutela adierazi du Barrusok.

Balantzaren beste aldean daude, berriz, Oñati, Aramaio eta Antzuola. Hirurek segitzen dute EH Bilduren eskuetan domekako hitzordua ezkero. Kudeaketari, programan agindutakoak betetzeari eta herritarrekin batera lanean jarduteari egotzi diete, oro har, emaitza on horiek Mikel Biain oñatiarrak, Beñardo Kortabarria antzuolarrak –talde-lanari ere bai, Beristain antzuolarrak– eta Lierni Altuna aramaioarrak.

Eta Elgetan, berriz, emaitza "historikoak" erdietsi ditu EH Bilduk, Iraitz Lazkano hautetsiak nabarmendutako moduan. Lehen aldiz gobernatuko du Elgetan alderdi ezkertiarrak, eta, gainera, 100 boto pasako igoera izan dute. Lazkanok "ondo egindako lanaren emaitzari" eta, besteak beste, "zintzotasunari" eta herritarrei eskainitako parte-hartzeari egotzi dizkio emaitza on horiek.

Erabat apartekoa da Leintz Gatzagaren kasua, jakina. Bertan ezustekorik ez, alderdi bakarra aurkeztean; eta alderdi politikorik ere ez, herritarren artean osatutako hautesle elkartea arduratuko da-eta udal kudeaketaz lau urteotan.

**Emaitza historikoak lortu ditu EAJk Arrasaten eta EH Bilduk Elgetan**

**Bototan, 500 bat botoko aldea dute EAJk eta EH Bilduk**


Iraitz Lazkano, Lierni Altuna, Beñardo Kortabarria eta Mikel Biain . | T. MADINA

**Zerrenda bozkatuenak**

Gainontzean, epe motzean, ekainaren 13a da domekako emaitzak berresteko eguna, hautetsiek karguak hartuko dituzten eguna, alegia. Hori hala izango da, baldin eta zerrendarik bozkatuenak errespetatzen badira. Izan ere, Arrasaten, Bergaran, Aretxabaletan eta Eskoriatzan, adibidez, EAJ ez beste alderdi guztiak elkartuko balira, jeltzaleei alkatetza kentzeko aukera izango lukete.

Dena den, Debagoieneko EH Bilduk iragarri du PSE-EErekin ez dutela hitzarmenik egiteko asmorik eskualdean, eta bestela, duten marra gorria dela erabakitzeko eskubidearen defentsa.

**Akordioetarako gertu**

Hortik aurrera, berriz, alderdi politikoak ja badabiltza esaten itunetarako garaia dela aurrerantzekoa. Sozialistak "laguntzeko gertu" azaldu dira Arrasaten, adibidez. Eta udalerri bereko hautetsi bozkatuenak, Ubarretxenak, aditzera eman du ez dutela "aterik ixten, aukera guztietara" daudela zabalik. Hori bai, logikoa den moduan, alderdi bakoitza bere ildoa eta asmoak defendatzen eta gainontzekoak bertara erakartzen ahaleginduko da. Gauzak horrela, beraz, ikustekoa izango da datozen lau urteok lehiarako izango diren edo elkarlanerako.



# Lanbide Heziketa euskaraz ikasteko eskaintza zabala Debagoieneko eskoletan

## Bailaran dago Gipuzkoako eskaintzarik handiena Lanbide Heziketako ikasketak euskaraz egiteko, eta ikastetxeek dagoeneko zabalik dute izena emateko epea

Arlo guztietan daude Lanbide Heziketa euskaraz ikasteko eskaintzak eta gaur egun heziketa zikloen ikasleen erdia, 900 ikasle gutxi gorabehera, dira euskaraz ikasten ari direnak. Eskolek zabalik dituzte aurre-matrikulazio epeak, eta Debagoieneko Mankomunitatetik sustatu nahi dute ikasleek euskaraz ikastea. Horretarako lanean dabiltza.

Debagoienean dago Gipuzkoako eskaintzarik handiena Lanbide Heziketa euskaraz egiteko. Arlo guztietan dago euskaraz ikasteko eskaintza; hogei bat ziklo euskaraz daude dagoeneko eta ikasleek euskaraz izena emateko aukera dute.


**Kepa Altube, Oñatiko Zuazola-Larraña Lanbide Heziketako gela batean.**

**Erdia baino gehiago**
Egun, ikasle gehienek, %90ek, euskaraz egiten dituzte DBH eta Batxilergo mailako ikasketak. Lanbide Heziketara joatean, baina, erdiek aukeratzen dute ikasketak euskaraz jarraitzea. "Salto handia dago. Lanbide Heziketan gaztelerara jotzen dute askok; mistoa ere eskatzen da egun. Enpresekin harreman handia dago, baina egia da enpresetan euskara ez dagoela erabat normalizatua, eta horrek eragina du Lanbide Heziketan ere. Bestalde, euskara ez dakiten kanpotarrak ere etortzen dira, eta haiek euskalduntzeko ahalegin bereziak egin beharko lirateke", dio Kepa Altubek, Lanbide Heziketako materiala euskalduntzen ari den irakasleetako batek.

Debagoienean, baina, heziketa zikloak eskaintzen duen erdia baino gehiago egin daiteke euskaraz. Bailara honetan 900 bat ikasle D ereduan, euskaraz, ari dira egiten Lanbide Heziketako ikasketak.

**Jakinbai.eu proiektua**
Izan ere, erakundeen laguntzarekin, materiala euskalduntzeko proiektu bat martxan dago Debagoienean 2001etik hona: *Jakinbai.eu*. "Ahalik eta material gehien euskalduntzen dugu. Irakasleak behar duen materiala euskaratu egiten dugu eta webgunean jarri. Dagoeneko 600 ikasgai inguru daude erabiltzeko moduan. Beste 400 bat falta dira; ikasgai bakoitzeko liburu bat, adibidez. Urtero aldatzen dira liburuak, materiala, eta egokitu egin behar izaten ditugu aro berrietara", dio Altubek.


AINTZANE LASA
EUSKARA TEKNIKARIA

### "Lanerako aukerak asko zabaltzen ditu ikasketak euskaraz egiteak"

Debagoieneko Mankomunitatea eta bailarako udalak lanean ari dira euskarazko eskaintza horren berri emateko.

**Nola egin duzue horren zabalpena?**
Eskuorri bat atera dugu. Hor jasotzen da euskaraz egin daitezkeen zikloen eskaintza, bai erdi mailakoak eta baita goi mailakoak ere. Informazioa ikastetxeka dago jasota.

**Zein da helburua?**
Helburua da ikasleak animatzea euskaraz egin ditzaten ziklo horiek. Lana bilatzeko aukera gehiago izango dute horrela, eta, behin lan munduan sartuta, formazioa euskaraz edukitzeak lagundu egingo die egunerokoan.

**Diru laguntzak ere badaude enpresendako, ezta?**
Bai. Aurten lehenengo aldiz lortu da Aldundiak diru laguntzak ematea ikasleak euskaraz hartzen dituzten enpresendako. Bailaran enpresa asko daude euskararen erabilera plana martxan dutenak.

**Zein izango da hurrengo pausoa?**
Hurrengo proiektua izango da lantokiko praktikak euskaraz egiteko protokoloa martxan jartzea. Lan horretan gabiltza, esaterako, Arrasateko euskalgintzako eragileok.


ADRIAN IBARTZABAL
KIROL EKINTZEN IKASLEA

"DBHtik Batxilergora pasa nintzen eta urtebete eginda pentsatu nuen Lanbide Heziketan sartzea. Euskaraz egitea erabaki nuen, beti egin ditudalako ikasketak euskaraz eta orain gazteleraz egitea zaila irudituko zitzaidalako".


MARIA ARANBERRI
FABRIKAZIO MEKAN. DISEINUA

"Euskal Herrian bizi gara eta iruditzen zait ona dela ikasketak euskaraz egitea. Lan munduan ere oso lagungarria izan daiteke ikasketak bertako hizkuntzan egitea. Hala, Lanbide Heziketa ere euskaraz egin nahi izan dut".


IGOR PALACIN
MEKANIZAZIOKO IKASLEA

"Duela hogei urte utzi nituen ikasketak eta orain hasi naiz berriz ikasten. Lehen, gazteleraz ikasi nuen, baina orain, argi nuen euskaraz ikasi behar nuela. Lan mundua ari da aldatzen, eta hori da etorkizuna, euskaraz".


IXIAR TXINTXURRETA
KIROL EKINTZEN IKASLEA

"Lanbide Heziketa gazteleraz egiten hasi nintzen baina ez nintzen eroso sentitzen. Aurreko ikasketak egin nituen, bizi ere euskaraz bizi naiz eta zaila egin zitzaidan gazteleraz hastea. Orain, euskaraz, askoz hobeto nabil".




## Lanbide heziketa euskaraz

**Mondragon Goi Eskola Politeknikoa**
Loramendi 4
Arrasate-Mondragon • 943 794700
http://www.mondragon.edu/es/eps

**Miguel Altuna Institutua**
Ibargarai 1
Bergara • 943 762491
http://www.imaltuna.hezkuntza.net

**Arizmendi Ikastola**
Otalora lizentziaduna 8
Arrasate-Mondragon • 943 772025
http://www.arizmendi.eus

**Oñati Gestio Heziketa**
Ibarra zelai 2
Oñati • 943 718009
www.onatigh.com

**Mariaren Lagundia Ikastola**
Bidekurutzeta 37
Bergara • 943 762541
http://www.mlagundia.net/

**Zuazola-Larraña**
Aita Madina z/g
Oñati • 943 782150
http://www.zuazolalarranabhi.hezkuntza.net

**Aretxabaletako Lanbide Eskola**
Txarapea ibilbidea
Aretxabaleta • 943797900
http://www.aretxabaleta.hezkuntza.net

AURREMATRIKULA:
MAIATZAREN 25ETIK
EKAINAREN 5ERA

**Aingeru Mayor** | Chrysallis Adingabe Transexualen Familien Elkartea

# "Identitate sexuala pertsonaren buru barruan dago, ez hankartean"

Transexualitate egoeran dauden umeen gaineko hitzaldia antolatu du datorren eguaztenerako, ekainaren 3rako, Arrasateko Gazte Bulegoak, Kulturaten

**UBANE MADERA** | DEBAGOIENA

Chrysallis Euskal Herria elkarteko presidentea da Aingeru Mayor sexologoa (Donostia, 1972). Adingabe Transexualen Familien Elkartea da, berriz, Chrysallis (685 76 77 90). Transexualitate egoeran dauden umeen gainean jardungo du Mayorrek.



Aingeru Mayor, Donostian. | A.M.

**Elkarte berria da Chrysallis.**
Martxoaren 8an eratu genuen; Estatuan, orain dela urtebete pasa dago. Eta hori ere nahiko berria den arren, ibilbide luzea eta aurrerako urrats handiak egin ditu.

**Zeintzuek osatzen duzue?**
Hamabi familia gaude, gehi beste batzuk inguruan. Euskal Herriko elkartea estatuko elkarteko kide da; eta Estatukoan 100 bat familia gaude. Euskal Herriko elkarteari dagokionez, helburua da transexualitate egoeran dauden haurren familiendako laguntza sarea osatzea, eta garrantzitsua da familiei eskaintzen diegun arreta, telefonoz zein posta elektronikoz. Etxean transexualitate egoeran dagoen haur bat ote duten zalantza duten familiei, egoera hau bizitzen gabiltzan familiek gertutasunetik ematen diegu arreta, gaia ezagutzen dugulako. Gainera, arreta zerbitzuan bi sexologo ere baditugu, aholkularitza sexologikoa eskaintzeko. Eta datorren ikasturtean martxan jarri nahi dugu informazio eta topaketa puntu bat, hilean behin familiak elkartu ahal izateko.

**Ezjakintasun handia dago, ezta?**
Hori da ikusten duguna, eta elkarte moduan helburua da ezagutza zabaltzea; izan ere, denok jakin beharko genuke badaudela zakila duten neskak eta bulba duten mutilak. Gertatzen dena da gizartearen diskurtsoa eta eskoletan ere irakasten dela: *zakila = mutila* eta *bulba = neska*. Baina horrek ez du esan gura kasu batzuetan badaudela zakila duten neskak eta bulba duten mutilak –ikerketa batzuen arabera, 15.000 umetik batek; eta beste batzuen arabera, 1.500 umetik batek–. Eta konturatu behar dugu umeei, jaiotzean, genitalen arabera ezartzen diegula sexua; eta hori iragarpen bat besterik ez litzateke izan behar. Izan ere, haurrak hitz egiten hasi bezain laster adierazten du bere identitatea; eta hor dago akatsa: sexualitatea ez dago hankartean, identitate kontu bat da; hau da, buru barruan dago, eta hori soilik hitz egiten hasten direnean jakin ahal dugu. Baina, kasu askotan, errealitate hori ez da ikusi ere egiten, pentsaezina delako. Eta badaude haur asko familiek ez dituztenak ulertzen, errealitatea pentsaezina delako; eta oso gogorra da besteek ez badute ulertzen zu zaren hori.

## "Ezagutza hau zabaltzea hil edo bizikoa izan daiteke"

**Nola jakin dezake familia batek haurra ez dagoela konforme ezarritako sexuarekin?**
Nik etxean dut 7 urteko alaba bat zakilarekin. Bi urte zituenean, berba egiten ere ez zekienean, esaten zigun bera ez zela *guapo*, *guapa* baizik. Beraz, 2 urte inguru dituztenean dagoeneko hasten dira. Baina hori ukatu eta erreprimitu egiten bada, gerta litekeena da haur horiek hazten direnean ezin dutela direna espresatu. Eta eurendako ere zaila egiten da euren burua definitzea. Ditugun testimonioekin bada errepikatzen den gauza bat: umeek duten indarra direna aldarrikatzeko eta borrokatzeko. Umeak aldakorrak dira askotan, baina ikusten gabiltzana da identitatea ez dela aldakorra. Ume batzuek jolasten esaten dute: "Nik neska –edo mutil– izan nahiko nuke; transexualitate egoeran dauden haurrek, berriz, esaten dute: "Ni naiz". Hori bai, ukatu egiten bazaie, orduan esaten dute: "Gustatuko litzaidake...". Geuk ere, nahiz eta berak kontrakoa adierazi, alaba mutil moduan ikusten genuen, konturatu ginen arte gure begirada zela okerra.

**Chrysallis-ek lagunduko du, bada, halako egoerak azaleratzen...**
Bai. Estatuan, orain dela urtebete pasa sei familia ziren eta orain 100 gara; eta Euskal Herrian zortzi familiatik, bi hilabetean hamabira pasa. Errealitate hau bistaratzen dugun neurrian, familiek pentsa lezake: "Aiba, hau da etxean duguna!". Pentsa, gaur egungo datuen arabera, pertsona heldu eta gazteak, transexualitate egoeran daudenak dira suizidio tasa handien dutenak. Beraz, esan ahalko genuke ezagutza hau zabaltzea egoera horretan dauden haurrentzat hil edo biziko kontua dela.



Nepaldar komunitatea Arrasaten. | GOIATZ ARANA

## Beste bultzada bat eman nahi diote Nepalen aldeko kanpainari datozen egunotan

**GOIATZ ARANA** | DEBAGOIENA

Apirilean lehen lurrikara izan zenetik, Debagoieneko nepaldarren komunitateak elkartasuna adierazteko eta dirua batzeko hainbat ekintza egin ditu, baina laguntza premia izugarria da; zer esanik ez, erreplikek oraindik ere jarraitu egiten dutela ikusita. Horregatik, Debagoienean dauden nepaldarrek lanean jarraituko dute euren herrikideei laguntzeko.

**Umeei laguntzeko**
Haur eta emakumeak sexu-trafikotik erreskatatzeko helburua duen Maiti Nepal gobernuz kanpoko erakundeari emango diote dirua. Bi kontu korronte ireki dituzte (Laboral Kutxa: ES47 3035 0047 15 0470075366. Kutxabank: ES19 2095 5055 50 9114962512). Bestalde, domekan Arantzazun egongo dira. Eta asmoa da ekainaren 4an Bergaran eta Eskoriatzan egotea.

## Ekainaren 11ra atzeratu dute Salegiren kontrako epaiketa, 'herri harresia' irudikatzearren

**JON BEREZIBAR** | BERGARA

Terrorismoa goratu izanaren akusazioari erantzun beharko diote Salegik, Ernaiko zazpi kidek eta Periko Solabarria ezker abertzaleko militanteak. AVT elkarteak egin du akusazio partikularra eta Fiskaltzak Salegirentzat urte eta erdiko espetxe zigorra eskatu du 2013ko Urduñako Gazte Danbada topaketan egindako estaldura informatiboarengatik. "Adierazpen askatasunaren aurkako urraketa" dela salatuta, babes zabala jaso du Salegik euskal kazetaritzaren aldetik zein herrikideen eta Bergarako Udaleko ordezkarien aldetik. "Lan serioa eta konprometitua egiten dute bertako (*Topatu.info*) kideek, eta herritar orok informatuta egoteko dugun eskubidearen bermeetako bat dira, zalantzarik gabe. Hain zuzen, Iraitz epaile aurrera eramanda lan hori guztia da zigortu nahi dutena; gazte inkonformista, irudimentsu, alai eta langileari ahotsa ematea zigortu nahi dute, mezularia zigortu nahi dute", adierazi dute asteon Bergara Libre plataformako kideek.



Eguaztenean elkartu ziren Bergara Libre-ko kideak. | BERGARA LIBRE





ARABAUTO
NISSAN ZURE KONTZESIONARIO BERRIA GASTEIZEN

- Ibilgailu berriak eta aukerakoak
- Mekanika eta karrozeriako tailerra
- Mantentze-lan zerbitzu azkarra
- Aseguruak eta abar




*Etor zaitez Nissan gamako edozein ibilgailu probatzera eta eskuratu opari bat*

ARABAUTO Gamarrako Atea 46 • 01013 VITORIA-GASTEIZ • Tel.: 945 26 92 73

FAGOR TALDEA

# Ohiko Batzar Nagusia 2015

## Zazpi kooperatiba bat eginik Debagoienaren garapen ekonomikoaren eta sozialaren konpromisoari erantzuten



## DATU ADIERAZGARRIAK

***Salmentak:*** 1.340 milioi €

***Langileak***
Euskal Herrian: 5.303
Kanpoan: 3.737

***Emaitzak:*** 30,8 milioi €

***Inbertsioak:*** 57,6 milioi €

***30 filial komertzialen bidez,*** beste hainbeste merkatuei erantzunez

***Bazkide aktiboak:*** 3.808

***Lantegiak***
Euskal Herrian: 19
Kanpoan: 27

Zalantzarik gabe Fagor Etxetresnak Elektrikoak (FEE) kooperatibaren desagerpenaren ondoren, bertako 1895 bazkideen irtenbidea izan da Fagor Taldearen lehentasuna 2014ean. Azpimarratzekoa da kooperatiba guztiek azaldu duten prestasuna eta borondatea lanik eta kooperatibarik gabe geratu diren bazkideak birkokatzeko, beti ere lanpostuen kualifikazioa kontutan izanik.

Norabide onean joanik ere, bidea luzea da eta datozen urteotan denon konpromisoa ezinbestekoa izango da auziari behin betiko irtenbide integrala emateko. Fagor Taldeak egoera honi enplegu aukeren bitartez erantzuteko konpromiso irmoa adierazten du. Baina konpromisoak, ezinbestean, bi adar nagusi eskatzen ditu: batetik, kooperatiba hartzaileen elkartasuna; eta, bestetik, egoera honek eragiten dien bazkideen prestasuna, batez ere formazioari dagokionean.

## Fagor Taldean birkokapenak

| ***behin betikoak:*** | ***behin behinekoak:*** |
|---|---|
| **137** | **551** |



Juan Carlos Irizar, Eskoriatzako ereserkiaren partiturarekin. | JUAN CARLOS IRIZAR

# Elkartasun bira egingo du Juan Carlos Irizarrek Eskoriatzan hasita

Liberiako Aita Menni ospitaleari laguntzeko dirua batzea da helburua, baina sarrera doakoa da

I.B./L.K. | ESKORIATZA

Juan Carlos Irizar oñatiarrak eta Jesus Iriak gidatutako Eskoriatzako parrokiako abesbatzak kontzertua eskainiko dute Eskoriatzako Zaldibar antzokian, gaur, egubakoitza, 20:00etan. Aita Menni ospitaleak bultzatutako *We are like you* (Zure modukoak gara) egitasmoaren lehen emanaldia izango da eta sarrera doakoa izango da. Birak Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko hainbat herritara eramango du Juan Carlos Irizar; tartean, Arrasateko Aita Mennin emanaldia izango da, ospitaleko pazienteen abesbatzak lagunduta, ekainaren 16an; eta Aramaion, ekainaren 20an, Bixente Goikoetxea abesbatzarekin. Bira azaroan bukatuko da Zestoako bainuetxean egingo duten kontzertu batekin.

**Ospitalea Liberian**

Aita Menni ospitaleak bultzatutako proiektu hori Liberiari laguntzeko izango da, eta jendearen borondateaz dirua batu nahi da ahal den heinean bertakoei laguntzeko. Sarrera doakoa bada ere, merkatu txiki bat jarriko da antzokian. Bertan, Irizarren diskoak, Liberiatik ekarritako objektuak… izango dira prezio merkean erosteko eta Laboral Kutxan honako kontu korronte hau ireki dute, nahi duenak laguntza eman dezan: ES51 3035 0001 56 00 10129618.

Jesusen Bihotzeko mojek –Aita Menni ospitalea kongregazio horrena da– Liberian zuten Benedict Menni anbulatorioa irekitzeko dirua batzea da We are like you ekimenaren helburua. Ebolaren krisian piztu zen kutsatzeko beldurraren ondorioz, anbulatorioa itxi egin zen. Askotariko gaixoak atenditzen zituzten, bereziki buruko gaixotasunak zituztenak.

**Berak egindako ereserkia**

Iriak zuzendutako abesbatzak hainbat kantu abestuko ditu Irizarrekin batera, besteak beste, Eskoriatzako ereserkia. Oso berezia izango da Juan Carlos Irizarrentzat kantu hori Eskoriatzan jotzea, izan ere, berak sortutakoa da. Honako hau esan dio GOIENAri piano-jole eta konposatzaile oñatiarrak: "Eskoriatzako ereserkia jotzeak oroitzapen politak ekarriko dizkit. Letra Jose Aranburuzabala *Trankil*-ek asmatu zuen, eta gure artean ez dagoen arren, bere familia han egongo da".

Eskoriatzarekin harreman estua izan du beti oñatiarrak, eta bere esanetan, "ohore bat izango da bertan pianoa jotzea".

# Langileek enpresan parte hartzea zertan datzan azalduko dute

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Enpresetan langileen parte-hartzea handitzeko lan-ildoa hasi du Mankomunitateko Garapen Agentziak, MIK zentroarekin elkarlanean. Horren barruan, gaur, egubakoitza, langileen parte-hartzea handitzeko interesa duten enpresaburuei zuzendutako jardunaldia egingo dute, eta ekainaren 10ean, langileei zuzendutako beste bat. Ekaineko jardunaldira entzule gisa joan nahi dutenek *airizar@debagoiena.eus* helbidera mezua bidali behar dute.

Garapen Agentziako arduradunen esanetan, langileen partaidetza handitzea edo ahalbidetzea aukera bat izan daiteke enpresendako, hainbat egoeratan: adibidez, gaizki doazen enpresen egoera zuzentzen lagun dezake; enpresaburua erretiratzen denean, enpresa ixtearen alternatiba izan daiteke berau langileen esku uztea; enpresa lehiakorrago egiteko balio dezake… Langileek enpresan parte hartzeko modu asko daude, eta horiek azalduko dituzte jardunaldiotan.

**Jardunaldiak baino gehiago**

Ekintza horiek lan-ildo luzeago baten zati dira. Garapen Agentzia harremanetan dago bailarako eta kanpoko eragileekin, sentsibilizazio eta informazio kanpaina egiteko.

# Formazio saioak egingo dituzte, etxeko konpostajean sakontzeko

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Oñatin eta Arrasaten antolatu ditu Debagoieneko Mankomunitateak etxeko konpostajean sakontzeko saio bana: ekainaren 3an (eguaztena), Oñatiko osoko bilkuren aretoan, eta 4an (eguena), Arrasateko Kulturateko Jokin Zaitegi aretoan. Biak ala biak 18:30ean.

Hain zuzen ere, Etxeko Konpostajearen Jarraipen eta Aholkularitzarako Bigarren Kanpaina iazko azaroan jarri zuen abian, eta bertan, besteak beste, konpostajearekin oso inplikatuta dauden erabiltzaileentzat aholkularitza espezifikoko programa eskaini zuten. Hala, behar bereziak dituzten aipatutako erabiltzaileentzat formazio espezifikoko bi saio antolatu dira

**Arlo ugari lantzeko**

Oraingo formazio saioak behar bereziak dituzten aipatutako erabiltzaileentzat dira, eta honako arloak landuko dituzte: legedia; konpostajea zer den eta beharrak; konpostajearen kalitatea eta ezaugarriak; arazoak eta jarraibideak; uste okerrak; norberaren konpostaren analisiak; erabilerak eta zalantzak. Izena emateko: 943 79 35 98 (Kristina) edo 687 54 39 90 (Joseba).

ULMA — ULMA Agricola, S. Coop. — Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA
DEIALDIA

**Eguna:** 2015eko ekainaren 4a
**Ordua:** 14:30ean lehen deialdia eta 15:00etan bigarrena
**Tokia:** ULMA Taldeko auditoriuma – Oñati (Gipuzkoa)

GAI ZERRENDA

1. Aurreko aktaren onarpenari buruzko informazioa eta bazkideak izendatzea batzar honetako akta onartzeko
2. 2014ko ekitaldiko gestio soziala aztertzea eta, badagokio, onartzea, eta 2015eko gestio plana berrestea
3. Ulma taldeari buruzko txostena
4. 2014ko ekitaldiko urteko kontuak aztertzea eta, badagokio, onartzea
5. 2014ko ekitaldiko emaitzak banatzea
6. Heziketa eta kooperatiba sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako kontribuzioa aplikatzea (ipdk)
7. Supraegiturako entitateei buruzko gaiak
8. Ekonomia araubideko estatutu-xedapenak
9. Menpeko Ekarpen Finantzarioen jaulkipena
10. Kontseilu Errektoreko kideak berritzea
11. Zaintza Batzordeko kideak berritzea
12. Ahalmenak eskuordetzea
13. Galde-eskeak

OHARRA: Bazkideei gogorarazten zaie sozietatearen egoitzan eskuragarri dituztela urteko kontuak, emaitzak aplikatzeko proposamena eta kontuen kanpo ikuskaritzak egindako gestio txostena, Batzar Nagusiaren deialdiaren epean zehar aztertu ahal izan ditzaten.

KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA
Oñati, 2015eko maiatzaren 22a

ULMA — ULMA Hormigon Polimero, S. Coop. — Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA
DEIALDIA

**Eguna:** 2015eko ekainaren 5a
**Ordua:** 09:30ean lehen deialdia eta 10:00etan bigarrena
**Tokia:** MU-Enpresagintzako auditoriuma – Oñati (Gipuzkoa)

GAI ZERRENDA

1. Aurreko aktaren onarpenari buruzko informazioa eta bazkideak izendatzea batzar honetako akta onartzeko
2. 2014ko ekitaldiko gestio soziala aztertzea eta, badagokio, onartzea, eta 2015eko gestio plana berrestea
3. Ulma taldeari buruzko txostena
4. 2014ko ekitaldiko urteko kontuak aztertzea eta, badagokio, onartzea
5. 2014ko ohiko batzar nagusiak hartutako erabakia berraztertzea, 2014ko ekitaldiko interesak sortzeari buruzkoa
6. 2014ko ekitaldiko emaitzak banatzea
7. Heziketa eta kooperatiba sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako kontribuzioa aplikatzea (ipdk)
8. Supraegiturako entitateei buruzko gaiak
9. Ekonomia araubideko estatutu-xedapenak
10. Menpeko Ekarpen finantzarioen jaulkipena
11. Zaintza Batzordeko kideak berritzea
12. Kontseilu Sozialeko kideak berritzea
13. Ahalmenak eskuordetzea
14. Galde-eskeak

OHARRAK: Bazkideei gogorarazten zaie sozietatearen egoitzan eskuragarri dituztela urteko kontuak, emaitzak aplikatzeko proposamena eta kontuen kanpo ikuskaritzak egindako gestio txostena, Batzar Nagusiaren deialdiaren epean zehar aztertu ahal izan ditzaten.

KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA
Oñati, 2015eko maiatzaren 19a

## Garayko langileek bertan behera utzi dute greba, hitzarmena lortu dute-eta

Oñatiko Hijos de Juan de Garay enpresako langileek ez dute greba egin, akordioa egin dutelako enpresarekin. Hitzarmenak langileen eskaerak jasotzen ditu: hain zuzen, aurten soldata %1,3 eta KPI+1,7 handitzea; lizentzietan eta baimenetan hobekuntzak; mutuekin ez kontzertatzea gaixotasun arruntarengatik hartzen diren bajen jarraipena eta kontrola; eta lan erreformarekiko babesa.

## Mendekosteko otoitzaldia egingo du Bergaran Osasun Pastoralak

Debagoieneko artziprestazgoko Osasun Pastoral taldeak otoitzaldia egingo du ekainaren 1ean, astelehena, Bergarako San Martin elizan (Sierbetan, Santa Marina parrokia ondoan), 16:30ean. Debagoieneko Osasun Pastoralak hiru otoitzaldi handi egiten ditu urtean zehar: Abendualdikoa, Garizumakoa eta honako hau, Mendekostekoa.

## ZABALIK

**XABIER LETONA**
goiena.eus/komunitatea/



# Ada, Evo, kontuz zorro beltzekin

Ez naiz ni hasiko Arrasaten eta Gipuzkoan EH Bilduren porrota eta EAJren garaipena aztertzen. Egongo dira bateerako zein besterako arrazoi ugari eta bailarako komunikabideetan izan da horren inguruko hausnarketarik. Baina arrazoien artean agertzen da hondakinen kontua, edo atez atekoa gura bada, Arrasaten indarrean jarri ere ez dena EAJren eta EH Bilduren artean kontsentsuzko irtenbide bat adostu delako, Gipuzkoako beste hainbat lekutan moduan. Bada baikortasunerako tarterik, beraz, baina emaitzek esango dute.

Gipuzkoako gobernua galdu du EH Bilduk, eta, gainera, hainbat herritako galeretan izan dezakete zerikusirik atez ateko mamuek. Akaso ez du ondo saldu berau, ez du herritar multzo zabalen erosotasuna eta kontzientziarik eza ondo neurtu. Edo ez du ulertu pertsonaren askatasuna zer den. Ez da ohartu jasangarritasuna ondo dela eskola liburuetarako, baina nekez ezkontzen dela egungo etxeetako espazio txikiekin.

**Jasangarritasuna nekez ezkontzen da egungo etxeetako espazio txikiekin**

Ez da ohartu instituzioak bakarrik ezin duela, herritar antolatuen elkarte indartsu barik jai dagoela: ikusi Usurbil, Hernani, Oñati. Lurraldeko botere mediatiko eta faktikoei aurre egiteko indar barik amildegia zuela aurrez aurre. Bestelako aliatu politiko eta sozialik gabe zorro beltzetan zorabiatuko zela. Barruan ere gaizki neurtu du, ez baita ohartu ez dela herri bat armaz borrokatu independentziaren eta sozialismoaren bidean gero zaborretan itotzeko.

Bartzelonan bere programan hondakinen atez ateko bilketa aurreikusten duen Ada Colauk hobeto neurtuko ahal ditu kontuok. Edo Bolivian gauza bera egitera doan Evok.

Eskerrik asko, alabaina, Gipuzkoako funtziotako Diputazioari arazoa mahai-gainean jartzeagatik. Txipen bidezko edukiontzien kontsentsuak hondakinen %70-80 sailkatuta biltzea lortzen badu ez delako beharrezkoa izango Zubietako –eta ez Garagartzako– erraustegia.

## USTEAK USTE

**JOKIN BEREZIARTUA** | jbereziartua@goiena.eus

# Akordioa, are garrantzitsuago

Hauteskunde gaua berezia izan zen oso, arrasatear zein kazetari moduan. Lana gogotik egin behar datuak eta balorazioak jasotzeko, historikoa izan zen gau baten. Izan ere, Arrasateko EAJren kiniela baikorrenek ere ez zuten garaipena aurreikusten; hori bera frogatu nuen batzokian, *in situ*, botoen zenbaketa amaitzerako bertan nengoelako. EH Bilduren porrota ere, erabateko sorpresa. Ez nator asteon egin diren hamaika balorazioatan eta analisitan sakontzera; kazetari moduan Arrasaten irekitzen den aro berriari ari natzaio begira. Baina ezin ezer garbirik aurreikusi... Hori bai, orain arte akordioak garrantzia izan badu, agintaldi berrian are garrantzitsuagoa izango da. Hori ei da politika, edo?

## MARRAZKIZ

**ALEX UGALDE** | goiena.eus/komunitatea/




## HANDIK ETA HEMENDIK

# Azpidatziak euskararentzat

**Leire Palacios**
http://goo.gl/ViyvZt

Atzo aipatu nituen France3k Akitania izeneko atalaren menpe sailkatzen dituen *Pays Basque* etiketadun pieza parea. Ikus-entzunezko tarte bi horiek dira hain zuzen, *Le Magazine du Pays Basque* eta *Txirrita*. Atsegina zait pentsatzea Frantziako telebista publikoan euskarak eta euskaldunok badaukagula tarte. Ez horren atsegina, ordea, ez soilik sailkapenean baizik eta hizkuntzaren tratamenduari dagokionez, azaleratzen den lurraldetasun menpekotasuna.

*Le Magazine du Pays Basque*, izenak adierazi legez, magazin edo *bulletin* laburra da. [...] Horretan ematen dute Ipar Euskal Herriko hainbat mugimendu, joera, proiektu edota pertsonaiaren berri. Adierazpen eta irudiekin jositako erreportajeak dira; genero informatibokoak baina informazio saioetan ikusten ditugunak baino luzeagoak eta dokumental laburrak baino motzagoak. Deigarria da, *Le Magazine du Pays Basque* tartean kateak jarraitzen duen hizkuntz politika, ez baita koherentea. Alegia, pieza batzuetan narratzaile eta hizlariak euskaraz egiten badute ere, beste batzuetan frantsesez baino ez. [...] Euskal Herria ardatz duen saioa izaki, euskaraz egiten denean, emanaldia jarraitzeko azpidatziak frantsesez ez dira sekula falta. [...]

Azpidatziei dagokienez, tankerakoa gertatzen da 2012an estreinakoz aireratu zuten *Txirrita* tartearekin.

Euskarak azpidatziak merezi ditu, baina frantsesak, antza, ez du euskaraz azpidatzirik behar. Ilogikoa. Hala ere, Allande Boutinek gidatzen duen saioaren kasua bestelakoa da. Izan ere, Boutinek euskaraz egin ohi du mintzo. Hiru iganderik behin ematen dute *Txirrita*, 11:30ean. Ordu erdiko iraupena du, eta, aurrekoa bezala, gai baten ingurukoa da. Honetan, ordea, diziplina bati lotutako pertsonaiaren bitartez estalgabetzen zaigu edukia, aurkezlearen presentziak ahalbidetzen dituen lotura fisiko eta mintzatuei esker.

Eta edukia ere pertsonaiaren adierazpenek, garaiko irudiek zein atzera telebistako artxiboko begirakoek josten dute.

# Bi kazetari hil dituzte Brasilen astebetean

**Lander Arbelaitz**
http://goo.gl/29AwGK

Brasilgo irrati esatari Djalma Santos da Conceição hilik aurkitu dute Kazetariak Babesteko Batzordeak salatu duenez (CPJ ingelesezko sigletan). Larunbatean, Bahia estatuko ipar ekialdean bahitu zuten ezezagun armatuek eta ilunabarrean topatu dute bere gorpua, tortura zantzuekin. Kazetariaren hilketa Evany José Metzker blogari kritikoa burua moztuta aurkitu zutenetik astebetera gertatu da. [...] Santos da Conceiçãk 53 urte zituen eta 22.000 biztanle inguruko herrian goizeko irrati programa gidatzen zuen. CPJn jaso dutenez, kazetari polemikoa zen, eta krimen lokalaren eta ustelkeriaren aurkako neurriak eskatzen zituen. [...] Evany José Metzekerrek 67 urte zituen, *Coruja do Vale* bloga zuen eta haurren prostituzioa ikertzen ari zen. [...] Hau ere torturatu egin zuten, burua moztuta eta eskuak lotuta aurkitu zuten.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Aitor Izagirre
**Zuzendari nagusia** Iban Arantzabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Ubane Madera
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
**Argazkilaria** Imanol Soriano
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia.
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.com

**PUBLIZITATEA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09
publi@goiena.com

**HARPIDETZA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 00
harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-965/2014
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 20.100 ale
**Difusioa:** 19.951 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK

Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala · Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

**Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

# GUTUNAK

**Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.**

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa.
Gutuna helarazteko bideak dira: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

## Agur, Xolonpo

**Anton, Juanma, Virgi, Aran eta Agur Azpiazu Elizondo**
Oñati

Nola agurtu lagun bat? Nola esan adio? Nekez.

Halere, une hau iritsi da. Kolpe izugarria izan zen berria ezagutzea.

Lehenengoan ezin sinetsi, ezin irentsi; ondoren, oroitzapenak.

Eta zenbat, Xolonpo! Gure aurpegietan irribarre gozo bat marrazten dituzten oroitzapen horietakoak: Gurianian Esperekin berriketan, bion artean mundua konpontzen zure ikuspuntu solidariotik; Triana, Atzeko kalea, Sortako furgoneta, etxafuegoak, gorroak, jotak...

Eta beti hor, beharra zegoen tokian; zure gozotasuna zabalduz laguntzeko prest.

Agur, lagun, plazera izan da.

## Hementxe planto!

**Inaxio Garro**
(Aretxabaletako Aralarko zinegotzi ohia)
Aretxabaleta

Aitortu beharra daukat amaitu berri den agintaldia luzea izan dela, ia amaiezina. Aralarren ikuspegitik, azken lau urte hauek dezepzioz, desilusioz eta frustrazioz beteak izan dira, udal gobernu bati exijitu beharko litzaizkeen jokabidetik urrun.

Luze joko lukeelakoan, ez naiz ustezko arrazoiak azaltzen hasiko.

Dagoeneko horrek ez dauka soluziorik, baina gertatutakotik asko ikas daiteke, halakoetan behar izaten den autokritika egiten hasita, erantzuleak eta errudunak etxetik kanpo bilatzen hasi gabe.

Errazegia izango litzateke emaitzak ezagutu ostean ustezko arrazoi horiek zeintzuk izan diren zerrendatzea, giltza non zegoen bila jarriz. Ez naiz tentazio horretan eroriko. Hori bai, halakoetan giltza norberaren poltsikoan egoten ohi da, baina, horren jabetza gurea bakarrik delakoan, ez dugu inorekin partekatu nahi, giltza bera non dagoen ahazteraino.

Pare bat urte dela, herri honen etorkizuna Gure Esku Dagoela aldarrikatu genuen herritar askok eta askok, itsasoa betetzeko guztion tantak beharrezkoak zirela han eta hemen oihukatuz. Sigletatik harago, herria eraikitzeko kolore guztiak behar dira, aniztasuna, pluraltasuna. Hemen inor ez dago soberan, herria eraikitzen laguntzeko baldin bada.

Eta hori aldarrikatu eta sinisteaz gain, praktikan jarri beharra dago, elkarlanetik, negoziaziotik, adostasunetik, iritzi trukaketatik. Horiek dira politikaren zutabeak, herri honetan praktikara eraman ez dena. Ikas dezagun eta ez gaitezen itsutu. Oraindik, Gure Esku dago.

Aralarrek bere ibilbidea egin du Aretxabaletan hamabi urtez, eta honaino heldu da. Puntu honetara helduta, eskerrik zintzoenak eman nahi dizkiegu urte hauetan guregan konfiantza jarri duten aretxabaletarrei, esperientzia aberasgarria eta emankorra bizitzeko aukera eman diguten horiei guztiei. Eta maila pertsonaletik, herritarrei eskerrak emateaz gain, udal langileei eta beti ondoan gertu eta laguntzeko prest izan ditudan Joxeangel, Olaia, Felis, Arazeli eta gainerako lagunei ere eskerrak eman beharrean nago. Etxekoei, zer esanik ez!

Eta honen bitartez, zorionak hauteskunde hauetako irabazleei, eta kilokada animo gainerako guztientzat.

## Eskerrik asko, Antzuola!

**Beñardo Kortabarria**
(EH Bilduren taldeko zinegotzien izenean)
Antzuola

Antzuolako EH Bilduren izenean, eskerrik beroenak botoa eman diguzuen antzuolar guztiei. Konfiantza jarri duzue gugan, lantaldean, lana egiteko moduan, eta aurkeztu dizuegun herri-programan. Geure onena emateko borondatearekin, lana zintzo eta gogor egiteko intentzioarekin, gogoarekin eta ilusioarekin, eta esku artean dugun erronkaren jakitun erantzungo diogu eman diguzuen eginkizunari.

Herri-programa izango da datozen lau urteotako gure lan-tresna, gutxi gorabehera 60 lagunen artean osatutako lana. Kanpainan esan dugun moduan, ibilbidea markatzen du, baina ez da ezer itxia, herritarren ekarpenen bidez etengabe egokitu, osatu eta herritarren premien arabera eguneratuz joango den tresna delako. Helburua garbia: Antzuola bizi izateko gero eta toki hobea izan dadila denontzako.

Esandakoa, eskerrik asko, animo, lanera eta besarkada herritar guztiei.

## Harrizko herria

**Ibai Redondo**
(Debagoieneko Sortuko koordinatzailea)
Debagoiena

Hauteskundeetako emaitza txarrak aztertzen ari garen honetan, oraindik ere Gasteizko Harresiaren irudiak burutik kendu ezinda eta Auzitegi Nazionalean Gazte Danbada antolatzearren epaitzen ari diren gazteak, bereziki Iraitz Salegi, buru-bihotzean, epaiketen inguruko hausnarketatxo bat egin nahiko nuke.

*Zer egingo degu, alkar hil? Hori ez!,* dio Benito Lertxundiren abesti ezagunak. Bada, pasa den astelehenean Gasteizko Harresian, abestia ia errealitate bilakatu zen. Eusko Jaurlaritzak bere herritarren kontra bidali baitzuen polizia, amorru biziz eta dozenaka zauritu eraginez. Biolentzia proportzionala? Bai, zera!

Euskal herritarren gehiengo zabalak justizian oinarritutako bakea nahi duela seguru gaude. Bakea Euskal Herrian da, besteak beste, preso eta iheslariak etxean edukitzea, arrazoi politikoengatik inor ez kartzelaratzea, biktima guztien errekonozimendu eta erreparazioa eta gure etorkizuna erabakitzeko eskubidea; hau da, gatazkaren arrazoiak konpontzea.

Euskal Herriaren askatasuna eta justizia sozialerako bidea bide baketsuetatik bakarrik urratzen ari gara euskal herritarrak. Ez, ordea, Espainiako eta Frantziako estatuak. Biolentzia estrukturalki erabiltzen dute gure herriaren aurka.

Horregatik, Gasteizko Harresia aldi berean esperantzaren eta tragediaren harresia izan zen. Tragediarena, estatuak nahi duena, bertako poliziaren (Ertzaintza) eta instituzioen bidez (Eusko Jaurlaritza) egiten duelako. Espainiar legearen, lege injustuen, lege inposatuen eta menpekotasunaren gurpil zoroan harrapatua dago Jaurlaritza. Baina hortik ihes egin nahi du?

Eta hurrengoan zer? Gasteizko Harresiak esperantza ere eragiten du. Euskal Herrian badaudelako estatuaren biolentziari aurre egingo dioten milaka pertsona harresiaren lehen lerroan. Kasu honetan, Ghandik bezala beraien gorputzak erabiliz, desobedientzia baketsua erabiliz. Baina lerro gehiago, askoz gehiago, behar ditugu. Herri Harresi bat egin beharra daukagu, maiuskulaz. Harriz harri, herriz herri, euskal herritar gehienak, bertako instituzio, alderdi, sindikatu eta eragileek osatua, giza eskubide guztiak, eskubide zibil eta politikoak estatu faxisten aurrean defendatuko dituena.

Bukatzeko, besarkada bero bat harresien barruan zaudeten guztioi, Iraitzi eta Madrilen epaituak izaten ari diren guztiei, eta zer pentsa eman behar digun esaldia: "Harriak ditugu, baina ez dugu herririk. Harriak ditugu boltsilo zulatuetan, baina ez dugu inon eraikiko betirako etxerik. Harriak ederragoak al dira harresian?" (Joseba Sarrionaindia).

## Aretxabaletako balorazioa

**Xabier Igartua, Jon Albizu, Oihane Etxebarria, Irati Pagoaga eta Hector Prieto**
(Aretxabaletako EH Bildu taldearen izenean)
Aretxabaleta

Gutun honen bitartez, igandean EH Bildu bozkatu zuten 1.383 herritarrak eskertu gura ditugu. Eskerrak eman EH Bilduri botoa eman eta gure proiektura batu zareten aretxabaletar guztiei.

Aretxabaletako EH Bildu herri programa eta lantalde prestuaz aurkeztu gara. Gura dugun Aretxabaleta nola irudikatzen dugun adieraziz: anitza, ezkertiarra eta parte-hartzailea. Aldi berean, jorratzen jarraitu nahi ditugun lan ildoak zeintzuk izango diren nabarmendu nahi ditugu: hizkuntza, aukera berdintasuna, ingurunea, kultura, ekintzaileltasuna, mugikortasuna, herri curriculuma, kirola, garapen ekonomikoa eta justizia soziala, besteak beste. Modu honetan, oposiziotik bada ere, lanean jarraitzeko konpromisoa berresten dugu, herritarrekin batera eta gure lema gogora ekarriz: elkarlanean hobetzen, elkarlanerako ordua heldu da.

Emaitzak ez dira izan espero genituenak, ez dugu aretxabaletar gehiago proiektura batzea lortu, baina ondo egindakoak sendotu eta gaizki egindakotik ikastea dagokigu.

Bide batez, eskerrak eman nahi dizkiogu azken lau urteotan Udalean lanean aritu den taldeari.

Zorionak gu baino emaitza hobeak lortu dituztenei, eta, nola ez, Aretxabaletak ekainaren 13tik aurrera izango duen alkateari, Unai Elkorori.

Guk gure aldetik emaitzen arrazoiez hausnarketa lasaia egingo dugu. Bide batez, datorren ostegunerako, ekainak 4, arratsaldeko sei eta erdietan, Arkupen balorazio bilera irekirako deialdia egiten dugu. Denok gonbidatuta zaudete.

## Bergarako Pazkoen hasiera tamalgarria

**Aintzane Oiarbide**
(Bergarako zinegotzia)
Bergara

Maiatzak 22, Pazkoetako jaien hasiera Bergaran. Arratsaldeko 8ak, San Martin plazan Bitorianatxoren jaitsiera. Plaza jendez beteta, nagusi, ume eta zahar.

Etxafuegoaren hotsarekin batera udal bandaren doinua eta jendea dantzan. Horretan nengoela, Bergarako jaiei hasiera emateko lagun eta familiartekoekin giro onean, bat-batean kea ikusi genuen gure atzean, udaletxe ondoan, Biltoki gainetik, ke laranja. Aldarrikapen laranja egiten zuen pankartaren osagarri ke laranja. Bat-batean, plaza erdi-erdian ginenak ezin arnasarik hartu, ezin metro erdira genuena ikusi, jendea plazatik ihesi, umeak beldurtuta negarrez... Udal bandak berak ere doinua jotzeari utzi behar izan zion lehenengo aldiz.

Horrelako jendartea arriskuan jartzea, edozer gauza pasatzeko trantzean jartzea, hori, libre al da? Festa giroan hasi genuena tamalezko ezuste bihurtu zuten pertsonen gainetik, umeen gainetik, bergararren gainetik jartzen direnek. Alkateak, gobernuko zinegotziek, udaletxeko balkoitik ikusi eta behatz bakar bat ere mugitu ez! Herritarrak arriskuan jartzen dituen aldarrikapenak zilegitasun osoa galtzen du.

# HERRIAK



Elgetako dantzariak, herriko plazan, saioa egiten. | JOAQUIN GASTESI ARGAZKI ARTXIBOTIK

**URTEURRENEKO EGITARAUA**

**EKAINAK 5, BARIKUA**

**19:00** Pilotalekuan, herri mailako pilota partiduak.

**EKAINAK 7, DOMEKA**

**09:30** Mendi irteera Ozkarbipetik abiatuta.

**13:00** Herriko plazan, Elgetako gazteen dantza erakustaldia eta argazki erakusketa.

**14:30** Ozkarbi elkartean, bazkaria eta dantzaldia Jose Gardokirekin.

**DATUA**

**356**

ERABILTZAILE

Ozkarbi elkarteak, egun, 356 erabiltzaile ditu. Bazkideak 206 dira.

# Elgetako Ozkarbi elkarteak mende erdiko ibilbidea

- Urteurreneko ekitaldiak iragarri dituzte ekaineko lehen asteburuko
- Herriko kultura eragile garrantzitsuenetakoa izan da hamarkadetan

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Beste garai batzuk ziren. Francok agintzen zuen eta gobernadore zibilak kontrolatzen zuen mugimendu txikiena ere. Euskal kutsua zuen edozer zegoen debekatua. Elgetako gazteek, ordea, dantza taldea zuten. Gregorio Santa Cruz igotzen zen domeka oro Eibartik dantza eskolak ematera.

Handik urte batzuetara Joaquin Gastesi apaiz gaztea etorri zen Elgetara, eta gauzak egin nahi zituen herrian. Kuadrilla bat elkartu eta elkarte bat sortu zuten. 79 bazkide zituen elkarteak, eta bost batzorde. Patxi Basauri izendatu zuten lehen presidente eta Maria Asun Agirre presidenteorde. 1965eko garai haietarako esanguratsua zen aukeratutako izena: oskarbi edo zeru garbia. Salbador kalean izan zuen lehen egoitza Ozkarbik.

Mende erdia igaro da ordutik hona eta gauzak asko aldatu dira, baina Ozkarbi elkarteak 206 bazkide eta 356 erabiltzaile ditu. Eta 50. urteurreneko ospakizun ekitaldiak iragarri dituzte ekaineko lehen aste bukaerarako.

**Elkarte eraginkorra**

Elgetar gutxi izango da Ozkarbi elkartetik pasa ez denik. Gaur egun desagertuta badaude ere, oso eraginkorrak izan ziren urteetan elkarteko bost batzordeak: musika, biblioteka, mendia, pilota eta dantza. Auzolanean egiten zuten lan, eta nork bere ardurak serio hartuta.

Hasierako urte haietan Ozkarbik balio izan zuen, baita ere, erakundeetatik zetorren aginte ereduari aurre egiteko. Eta herritarren babesa izan zuen hasieratik. Bestelako ezaugarriak ere izan ditu Ozkarbi elkarteak. Mistoa izan da hasieratik, gauza oso ezohikoa, batez ere, sorrerako urte haietan. Eta hasieratik egin du adin txikiko bazkideak egitearen aldeko apustua. Makina buelta eman behar izan zituen Gastesik baimen legalak lortzeko, baina herriko neska-mutikoek dantza, musika, pilota edo zeramika eskolak jaso dituzte Ozkarbin. Mendi irteerak ere egin dituzte. Eta horrekin batera kultura ekintzak antolatzeko eragile garrantzitsua izan da Ozkarbi. Gabonetako zein jaietako karrozak, bertso emanaldiak, dantza saioak, antzerkiak, musika jaialdiak, pilota txapelketak, euskal jaiak... Xabier Lete, Lourdes Iriondo, Pantxoa eta Pello... izan dira Ozkarbi elkarteak frontoian antolatutako jaialdietan. Desagertua den lau t'erdiko txapelketa ere bertatik sortua da. Eta beste berezitasun bat: Elgetako jaiak Andramarietan izaten ziren eta Ozkarbi eguna San Pedro eguneko hurrengo domekan. Egun, data horrekin ospatzen dituzte herriko jai nagusiak Elgetan.

Mende erdi pasa da eta aldatu egin dira gauzak Ozkarkin. Baina eredu izaten jarraitzen du. Herriko erretiratuen elkarteko egoitza ere bada, eta belaunaldien arteko hartu-emanak ahalbidetzen ditu. Gogora ekarri nahi dute, gainera, egindako ibilbidea.



Bertsolariak, frontoian egindako euskal jai batean. | JOAQUIN GASTESI ARGAZKI ARTXIBOTIK



Ozkarbi elkartearen Gabonetako karroza. | JOAQUIN GASTESI ARGAZKI ARTXIBOTIK

# EAJ: "Akordioa nahi dugu Udal sendoa osatzeko"

Hauteskundeetako irabazleak beste taldeekin elkartuko dira datozen egunotan

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

"Erronka berriaren aurrean arduratsu, lanerako gogotsu eta ilusioz beteta gatozen taldea gara". Hitz horiek izan zituen EAJko alkategai Maria Ubarretxenak hauteskundeetako emaitzak baloratzeko agerraldian. Udalbatzan egongo diren zortzi zinegotziak aurkeztu, arrasatearrei erakutsitako babesa eskertu eta egingo dituzten hurrengo urratsen berri eman zuten.

Ubarretxenaren arabera, "guztiendako eta guztiekin" lan egiteko gertu daude Udal "sendo eta egonkorra" lortzeko: "Arrasatearren beharrei aurre egiteko herritarren zerbitzura lan egitera gatozela berretsi nahi dugu. Bide horretan, parte-hartzea, gardentasuna eta gertutasuna izango dira, batez ere, gure eguneroko lanaren oinarria. Guztion artean eta guztiekin lan egiteko gertu gaude, Arrasatek Udal sendo eta egonkorra izan dezan".



EAJko zortzi zinegotzi hautetsiak, Maria Ubarretxena buru dutela. | J. BEREZIARTUA

**"Elkarlana eta adostasuna"**

Gainerako taldeekin bilera sorta abiatuko dute aste honetan bertan, bigarren zerrenda bozkatuenetik hasita. EH Bildurekin hasi, eta Alderdi Sozialistarekin, Baleikerekin eta Irabazirekin elkartuko dira. Ika-mikak alde batera utzita, ahalik eta akordio zabalenak lortzeko lan egingo dutela adierazi zuen Ubarretxenak: "Oso alderdi irekia gara, independentzia handia uzten zaie herriko lantaldeei eta Arrasaterako dugun ideia da Udal plurala osatzea. Izan ere, pentsatzen dugu arrasatearrek akordioa, elkarlana eta denon arteko adostasuna nahi dutela aurrera egiteko".

Jeltzaleek ez dute aterik ixten eta edozein talderekin ituna egiteko prest daude, baldin eta gainerako indarren programak eta helburuek eurenekin bat egiten badute, ildo nagusietan, behintzat: "Talde politiko batekin baino gehiagorekin akordioetara iristea izango litzateke gure nahia".

# Herriko jatorri aniztasuna, elkar ezagutzerako tresna moduan

**J.B.** | ARRASATE

Udalak *Arrasateko jatorri aniztasuna zenbakitan* deritzon egitasmoa aurkeztu zuen martitzenean Kulturaten. Jarduneko alkate Inazio Azkarragaurizarrek azaldu zuenez, elkar ezagutza indartzea eta kanpotarrekin sortzen diren "estereotipo negatiboak datuen bidez" deseraikitzea da egitasmoaren helburu nagusia. Aztiker enpresak egin du aplikazioa eta dagoeneko erabilgarri dago Udalaren webgunean, "modu erraz eta deskriptiboan". Erroldako datuak modu anonimoan jaso dituzte Aztiker enpresako adituek, eta "jatorri aniztasunaren mapan" askotariko datuak kontsulta daitezke. Adibidez, arrasatearren jaiolekua kontinenteen eta estatuen arabera ikus daiteke, eta baita, esaterako, zenbat arrasatear jaio diren Euskal Herriko zein Euskal Herritik kanpoko udalerrietan.

Aplikazio berria erabiltzea denon ardura dela uste du Ongizate zinegotzi Amaia Larrañagak: "Guztioi dagokigu tresna horri etekina ateratzea eta atzerritarrei lotutako estereotipoak deseraikitzen laguntzea". Aurkezpenean parte hartu zuten Udalak, Diputazioko Migrazio eta Aniztasun arloak, Aztiker enpresak, emakume musulmanen integraziorako Euskadiko elkarteak eta Elkarhezitzen-ek.



Aurkezpenaren ostean talde argazkia atera zuten. | JOKIN BEREZIARTUA

## NIRE USTEZ



**ANE GOROSABEL**

# Herri harresia, herri boterea

Sei urteko kartzela zigorra euskal politikan izandako militantzia publikoagatik. Batzuen ustetan, legez kanpoko politikaren parte izateagatik, eta, zoritxarrez, uste hori dutenen artean dago boterea.

Ala ez? Joan den hilaren 18an, Gasteizko Andra Mari Zuriaren plazan islatu zen herri jarrerak ere badu botere izugarria.

Beltzez jantzitako betiko munstroen jarrera oldarkorraren aurrean, kolore laranjek eta aurpegi margotuek indarra eta duintasuna islatu zizkiguten, justiziaren faltan desobedientzian gogor ekinez, adorez beterik, burua tente eta musu estalidun horiei begietara begiratuz.

Irudietan, erresistentzia sinbolikoak biolentziarekin talka eginez, munstro beltzen krudelkeria lotsagabe bermatua, munduko hainbat bideokameren aurrean bortizkeria nabarmen, justiziaren babespean ekiten, ustezko boterea proportzionaltasunez gauzatzen.

**"Harresiaren boterea, konpromisoaren erakusle"**

Ondoren, isiltasuna. Plaza Zuria laranja bihurtuta, hutsik, suhiltzaileek kendu gura izan ez duten pankartak bertan jarraitzen du, sentitutako tentsioa baretu guran, jasotako tratuaren aurrean haserre, baina adierazitako duintasunaz eta indarraz harro.

Beste behin, elkartasuna garaile, eta herri indarra nagusi. Harresiaren boterea, konpromisoaren erakusle.

# PSE-EE: "Amaitu da liskarren aroa, eta itunena hasi"

**J.B.** | ARRASATE

Hauteskundeetan hirugarren zerrenda bozkatuena izan den Alderdi Sozialistak prentsa ohar bidez jakinarazi du hurrengo Udal Gobernuari laguntzeko gertu dagoela: "Zorrotzak izango gara, baina gertu gaude laguntzeko, betiere arrasatearrei begira. Amaitu da liskarren aroa eta itunena hasiko da; hori izan da arrasatearren mezua. Bestalde, zorionak Arrasateri parte hartze altuagatik eta eskerrik asko PSE-EErengan konfiantza jarri duten guztiei".

# Beste Bat! Eguna bihar, bosgarren urtez jarraian

**J.B.** | ARRASATE

Alemaniako St. Pauli klubaren jarraitzaile den Arrasateko Beste Bat! lagunarteak bosgarren urtez antolatu du urteroko ospakizun eguna, biharko. 10:00etan areto futboleko partidua jokatuko dute Iturripen eta ondoren bazkaria egingo dute Kasino elkartean. Arratsaldean zuzeneko musika izango da protagonista: Las Klitorix, Amaiur tabernan (17:00); Los WC, Osorik-en (18:00); Oldarkor taldea, DATen (19:00); eta, amaitzeko, Iluntzen, The Ugo's Band (20:00).




ESKERRIK ASKO ARRASATE

eaj pnv

# Erretiratuendako bazkarian 730 lagun espero ditu bihar SUDCek

Musakolako kiroldegian elkartuko dira; Udalaren laguntzarekin antolatzen dute

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Urteroko ohiturari eutsiz, SUDC elkarteak herriko erretiratuendako bazkaria antolatu du Udalaren laguntzaz. Bihar izango da, hilak 30, eta antolatzaileek 730 bat lagun espero dituzte. Musakolako kiroldegian egingo dute bazkaria, 14:00etan hasita. Bazkariaren ostean dantzaldia egingo dute kiroldegian bertan. Ondoren, opari banaketa egingo dute zozketa bidez: "Gonbidatu bakoitzari zenbaki bat ematen diogu bazkaldu aurretik eta ondoren herriko denetariko komertzioek ematen dizkiguten opariak zozketatzen ditugu", adierazi du SUDCeko presidente Juan Luis Arkauzek.



Iazko bazkarian ia 800 lagun elkartu ziren Musakolako kiroldegian. | GOIENA

### Omenaldia edadetuenei

Opari banaketaren ostean, gizonezko edadetuenak txapela jasoko du eta emakumezko edadetuenak lore sorta, eta biendako egongo da plaka oroigarria. Antolatzaileek aurreratu dutenez, Inazio Azkarragaurizar alkateak hartuko du parte amaierako omenaldi horretan.

Egitarauari dagokionez, urteroko plana jarraituko dute. 10:00etan suziriak jaurtiko dituzte Garibaitik eta 12:30ean meza santua entzungo dute San Juan Bataiatzailearen parrokian. Mezaren ostean, 13:30 aldera, autobusa irtengo da Garibaitik eta hainbat buelta emango ditu eramatea behar duten gonbidatu guztiak kiroldegira hurbiltzeko. Bestalde, honako hau izango da bazkariko menua: hasierakoetan, esparragoak, urdaiazpikoa, langostinoak eta legatz-budina; bigarren platerean, itsaski-krema eta txahal -biribilkia eta postrerako goxua. Kaferik eta koparik ez da falta izango.

# Sanjuanak iragartzeko kartela, Helena Azkarragaurizarrena

J.B. | ARRASATE

Helena Azkarragaurizar arrasatearrak irabazi du San Juan jaietako kartel lehiaketa: " Kartelei begi ezberdinekin begiratzen zieten bost emakumek osatu dute epaimahaia, eta, azkenean, dragoi festazale eta originalaren alde egin dute", adierazi dute Udaletik.

### 80 urtetik gorakoei omenaldia

Bestalde, ekainaren 24an, San Juan egunean urtero egiten den 80 urtetik gorakoei omenaldirako izen-ematea zabalik dago. Interesatuek BAZen aurkeztu beharko dute nortasun agiria ekainaren 19a baino lehen. Argibide gehiagorako: 943 25 20 00.




Aurtengo kartel irabazlea. | H.U.

## UDAL HAUTESKUNDEETAKO EMAITZAK AUZOKA

| AUZOA | EAJ | EH BILDU | PSE-EE | BALEIKE | IRABAZI | PP |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Erdialdea | 1.682 | 1.630 | 247 | 359 | 179 | 104 |
| Santa Marina | 200 | 126 | 273 | 232 | 75 | 64 |
| Musakola | 417 | 427 | 173 | 129 | 93 | 32 |
| San Andres | 457 | 309 | 275 | 126 | 62 | 81 |
| Uribarri | 897 | 776 | 345 | 336 | 153 | 88 |
| Baserri-auzoak | 95 | 80 | 8 | 10 | 5 | 16 |

Iturria: Arrasateko Udala

# Musakolan eta Santa Marinan izan ezik, EAJ auzo guztietan irabazle

J.B. | ARRASATE

Hauteskundeetan emaitza historikoa lortu zuen EAJk Arrasaten. Alderdi bozkatuena izan zen (3.748 boto), EH Bilduk baino 400 boto gehiago jasota (3.348). Jeltzaleek zortzi zinegotzi izango dituzte eta koalizio ezkertiar eta abertzaleak, berriz, zazpi. Alderdi Sozialistak hirugarren indarra izaten jarraitzen du (1.321), baina lau zinegotzi izatetik hiru izatera pasako dira.

Bestalde, talde berriak ere sartuko dira udalbatzan; Ahal Dugu-Podemosen marka den Baleikek bi eserleku lortu ditu (1.192) eta Irabazi-Ganar koalizioak bat (567). Alderdi Popularrak (385) ez du ordezkaririk izango.

Auzoei dagokienez, Musakolan (EH Bildu) eta Santa Marinan (PSE-EE) izan ezik, gainerako auzo guztietan zerrenda bozkatuena izan zen jeltzaleena, udal hauteskundeetarako zein Batzar Nagusietarako.


Lore
LURRINDEGIA
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

## Janio Cesar Rabelo Da Silva
Ile-apaintzailea

# "Lan egiteko moduaren eta estiloaren arabera aukeratzen zaitu bezeroak"

Ile-apaintzaile moduan eskarmentu handia du Janio Cesar Rabelok. Brasilen ile-apaindegi propioa izan zuen 15 urtez, eta Arrasaten zazpi urte inguru egin ditu zeregin horretan.



Janio Cesar Rabelo ireki berri duen ile-apaindegiko mostradorean.

> Esperientzia handia daukat mutilekin zein neskekin. Emaztegaiekin lan asko egindakoa naiz, Brasilen batez ere, ile-bilduetan eta bestelako espezializaziotan

Ile-apainketan profesional handia da Janio Cesar Rabelo, eta, uste baino geroago, baina lortu du negozio propioa zabaltzea Arrasaten. Ilusioz gainezka eta lanerako gogoz dago; baditu bezeroak, Arrasaten utzi du-eta bere arrastoa.

**Nola amaitu duzu Arrasaten lanean?**
Arrasaten denboratxo batez bizi izan zen lehengusu baten bidez aukera izan nuen hona etortzeko; gutxira hasi nintzen lanean Arrasateko ile-apaindegi baten. Sektorean esperientzia handia daukat, eta, horregatik, lehenago espero nuen negozio propioa zabaltzea, baina ezin izan dut. Azkenean, egin dut urratsa, oso pozik nago. Orain bakarrik nabil, baina asmoa da, ahal denean, emaztearekin ekitea.

**Zer moduz hasiera?**
Espero baino hobeto. Duela hilabete hasi nintzen, eta orain nire txokoa egiten nabil, prezio erakargarriak eskainita. Ile-apaindegi mistoa da, esperientzia handia daukat-eta mutilekin zein neskekin. Eta, hemen gutxitan egin badut ere, emaztegaiekin lan asko egin izan dut Brasilen, ile -bilduetan eta bestelako espezializazioetan.

**Bereizgarririk badu Biok ile-apaindegiak?**
Ile-apainketaren munduan ezer gutxi dago asmatzeke. Negozio batetik bestera aldatzen dena da lan egiteko modua eta estiloa. Aldagai horien arabera aukeratzen zaitu bezeroak edo ez, nire ustez.


ZABALDU BERRIA!
BIOK
ILE APAINDEGI MISTOA
608 42 33 96
Maalako Errabala 21 • Arrasate
cesarrabelo@outlook.es

# Zaldibarko finalerdiak bihar, goi mailako lau talderen artean

Bi lehiak goizean: Dribling–Betrayer (11:30) eta Aldatz–Lasagabaster (12:30)

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Bihar jokatuko dira Zaldibarko areto futbol txapelketako ligako finalerdiak; lehena 11:30ean, Dribling-en eta Betrayer-en artean, eta bigarrena 12:30ean, Aldatz eta Lasagabaster taldeen artean. Kopak balio handia duen arren, saririk preziatuena liga irabaztea da, denboraldi osoko lanaren emaitza delako.

Bada, bihar erabakiko da zeintzuk izango diren ekainaren 6ko finalerako sailkatuko diren bi taldeak; honako hauek dira hautagaiak: Dribling, Betrayer, Aldatz eta Lasagabaster. Iazko txapelduna da aurtengo faborito ukaezina: "Dribling beste maila baten ibili da liga osoan zehar. Gol gehien egin eta gutxien jaso dituen taldea da, eta ez dut uste partidurik galdu dutenik", dio antolakuntzako kide Mikel Viguerak. Dribling-en aurka jokatuko du Betrayer talde mitikoak, final -laurdenetan ezustekoa eman eta Sonografos kanporatu ostean (4-5): "Betrayer-ek denboraldi gorabeheratsua egin du, baina azken partiduetan ondo ibili dira. Hala ere, sorpresa handia izan zen Sonografos menderatzea".

**ESANAK**

**"Herritarrak gonbidatu gura ditugu gertura daitezen, partidu onak izango direla espero dugu"**

MIKEL VIGUERA | ANTOLAKUNTZA

**Harmailak betetzeko deia**

Hirugarren hautagaia Aldatz da; eskoriatzarrek Jibaros FC taldea menderatu zuten final-laurdenetan (5-3): "Talde potentea dute eta elkarren artean oso ondo ezagutzen dira", dio Viguerak. Aldatz taldearen aurrean egongo dira Zaldibarren oso ezaguna den Lasagabaster taldea: "Ligan gorabeherak izan dituzte, baina beti daude hor. Partidu horretan ez dut faboritorik ikusten". Lasagabasterrek *in extremis* lortu zuen finalerdietarako txartela, azken bost minutuetan hiru gol egin eta Abokajarrori irabazita (5-7).

Antolakuntzakoak izango dira epaileak biharko bi norgehiagoketan. Azkenik, honako mezu hau helarazi gura izan dute: "Herritarrak gonbidatu gura ditugu Zaldibarko frontoira gertura daitezen, partidu onak izango direla espero dugu".


Dribling: beste maila baten aritu dira, faborito nagusiak.


Betrayer: aurtengo finalerdietako sorpresa.


Aldatz: eskoriatzarrak, finalerdietako ohikoetako bat.


Lasagabaster: *in extremis* sailkatu dira. | ARGAZKIAK: ANTOLAKUNTZA


Marianne Vos, iaz, Oñatin bukatu zen etapan, helmugara heltzen. | I. SORIANO

# Emakumeen Euskal Birako lehen etapa hasi eta bukatu, Arrasaten

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Emakumeen Euskal Biraren 28. aldiak Arrasaten egingo du geldialdia ekainaren 11n; lehen etapa bertan hasi eta bukatuko da. Guztira, 96,8 kilometro egingo dituzte txirrindulariek eta Debagoiena alderik alde zeharkatuko dute. Aretxabaleta, Bergara, Oñati eta Eskoriatza aldean ibiliko dira, Aramaiora hartu aurretik. Handik Kruzeta igo –lehenengo etapan igoko duten mendate bakarra–, eta, Landatik bueltan, Arrasaten bukatuko dute etapa. Irteera eta helmuga puntuak Garibai etorbidean egongo dira. Aitzin-etapa erlojuaren kontrako 1,9 kilometroko saioa izango da: Iurreta-Iurreta. Horren ostean Arrasatekoa izango da, eta gero, beste hiru egingo dituzte: Maruri-Fruiz (82,2 kilometro), Iurreta-Iturmendi (112,2 kilometro) eta Markina-Markina (86,8 kilometro), hain zuzen ere.

**Bakarra, etapaka**

Emakumeen Euskal Bira Espainiako Estatuan dagoen emakumeendako probarik zaharrena da; izan ere, 28 urte beteko ditu eta etapaka egiten den bakarra da. Gainera, maila handiko txirrindulariek irabazi dute proba: Jeannie Longok, Joane Somarribak, Marianne Vosek, Judith Arndtek eta Claudia Haüslerrek, besteak beste.


DORLETAKO AMA TXIRRINDULARI ELKARTEA

# Dorletako Amakoak Markuleten

Dorletako Ama taldeko txirrindulari gazteenak etxean lehiatu ziren maiatzaren 23an. Benjamin eta alebin mailetako probak izan ziren Markuleten jarritako zirkuituan; bihar izango dute hurrengo proba, Azkoitian (16:30). Kadeteek, berriz, etzi hartuko dute parte Gipuzkoako Taldekako Erlojupeko Lasterketan, Zumaian. 18,5 kilometroko proba da.



# Musika eta antzerkia bat eginda Capachos taldearen eskutik

'Gira el mundo' ikuskizuna aurkeztuko dute bihar Amaia Udal Antzokian

**MAITE TXINTXURRETA** | ARRASATE

Kordobako Montilla herritik datorren taldea da Capachos, eta hogeita hamar lagunek baino gehiagok osatzen dute. Bihar, maiatzaren 30a, Arrasateko Amaia antzokian izango dira, 19:30ean, Al-Andalus kultura elkarteak Udalarekin elkarlanean antolatutako emanaldian. Sarrerak hamar euroren truke egongo dira eskuragarri leihatilan.

Taldea 2010ean sortu zuten, eta *Gira el mundo* ikuskizuna –eta horrekin batera ateratako diskoa– haien bigarren lana da. Parisen gertatzen den maitasun istorio bat kontatzen dute, musika estilo ugari konbinatuta, hala nola boleroak, erritmo hegoamerikarrak eta baladak.



2014an kaleratu zuten *Gira el mundo* diskoa. | CAPACHOS TALDEA

**Al-Andalusen urteurrena**

Emankizuna Al-Andalus kultura elkartearen 25. urteurreneko ospakizunen baitan kokatzen da, eta ikuskizun nagusia izango da, elkarteko ordezkari Rafa Gomezen esanetan.

Montilla herriak Arrasaterekin daukan harreman estua izan da Capachos aukeratzeko arrazoi nagusietako bat, Al-Andalusko kide askok han baitute jatorria. Hala ere, talde gisa lehenengo aldia izango dute Arrasaten.

**Piano-jotzailea ordezkatuta**

Azken orduko konpromiso pertsonal bategatik, Capachos taldeko piano-jotzailea ezin izango da Amaian egon. Hori dela eta, Al-Andalustik Rakel Murgiondo arrasatearrarekin hitz egin dute, eta hura ariko da pianoan.

# Bonberenea txaranga izango da ekainaren 4ko Kooltur Ostegunean, ikasturteko azkenengoa

**M.T.** | ARRASATE

Jai giroa eta musika dantzagarriak nagusituko dira datorren eguenean Arrasateko gaztetxean. Hain zuzen, Tolosako Bonberenea gaztetxeko txarangak joko du bertan, gaueko hamarretan hasita. Beti bezala, sarrera bost euro izango da.

Txaranga 2003an sortu zen lagun kuadrilla baten eskutik, ondo pasatzeko asmoz, eta lau disko kaleratu dituzte jada.

Kooltur Ekintzak hurrengo batera arte agurtuko du eguenean bere publiko fidela; izan ere, ikasturteko azken kontzertua izango da tolosarrena.



Atzoko prentsaurrekoa. | JOSU BILBAO

# Julio Galartaren erakusketa inauguratu zuten atzo Gasteizen

Vital Kutxa fundazioaren aretoan egongo dira ikusgai margolariaren lanak urriaren 4ra arte

**M.T.** | ARRASATE

*Julio Galarta. Arimadun paisaia pintorea* izeneko erakusketa 106 koadroz osatuta dago guztira, horietako gehienak Julio Galarta Pintorearen Lagunak elkarteak utzita. Hain zuzen ere, Iñigo Arregi eta Jose Maria Velez de Mendizabal elkarteko kideak izan ziren, atzo, Vital Kutxa fundazioak Posta kalean duen aretoan erakusketa inauguratzen.

Margolari arrasatearraren lanak lau hilabete baino gehiago egongo dira ikusgai.

**Galartaren interesa**

Erakusketaren koordinatzaile Fernando Martinez de Viñaspreren esanetan, fundaziotik Galartaren lanari balioa eman nahi izan diote, "paisaia margolari bikain eta umil hori ezagutarazteko", eta bertako artista baten lanak erakutsi, bereziki kontuan izanik gehienbat Arabako paisaiak margotu zituela. Koordinatzaileak dioenez, koadroak "edonork etxean izan nahiko lituzkeen artelanak" dira, haien edertasuna dela eta.

## Udaberriko musika zikloaren emanaldiak ekainaren 4an eta 5ean

Arrasate Musikalen kontzertu zikloaren baitan, eguenean perkusio kontzertua izango da, 18:00etan hasita, musika eskolan. Barikuan, berriz, familien arteko kontzertua eskainiko dute Kulturaten, 18:30ean. Bertan, eskolako haur eta gurasoak elkarrekin arituko dira musika egiten.

## Herrixa Dantzan-en ikasturteko azken saioa gaur iluntzean

Gaur, hileko azken barikua denez, dantzaldia izango da, 20:00etan, Biteri plazan, Herrixa Dantzan ekimenaren baitan. Portaloi Kultur Elkarteak antolatutako dantzaldi horien ikasturteko azken saioa izango da. Euria egiten badu, Uarkapera aldatuko dute dantzaldiaren hitzordua.

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
Edurne Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta eta logopeda
Itziar Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta
Saioa Belategi - Psikologoa, Heziketa Bereziko masterra
Kontxi Lazkano - Pedagogoa
Diagnostikoa - Orientazioa
Psikoterapia: umeak, gazteak eta helduak
Arreta psikologikoa genero indarkerian
Laguntza eskolarrak
Estimulazio goiztiarra
Logopedia
Ikasketa teknika eta ohiturak
Ignazio Zuloaga 10 • Tel.: 943 79 48 77 • ARRASATE
psikopedagogiko-arrasate@euskalnet.net RPS 295/13

arbolapeta
arrasate
beinke


Sagardo Garaia amaitua... udako garaia:
- Karta zabala.
- Menu bereziak
- Plater konbinatuak.
- Bokatak.
Iturrieta sagardotegia
Arraga auzoa /Aramaio
945 445 385 685 721 593
iturrietasagardotegia.blogspot.com

zenbaki
aholkulariak-abokatuak
• Juridikoa:
- Zibila: banantzeak, herentziak, edozein motatako erreklamazioak.
- Penala: hutsegite epaiketak, salaketak, zirkulazio istripuak.
- Administratiboa: zigortzaile txostenak, errekurtsoak.
- Merkataritzakoa: sozietateen eratzeak, ordaingabeak, hartzekodun konkurtsoa.
• Laborala: erretiroak, kaleratzeak, enplegu-erregulazioko espedienteak.
• Fiskala: enpresen balorazioak, bideragarritasun-txostenak, likidazioen elaborazioa.
• Kontabilitatea: pertsona fisiko eta juridikoak.
Basabe poligonoa, F-0-10 (1. solairua) ARETXABALETA • Tel.: 943 71 21 12
www.zenbaki.es

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko arropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

# Juanje Alberdi: "Garbi daukagu %60ko gaikako bilketa gainditzearena"

## Hauteskundeetako babesa eskertu die EAJk herritarrei, eta agintaldirako zenbait asmo azaldu dituzte

**JULEN IRIONDO** | BERGARA

Berarekin batera hautetsi jeltzale izango diren zazpi lagunak alboan eta botoa eman zieten herritarrei eskerrak emanda, Juanje Alberdik adierazi du pertsonak izango dituztela ipar datorren agintaldian, eta "gauzak egiteko modua" aldatuko dutela: bizikidetzan, parte-hartzean eta gardentasunean indarrak jarriz, "herritarrei informazioa helarazteko bide onenak" bilatuz.

Gainerako alderdiei dagokienez, akordioa izan du ahotan: "Elkarrizketak hasiko ditugu bai EH Bildukoekin, bai PSE-EEkoekin eta bai Irabazikoekin; eta haiekin nahi dugu ikusi zeintzuk diren euren lehentasunak, eta, posible bada, saiatuko gara akordioetara heltzen, Udalean ahal den aniztasun handiena lortzeko".



Agintaldi berrian EAJren hautetsi izango direnak. | JULEN IRIONDO

**Hondakinekin "zorrotz"**

Hondakinei dagokienez, berriz, Mankomunitatearen Gobernu Batzorde berria osatzean herrian bosgarren edukiontzia ezartzeko prozesua lantzen hasiko direla adierazi du; baina ez dela bilketa sistema aldaketa soila izango, helburuak jarriko dituztela, Europatik datorren %60ko gaikako bilketari buruz ondorengoa esanda: "%60 hori gainditzearena argi daukagu guk, eta eredua hor daukagu Elgetakoekin. Kontua da ahal den gehien egitea eta ahal diren datu onenak lortzea. Helburu horiek finkatuko dira; finkatuko dira pausoka, eta hezkuntzarekin, jendearekin hitz eginez eta landuz. Ez da izango 'bosgarren edukiontzia jarri eta hor konpon zer gertatzen den'. Helburuak jarriko dira eta jarraipena egingo da".

Hondakinen gaian, "jendeak eroso egitea" nahi dutela, baina jendearekin "zorrotzak" izango direla adierazi zuen Alberdik: "Nahi dugu jendeak bere egin dezala benetan garrantzitsuena dena: birziklatzea; birziklatzea eta, hobe, ahal den eta zabor gutxien sortzea".

### Erdigunean, Martokon eta Poligonoan EAJ izan zen nagusi domekan

Jeltzaleek irabazi zituzten hauteskundeak (3.195 boto), EH Bilduri aurrea hartuta (2.835); EAJk 2011n baino %51 boto gehiago jaso zituen, eta koalizioak Bilduk eta Aralarrek orduan baino 1.500 gutxiago. Gainerako alderdiek: Irabazik 670; PSE-EEk 379 –erdia galduta–; eta PPk 83 –herena.

**UDAL HAUTESKUNDEAK GUNEKA**

| | EAJ | EH BILDU | IRABAZI | PSE-EE | PP |
|---|---|---|---|---|---|
| Labegaraieta | 180 | 264 | 50 | 19 | 1 |
| Erdigunea | 1.691 | 1.418 | 294 | 155 | 33 |
| Martoko | 462 | 385 | 130 | 87 | 20 |
| Poligonoa | 768 | 649 | 172 | 111 | 26 |
| Osintxu | 94 | 119 | 24 | 7 | 3 |

ITURRIA: BERGARAKO UDALA

**Jaione Isazelaia** | Bergarako jarduneko alkatea

# "Ez genuen espero: gure ilusioak zapuztuta eta triste sentitzen gara"

## "Herritarrak aurka mobilizatzeko" EAJk hondakinen gaia "maisuki" erabili duela dio

**J.I.** | BERGARA

Ia bi urte egingo ditu Jaione Isazelaiak alkate, agintaldi erdian Jesus Elortzaren lekukoa hartuta.



Jaione Isazelaia. | GOIENA

**Domekako emaitza gogorra asimilatzen egongo zarete oraindik...**

Ez genuen horrelakorik espero, eta gure ilusioak zapuztuta eta triste sentitzen gara. Lau urte oso gogorrak izan dira, egoera ekonomikoak ez duelako batere lagundu eta jarrera ez eraikitzailea izan duen oposizioa izan dugulako; fiskalizazioa eta kritika suntsitzailea izan dira nagusi EAJren jarreran. Hala ere, politika sozialean indarra jartzen ahalegindu gara, baina bistan da ez dugula ondo transmititu. Dena dela, egindakoaz harro sentitzen gara eta benetan sinetsi dugulako jarri dugu indarra egin dugun guztian, nahiz eta onartu dena ez dugula ondo egin. Bergarar guztion ongizatea izan da gure lehentasuna; hala ere, beraien espektatibak gugan jarri eta desengainatuta sentitu diren guztiei asmatu ez izana sentitzen dugula adierazi nahi diegu. Jendearen berotasuna eta errekonozimendua ere sentitu dugu, eta guztiei eskertu nahi diegu.

**Emaitzen ze irakurketa egiten duzu?**

Arrazoi bakarra ez dela izan argi ikusten dugu. Hondakinen aferak, noski, bere pisua izan du: gai hau maisuki erabili du EAJk herritarrak aurka mobilizatzeko; inposatu nahi ziguten errauskailua geldiaraztea lortu zen, baina horren ordaina hauteskundeetan kitatu da. Etxebizitza hutsen IBI errekarguak ere hautsak harrotu ditu; guretzat luxua da etxeak hutsik eta hondatzen izatea eta, besteak beste, etxe hauek mobilizatzeko jarri genuen errekargua. Gipuzkoak eskuinerako joera hartu du, hori nahiko orokorra izan da. Bestalde, deigarria da ustelkeria kasuengatik edo gestio eskasagatik zalantzazkoak ziren hautagaiak zigortu ordez, saritu egin direla bozka bidez: hori oso kezkagarria iruditzen zait.

**Agintaldian egindakotik zer nabarmenduko zenuke?**

Hainbat proiektu; nabarmentzekoak dira: Laboratorium museoa, azoka biziberritzea, ludoteka, Bergarako komertzioa sustatzea, kultura aretoa, permuta, bidegorri sarea, Kirola eta Kultura Kalera, alokairu soziala sustatzeko programa... Bideratuta beste hainbat utziko ditugu: Lorentxokon eguneko zentro berria, Bidekurutzetako eta San Antonioko berrurbanizazio lanak, hainbat urbanizazio proiekturen idazketak... Herritarrekin eta udal langileekin harremanak hurbilak izan dira; eragileekin eta taldeekin egunerokoan lana egin dugu, eta oso aberasgarria izan da: mila esker guztioi.

**Nolakoa izan da zuretzako alkate izatea?**

Alkate edo zinegotzi izateak Udala zer den ikusarazten dizute, eta horrek herritar moduan aberastu egiten zaitu, noski; baina maila pertsonalean pobretzea ere badakar: % 100 Udala izan da lau urtez; horrek norbere burua, familia eta lagunak behar den moduan ez zaintzera eramaten zaitu.




MARIAREN
LAGUNDIA
IKASTOLA
margotu
1799
zure
1999
bidea...
AURREMATRIKULA: maiatzaren 25etik ekainaren 5era
Espaloia 1 Tel. 943 76 25 40 / 41 ikastola@mlagundia.net www.mlagundia.net
HAUR HEZKUNTZAKO TEKNIKARIA
GIZARTERATZE TEKNIKARIA

# Udala pozik plazako kontzertuek izan duten erantzunarekin

Asteartearen berreskurapenarekin gustura agertu da txosna batzordea, eta, oro har, jaiekin ere bai

JULEN IRIONDO | BERGARA

Pentekosteek emandakoarekin pozik agertu da Udala. Balorazioa egiteko orduan, Kultura zinegotzi Leire Iruinek nabarmendu du plazako kontzertuetan ohi baino inbertsio handiagoa egiteko apustua egin zutela aurtengo, eta merezi izan duela, erantzuna ikusita. "Plaza beteta" ikustea pozgarria izan dela dio Iruinek, eta Hesian, Kalakan eta La Jodederaren emanaldiak aipatu ditu. Zezenzaleen ekintzetan ere jende ugari ibili dela adierazi du, plaza betez, eta baita erraldoiekin lotutakoak-eta ederki joan direla.

Txosna batzordeak, berriz, "azken urteetan albo batera utzita" eduki ostean, martitzena berreskuratzeko egin duten lana eta izandako emaitza nabarmendu du. Gainerakoan, dena ondo joan dela adierazi dute, eta, zorionez, emakumeen kontrako erasoen aurreko protokoloa martxan jarri beharrik ez dela egon.


Erraldoiak kalejiran. | IMANOL SORIANO


Gazteak, Hesian–en kontzertuan gozatzen. | IMANOL SORIANO


Errekortea egiten. | IMANOL GALLEGO


Kuadrilla umoretsu, herri bazkarian. | AMAIA TXINTXURRETA

### Koldo Eleizalde lehiaketako sariak bihar banatuko dituzte

Zapatu eguerdian, 12:00etan, hasiko da Koldo Eleizalde lehiaketako sariak emateko ekitaldia, Udal Pilotalekuan. 375 lan aurkeztu dira, denera, ipuin idatzien, bertsoen, komikien eta interpretazio eta kontaketa kategorietan. Sari-banaketa ekitaldian, sariak emateaz gain, ikastetxeek prestatutako zenbait emankizun ere izango dira, eta saritutako lan batzuk ikusteko eta entzuteko aukera ere egongo da, horrez gain.

### Balkoiak apaintzeko lehiaketan izena, astelehenetik aurrera

Udalak antolatzen duen lehiaketaren helburua da balkoiak eta leihoak zain daitezela eta horiek lorez eta landarez apaintzeko ohitura berreskura dadila. Originaltasuna, apainketaren kalitatea, loren iraunkortasuna eta diseinu floristikoa baloratuko dituzte, besteak beste. 400 eta 200 euroko baliodun bonoak izango dira sariak, herriko dendetan trukatzeko. Izenematea –ekainaren 1etik 19ra– eta informazioa, Udalaren webgunean.

**T. DE ARANZADI IKASTOLA KOOP. ELK.aren OHIKO BATZAR NAGUSIRAKO DEIALDIA**

Gure kooperatibaren Baltzuaren estatutuen 25 artikuluan ezarritakoaren arabera, Artezkaritza Kontseiluak T. DE ARANZADI IKASTOLA, KOOP. ELK. aren Ohiko Batzar Nagusira dei egiten du. Batzarra 2015eko ekainaren 16an egingo da, **arratsaldeko seietan** lehen deialdian eta, hala balegokio, **sei eta erdietan** bigarren deialdian, Bergara herriko Herrilagunak kaleko **Aranzadi Ikastolan**
Hona hemen

**GAI-ZERRENDA**
1. Akta onartzeko kideak izendatzea
2. Aurreko bilkurako aktaren onarpen txostena irakurtzea
3. 2014/15 ikasturteko memoria
4. 2015/16 ikasturteko egitasmoa
5. 2014 urteko kontuen kudeaketa aztertu eta, hala balegokio, onestea
6. Soberakinen banaketa
7. 2015 urteko aldizkako kuoten onarpena
8. Artezkaritza Kontseiluko kide berriak hautatzea
9. Diruzaintza batzorderako kide berriak hautatzea
10. Galde-erantzunak

Bergaran, 2015ko maiatzaren 29an

Lehendakaria
Nerea Larrañaga Garaikoetxea

ARANZADI ikastola
Kalitatezko Euskal Heziketa

## TXALOAK ETA TXISTUAK

KOMUNITATEA GOIENA
MIRIAM BASAURI | BERGARA

### Hondakinak, dagokien lekura

Koldo Eleizalden badauzkagu bizilagun batzuk zaborra lurrean uzten dutenak egunero. Ez poltsa bat edo beste, botila pila bat... Zaborra ez da politika kontua, ezta erosotasun kontua, errespetu kontua baizik.


MIRIAM BASAURI

## OHARRAK

**SAN MARTZIALGO KANTINA ETA TXOSNA**
Erromeria egunean kantina eta txosna ustiatu nahi dituzten taldeek ekainaren 8ko 12:00ak baino lehen eskatu behar dute.

**ESKLEROSI ANIZKOITZA**
Eguaztenean Esklerosi Anizkoitzaren Munduko Eguna izan zela-eta, azokan mahaia jarriko dute bihar, zapatua, informazioa eman eta dirua biltzeko.

**OLASO DORREKO LORATEGIA**
Irekiera ofiziala egingo dute domeka honetan, Udaleko eta Olaso Fundazioko ordezkariekin. Lorategiaren irekiera ekitaldia 11:30ean hasiko da.

## NIRE USTEZ

MAIALEN MADARIAGA



### Bestondoa

Aspalditik nerabilen galdera bat nire buruan. Zer ote den herri egiten gaituena. Nola diren gauzak... jaietan aurkitu dut horren erantzuna.

Badakit. Festak elkartzen gaitu, festa da herri egiten gaituena. Nola ez gaitu ba herri egingo jaiak? Zenbatetan ikusiko ditugu ba herritar desberdinak edalontzi beretik edaten, kolore bereko zapiak jantzita, mutil zein neska balantza pausu berean, eta herri bazkarian, errespetuz ogi apurrak botaz elkarri, aurpegi erdi-erdian jota ere, irribarre zabala erakutsiz?

Inork ba al du dudarik? Hori da herri egiten gaituena. Norberak erabaki dezala, esaldi hau umorez edo tristuraz begiratu.

Izan ere, zer gertatzen da hauteskunde eguna eta jaien egitaraua ontzi berean sartzen direnean? Edalontzi beretik edateak jada ez du zapore bera, eta herri bazkarian ogi pinportak botatzea errespetu falta izugarria da. Ez baita kasualitatea ogi puska handienak justu guri buruan jotzea. Herritartasuna poltsikora beste behin ere.

**"Zer gertatzen da hauteskundeak eta jaien egitaraua ontzi berean sartzean?"**

Txoko batzuetan, biharamunari bestondoa deitzen diote. Ez dago hitz aproposagorik lerrootarako. Bestondo bat baino gehiagori aurre egin beharrean baikaude bergararrok. Ez baita gozoa izaten, besteek utzitakoari ondorena ematea. Ezta festek utzitako ondorenari aurre egitea ere. Animo guztioi!

# Ibai Gonzalez eta Julen Kortabarria izango dira San Migel berriak

Ekainaren 7ko Corpusetako prozesioan Iñigo Murgiondo izango da dantzarien kapitaina

O.E. | OÑATI

Bakarra izan beharrean, aurrerantzean bi pertsona izango dira San Migel irudikatuko dutenak Corpus jaietako prozesioan. Ibai Gonzalez eta Julen Kortabarria izango dira, hain zuzen ere, eta txandakatu egingo dira; aurten Gonzalez izango da eta datorren urtean, Kortabarria. Bestalde, dantzarien kapitaina, urdinez jantzita joaten dena, Iñigo Murgiondo izango da.


San Migel prozesioan. | GOIENA

Kofradiako kide izan ohi dira prozesioan parte hartzen dutenak; Gonzalez eta Kortabarria ez dira, baina Jesus Irizar *Txutxin*-en esanetan, "eurak dira aproposenak horretarako, edozeinek ezin du jantzi hori jantzi-eta. Gainera, gura izanez gero, izango dute aukera kide egiteko". Corpusen barruan, baserriko tresnen erakusketa zabalduko dute astelehenean kultura etxean.


MIREN SANZ

## Gipuzkoako txapeldunak

Aloña Mendiko gazte mailako emakumezkoen taldeak titulu bat irabaziz agurtu du aurtengo denboraldia: Gipuzkoako Kopa Txapelketa irabazi dute. Azkoagainen jaso zuten oroigarria Aloñako neskek.

KOMUNITATEA GOIENA | OÑATI
ALOÑA MENDI KIROL ELKARTEA |

## Gaztetxoen gehiegizko pisuaz jardungo dute

O.E. | OÑATI

Pensoi delako proiektua abian du Osakidetzak, haurren gehiegizko pisua prebenitzeko hezkuntza eta elikadura programa, hain zuzen. 6 eta 12 urte bitarteko 3.312 umeren datuak jaso dituzte eta hirutik batek larregiko pisua duela ondorioztatu dute. Gehiegizko pisuak herrian duen intzidentziei eta prebentzio mailan egin daitekeen lanari buruz berba egiteko jardunaldia egingo dute ekainaren 4an, eguenean, Santa Ana aretoan, 18:30ean.

## Gipuzkoa mailako bertso saioak izango dira bihar

O.E. | OÑATI

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren barruan, bi saio jokatuko dira bihar, zapatua, Santa Ana aretoan: 11:30ean eta 17:30ean; arratsaldekoan Joseba Lasagabaster oñatiarra arituko da, beste bost bertsolariekin batera. Saioetarako sarrerak egunean bertan erosi behar dira, leihatilan. Prezioa da lau euro Bertsozale Elkarteko bazkideendako eta 16 urtetik beherakoendako; eta gainerakoendako, berriz, sei euro. Eta bi saioak ikusteko, prezioa da sei edo bederatzi euro.

**Mikel Biain** | Oñatiko jarduneko alkatea

# "Uste dut herritarrek kudeaketa baloratu dutela, batez ere"

▶ Eskertuta dago herritarrek konfiantza EH Bildurengan jartzeagatik

▶ EAJk atez atekoa kentzea "hanka-sartzea" izango litzatekeela uste du

OIHANA ELORTZA | OÑATI

EH Bilduk hamar zinegotzi izango ditu datorren agintaldian eta EAJk zazpi. Hauteskundeen emaitzen balorazioa egin du Mikel Biainek.

**Emaitzak ikusita, ze irakurketa egiten duzue Oñatira begira?**

Hiru puntu gutxiagoko parte-hartzea izan da udal hauteskunde hauetan. Bagenekien orain lau urteko emaitzetan zerikusia izan zuten faktore batzuk aurtengoan ez zirela izango: azken momentuko legalizazioa, zerrenda berri-berria… Barealdia etorri den honetan iruditzen zait herriak kudeaketa baloratu duela, batez ere. Gobernuan egoteak berez badakar desgaste bat, eta are gehiago agintaldiak izan duen intentsitatea kontuan hartuta. Erabaki asko hartu dira eta horietako batzuk etxe guztietako sukaldeetara heldu direnak. Bilduk 3.308 boto jaso zituen eta EH Bilduk 3.137 boto jaso ditu lau urteren ondoren. Egia da orduan Aralar ere bazela eta 200dik gora boto jaso zituela. Baina 2011ko Aralar hartatik gaur egungo Aralarrera bidean gorabeherak izan dira, eta, agian, orduko batzuk oraingoan EAJ joan dira. H1!-eko 180 boto ere EAJra joango ziren, agian. Bi aukera politikoren polarizazioaren aurrean, PPko 120 boto eta PSOEko 25 bat ere EAJra joan izana oso posible da.

**Zela baloratzen duzu zure eta zure taldearen orain arteko agintaldia?**

Proiektu asko atera ditugu aurrera. Ni oso pozik eta harro nago osatu dugun taldearekin eta egindako lanarekin. Harro bai, baina harrotasun barik. Akatsak ere egin dira, eta, askotan esan dugun moduan, ikasi ere egin dugu; asko, gainera.

**Eutsi egin dio EH Bilduk Oñatin. Zein izan da horren gakoa?**

Saiatu gara programan agindu genituenak zintzo betetzen eta hartu diren erabakiak ahal bezain ondoen komunikatzen. Badirudi herritarrak hori baloratu duela. Benetan eskertuta nago gure taldearengan berriz ere konfiantza jarri izanagatik.

**Bailarako emaitzei buruz, zer?**

Agian, herri bakoitzak bere irakurketa beharko luke, baina egia da Gipuzkoan EH Bildu higatu egin dela, eta Bilduren aurkako botoa EAJk kapitalizatu duela, boto abertzalea eta espainiarra ere bai. Bilduk egingo du bere autokritika eta ondorioak aterako ditu, baina lau urteotan Gipuzkoan nagusi diren hedabideek Bilduren aurka eginiko gerrak bere emaitzak eman dituela ere nabaria da.

**Mankomunitatearen osaketa ere aldatu egingo da orain. Arriskuan egon daiteke atez atekoa Oñatin?**

Ez dut uste horrelakorik gertatuko denik. Hanka-sartze handia egingo luke EAJk hori egingo balu.


Mikel Biain hauteskundeen aurretik Lazarraga parkean. | O.E.

Herritarrak, orobat, lasai-lasai daude. Herria dezente garbiago dago lehen baino, eta herritarrek ez lukete halakorik ulertuko.

**Berriro ere EH Bilduk eta EAJk osatuko duzue udalbatza Oñatin. Zelan ikusten duzu etorkizuna?**

Gure arteko harremanak onak izateko ahalegin berezia egingo dugu. Herriaren alde lan egin nahia dugu batera, elkarri mokoka ibiltzeak ez du inongo zentzurik.

**Eta Aldundiarekiko harremanetan? Aldatuko da?**

Ordezkari politikook pertsonak gara, eta, nahiz eta sentsibilitate politiko bat ordezkatu, alderdikeriatan ez genuke erori beharko. Alde horretatik, ziur nago arazo barik jardungo garela.

**Ekainaren 13an hartuko duzu berriz alkate-makila. Zer da egingo duzuen lehen gauza agintaldi berrian?**

Lantalde berriarekin udal langileak bisitatzea. Gero, programan esandakoa kronogrametan sartuko dugu agintaldi osoko helburuak perspektibaz lantzeko.

TXANTXIKU IKASTOLA

**TXANTXIKU IKASTOLA, Koop. Elkartearen OHIKO BATZAR NAGUSIA**

**GAI ZERRENDA**

**EGUNA:** EKAINAREN 16a, MARTITZENA.
**ORDUA:** 18:00etan lehen deialdian eta 18:30ean bigarrenean.
**LEKUA:** Ikastolako aretoa (San Juan kalea 1)

1. Aurreko aktaren onarpenari buruzko informazioa eta bazkideak izendatzea Batzar honetako akta onartzeko.
2. 2014/2015 ikasturteko kudeaketa txostenaren berri ematea eta, badagokio, onartzea.
3. 2014 ekitaldiko urteko kontuak aztertzea eta, badagokio, onartzea.
4. 2014 urteko emaitzen banaketa eta, badagokio, onartzea.
5. 2015 urteko aurrekontua aztertzea eta, badagokio, onartzea.
6. 2015/2016 ikasturteko zerbitzuen ordainsarien berri ematea eta, badagokio, onartzea.
7. Gurasoen Kontseiluaren txostena azaltzea.
8. Zaintza Batzordeko kideak berritzea.
9. Galde-eskeak.

OHARRA:
Bazkideei gogorarazten zaie sozietatearen egoitzan eskuragarri dituztela urteko kontuak, emaitzak aplikatzeko proposamena eta kudeaketa txostena, Batzar Nagusiaren deialdiaren epean zehar aztertu ahal izan ditzaten.

Oñatin, 2015eko maiatzaren 29an



Iñaki Zubeldia *Leize-zuloko misterioa* liburua esku artean. | GOIENA

# 'Leize-zuloko misterioa' aurkeztuko du Zubeldiak

Arrikrutzen kokatzen den gazteendako eleberria idatzi du Iñaki Zubeldiak

MIREN ARREGI | OÑATI

Ekainaren 4an, eguena, Iñaki Zubeldiak –idazlea eta Arrikrutzeko leizeetako lehoia aurkitu zuena– hitzaldia eskainiko du kultur etxean, arratsaldeko seietan. Zubeldiak 10 eta 12 urte bitarteko gazteei zuzendutako *Leize-zuloko misterioa* izeneko liburua argitaratu berri du eta hori aurkeztera etorriko da Oñatira. Hain zuzen ere, Arrikrutzen kokatuta dago istorioa; protagonistak 10 urteko Oñatiko bost neskatila dira, eta horietako baten neba elbarria ere bai. Arrikrutz bisitatu ondoren, neska horietako batek amets egingo du eta ametsetan Arrikrutzeko lehoi ama azalduko zaio, aurpegi errukarriz, han barruan dagoen bere umea ateratzeko eskatuz. Hortik aurrera, neska-mutiko kuadrillak abenturaz beteriko istorioa hasiko du. Aloña Mendi Espeleologia Taldekoen laguntzarekin lehoikumearen hezurrak topatuko dituzte; Jesus Altuna ere etorriko da hezurrak atera eta ikerketa zientifikoa egitera.

**Aurkikuntzaren eguna**

Liburuaren gainean berba egiteaz gain, Iñaki Zubeldiak, Arrikrutzko lehoiaren aurkikuntza nolakoa izan zen ere kontatuko du: "Arrikrutzen galdu gineneko istorioa ere kontatuko dut", dio Zubeldiak. Eta gaineratu: "Oñatiko jendeak jakin dezan nola aurkitu genuen lehoi hori eta nola mendekua hartu zuen lehoiak, 35.000 urte bake bakean egon eta gero, apaiz estudiante batzuk haren atsedena zapuztera joan zirelako. Apaiz estudiante horiei orientazioa guztiz galarazi zien eta han barruan gelditu ziren hamabi orduz galduta, izugarrizko estutasunak pasatuz, hotzez, beldurrez eta baita haluzinazioekin ere".

**Elkar-Heziko ikasleekin**

*Leize-zuloko misterioa* liburua ikastetxeetan erakutsi eta zabaltzeko asmoa du Zubeldiak. Dagoeneko Elkar-Hezi ikastetxekoei oparitu dizkie lehenengo aleak; izan ere, ikastetxe horretako ikasleekin frogatu zuen liburua argitaratu aurretik: "Ikasleengandik oso erantzun positiboa jaso nuen; hala ere, kontakizuna hobetu eta elementu interesgarri batzuk gehitu nizkion", adierazi du.

## Errekalden eta Araotzen ospatuko dituzte jaiak aste bukaeran

M.A | OÑATI

Gertu dute dena Araotzen eta Errekalden jaiei ekiteko. Gaur, egubakoitza, Errekalden musika izango da protagonista; bertan, Eskean Kristö, Estricalla, Arkada Social eta Gramones taldeak ikusteko aukera izango da; 21:00etan hasiko dira kontzertuak. Bihar, VI. goitibehera jaitsiera egingo dute, 16:00etan hasita, eta 19:00etan, herriko garagardo artisau ekoizleen dastaketa hasiko da. Gauean, erromeria egongo da Trikikonbo taldearekin eta Des-kontrolen bertsioak entzuteko aukera ere egongo da. Ondoren, karaokea egongo da. Domekan, berriz, Oñatz dantza taldeko umeek dantza saioa eskainiko dute, 13:00etan, eta auzo bazkariaren ostean mus txapelketa eta bertso saioa izango dira.

**Araotzen, bihartik**

Bihar, zapatua, ekingo diete Trinitate jaiei. 14:00etan auzo bazkaria egingo dute, eta ondoren, Amets eta Maialen Artzallus anai-arrebek bertso saioa eskainiko dute. Trikitilariek lagunduta izango da hori. Arratsaldean umeendako jolasak egingo dituzte eta 20:00etan bolo txapelketa egingo dute. Domekan, besteak beste, herri kirol erakustaldia egingo dute aizkolariek eta harri-jasotzaileek.

## Oñatiko EAJk "herritarren konfiantza" eskertu du

M.A | OÑATI

Oñatiko EAJk prentsa ohar bidez eskertu du "oñatiarrek azken udal hauteskundeetan alderdiari emandako babesa": "Gure eskerrik beroena bozkatu gaituzten 2.475 herritarrei; aurreko hauteskundeetan lortutako emaitzak hobetu ditugu eta jasotako babesari esker Udalean gure proposamen eta ideiak defendatzeko ordezkaritza sendoagoa izango dugu", azpimarratu dute.

Era berean, jeltzaleek baieztatu dute "oposizio eraikitzaile eta arduratsua" egiten jarraituko dutela. Gaineratu dute zazpi zinegotzi jeltzaleek lehen egunetik ekingo diotela lanari "Oñatiko EAJk garatutako hauteskunde programa Udalean defendatu eta aurrera eramaten saiatzeko". Helburua, betiere, Oñati eta oñatiarren bizi kalitatea hobetzea dela jakinarazi dute.

**Iritziak jasotzen jarraituko dute**

Uri Buru Batzarretik adierazi dutenez, Oñatiko EAJk herritarren iritzi, iradokizun eta kezkak jasotzen jarraituko du. Jeltzaleek hitz eman dute "oñatiarrengandik gertu" egongo direla. Are gehiago, herritarren eskaerak Udaleko eztabaida foroetara eramateko konpromisoa hartu dute.

NIRE USTEZ

JOSE LUIS MADINAGOITIA



## Nepal, a ze pena!

Orain dela zazpi urte izan nuen aukera Nepalgo herria ezagutu eta hango herritar batzuekin elkarrizketa batzuk edukitzeko. Han izan ginen egun batzuetan Katmandu eta inguruak bisitatzen, eta ondoren, Gokyo Peak eta Everesteko kanpamentu nagusirako bailarak ezagutzen hamabost eguneko trekking baten.

Benetan herri eta jende xumea, langilea eta zintzoa. Herri pobrea ekonomikoki. Gure artean esango genukeen moduan, larre motzean hasitako jendea, baina alaia eta euren aberastasun kulturalekin.

Eta, hara non, herri horrek izugarrizko zigorra jaso du, itzeleko lurrikara batekin, hildako pila bat, etxebizitzak xehatuta, eta, lehengo pobreziaz gain, zailtasun pila bat.

Nire lagun Ang Dawa-rekin –gure trekkingeko gidaria izan zen– Internet bidez harremanetan jarri nintzen, arduratuta, zein izango zen haren eta haren familiaren egoera lurrikararen ondoren. Aste bat pasatu ondoren erantzunik gabe, azkenean jaso nuen haren erantzuna: ondo dagoela, bai hura eta bai familia, baina etxea zatituta geratu dela, eta, momentu honetan, emaztearekin, hiru seme-alabekin eta bi ilobekin kalean muntatutako karpa baten bizi direla. Bukatzen zuen idatzia gogoeta bat egiten: "Nora joango gara, gu hemengoak gara-eta?" Idatzi hau bukatzen ari nintzenean irratitik entzun nuen beste lurrikara batek –lehengoa bezain handia– astindu zuela tokia. Bakoitzak ahal duen neurrian lagun diezaiola herri horri!

**"Jende xumea, langilea eta zintzoa da Nepalgoa"**

### Irunberrira irteera, 25 urteren ondoren, Susana Arregi gogoan

Ekainean beteko dira 25 urte Susana Arregi hilda agertu zela Irunberrin, Guardia Zibilarekin izandako setio baten ostean. Urteurren hori oroitzeko hainbat ekitaldi antolatu ditu Oñatiko Euskal Memoriak; esaterako, ekainaren 6an, arroila bisitatuko dute. Interesatuek Arranon eman dezakete izena. 30 lagun elkartu ezkero autobusa antolatuko dute.

### Herrixa Kantuan saioa bihar, zapatua, 12:30ean, plazatik

Txantxiku Ikastolak eta Jose de Azpiazu Musika Eskolak antolatuta, bihar, 12:30ean, kantu-poteoan aterako dira herritarrak. Plazan elkartuko dira, eta ondoren, herriko kaleetan barrena ibiliko dira. Txistulari, gitarra-jotzaile, akordeoi-jotzaile... Izango dituzte lagun bide horretan. Kantu herrikoiak abestuko dituzte.

### Ikastetxeak Kantari ekimenak kontzertua bihar, 19:00etan

Ganbara Txikiren iniziatibaz sortutako Ikastetxeak Kantari ekimenak kontzertua egingo du bihar, 19:00etan, Santa Ana antzokian. Herriko hiru ikastetxetako ikasleek hartuko dute parte bertan eta Josu Zubia eta Miren Gurutze Plazaola irakasleek ere euren saiotxoa egingo dute.

### Argider Isastik SoplaoMan lasterketa irabazi du

Igeriketa, korrika eta mendiko bizikleta batzen dituen lasterketa da SoplaoMan. 30 parte-hartzaile izan ziren irteera puntuan eta lehenengoa izan zen Isasti. Joan den asteburuan izan zen proba; 10 kilometro egin behar izan zituen igerian, 74 korrikan eta 110 bizikleta gainean. Hiru probak batuta denbora onena egin zuen Isastik.

### Arrantza txapelketa ekainaren 6an San Pedroko zubian

San Pedroko zubian, Etxe Haundi aurrealdean, egingo dute arrantza txapelketa ekainaren 6an, zapatua, 16:00etatik 19:00etara. Pago Uso elkarteak eta Alzu dendak antolatuta egingo dute, eta dagoeneko zabalik dago izen-emate epea. Alzun egin beharko du hori interesatuak, bost euro ordainduta.

# Unai Elkoro: "Ardura handiz egingo dugu lan"

Herritarrei eskerrak eman gura izan dizkiete domekan emandako babesagatik

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Udal hauteskundeetan hautatuak izan ziren EAJko kideek, Unai Elkorok, Nerea Etxabek, Mikel Uribetxebarriak, Pili Leanizbarrutiak eta Joxe Migel Uribarrenek, –Aitor Gabilondo falta izan da lan kontuengatik– eskerrak eman gura izan dizkiete aretxabaletarrei domekan emandako babesagatik: "Talde osoaren izenean eskerrik beroenak domekan babesa emandako herritarren ia %45i; ohorea da guretzat, eta ardura handiarekin kudeatuko dugu", adierazi du Elkoro alkategaiak, eta gaineratu du: "Ezin ahaztu herritarren gainerako %55a; izan ere, gure helburua da herri guztiarendako lan egitea".

### Lanean hasita

Dagoeneko hasi direla lanean iragarri dute. Hala, datozen lau urteotan udal ordezkaritza izango duten EH Bildu, Irabazi eta PSE-EEko ordezkariekin elkartzeko asmotan daude datorren astean. Bi helburuekin egingo dituzte bilera horiek: "Ekainaren 13an Udal talde berria osatu ordurako zein ikuspuntu eta asmo duten jakiteko; izan ere, gure helburua alkatetza lortzea da", dio Elkorok, eta bigarren helburua argitu du: "Bakoitzaren programan dauzkagun adostasunak zehaztea puntu horietan lehenbailehen lanean hasteko". Era berean lan taldeak izendatuko dituztela esan du "desadostasunak gainditzeko" asmoarekin: "Erdibideak topatu eta puntu horietan ere aurrera jotzeko".

### Gakoa "umil" lan egitea

Domekako emaitzei erreparatuz gero herritarrek mezu "argi eta garbia" bidali dutela uste dute EAJko kideek: "Herriak aldaketa eskatu du eta beste gobernu eredu baten aldeko konpromisoa hartzen dugu guk, adostasuna lortuta, inposaketarik gabe eta ahal den neurrian guztiekin egonda". Eta gaineratu dute gakoa dagoela "umiltasunez eta inteligentziarekin" lan egitean.



EAJko hautetsiak Aretxabaletako loretegian. | MIRARI ALTUBE

## Udaletxean igogailua jarri ahal izateko dirua bideratu dute

M.A. | ARETXABALETA

Azken ohiko osoko bilkura egin zuen Aretxabaletako udalbatzak astelehenean. Kiroldegirako hainbat tasa berri sartzea proposatu zuten, eta eztabaida eragin zuen gaiak. Hiru tasa proposatu zituzten: batetik, kirol elkarteetako eskoletan dabiltzan 3 eta 13 urte arteko abonatu gabeko neska-mutikoei ohikoaren erdia kobratzea, 6,65 euro hilabetean; bestetik, taldekako kiroletan federatutakoei 10,22 euro kobratzea hilabetean; eta hirugarren tasa da abono soziala, hau da, %75 arteko hobaria aplikatzea horren beharra dutenei. Horiek Gizarte Zerbitzuetan egin beharko dute eskaera. EAJko kideek ez zuten "egokitzat" jo agintaldi bukaeran proposatzea aldaketak, eta aurka bozkatu zuten; Aralarkoak, ostera, abstenitu egin ziren.

Kreditu batzuk aldatzea ere proposatu zuen Udal Gobernuak, dirua hainbat proiektutara bideratzeko; beste batzuen artean, udaletxean igogailua jarri eta teilatua konpontzeko eta herriko ikastetxeen inguruan itxiturak egiteko. Oposizioko kideak ez ziren bat etorri gobernuarekin, eta bozketa bi egin ostean alkatearen kalitatezko botoarekin onartu zuten.

## Eskerrak emanda agurtu da Aralar

Azken hamabi urteotan Udalean ordezkaritza izan duen Aralar alderdiko kideek eskerrak eman eta agur esan gura izan diete herritarrei eta urteotan alboan izan dituzten guztiei, ohar bidez (gutunen atalean, 8. orrialdean).

## Batzarra egingo du EH Bilduk eguenean

Batzar irekia egingo du Aretxabaletako EH Bilduk datorren eguenean, ekainak 4, Arkupen, 18:30ean. Hauteskundeetako emaitzen gaineko balorazioa egin eta aurrera begirakoak aztertuko dituzte.

Ana Bolinaga | Alkatea

# "Bilduk 132 boto bakarrik galdu ditu; Aralarren botoa joan da EAJra"

Uste du atez ateko bilketa sistema jarri izanak ez duela eraginik izan hauteskundeen emaitzan

M.A. | ARETXABALETA

Hauteskundeek ezusteko emaitzak utzi dituzte eta horien gaineko irakurketa egin du Bolinaga alkateak.



Ana Bolinaga alkatea. | M.A.

**Emaitzak esku artean, zein irakurketa egiten duzu?**

Gobernuaren desgastea ez da igarri, 132 boto bakarrik galdu ditu Bilduk; hor ez dugu islatu zigorra. Oso garbi ikusi da Aralarren botoa EAJra joan dela. Batzuek uste zuten Aralarrekin batera joanda koalizioan boto horiek eskuratuko genituela. Nik uste nuen zaila izango zela, lau urtetan EAJrekin batera oposizioa egin dutelako, eta horrek bere emaitza ekarri du; ondo joan da Aralar-EAJ koalizio hori, eta, hain zuzen, EAJk atera du hortik etekina, eta ez EH Bilduk. Zorionak EAJri, eta guri botoa eman digutenei mila esker, eta hor jarraituko dutela lanean esan; batzuek hor eta beste batzuek hortik kanpo.

**Zelako agintaldia izan da?**

Oso latza, oso gogorra. Baina herrira begira, herritarrekin eta elkarteekin –eta ez da topiko bat– oso atsegingarria, topera ibili naiz-eta, buru-belarri militantzia horretan. Behin eta berriro esan dut erakundeetako politikan ez naizela eroso sentitzen, baina beharrezkoa da mundu hobe baten alde borrokan ari garen kolektiboak eta alderdiak ere iristea bertara. Eta hemendik aurrera ere lanean jarraituko dugu.

**Atez atekoa jarri izanak emaitzetan eraginik ez du izan?**

Ez, benetan diotsut ezetz. Gobernuan egoteagatik 132 boto bakarrik galdu ditugu, izan dugun agintaldiarekin, gainera: koalizioak ez du funtzionatu; Aralar oposizioan egon da; atez ateko bilketa sistemaren kontrako prentsa behin eta berriro... Hortaz, Aretxabaletan ez da hori arrazoia eta gainerako herrietan ere ez. Nik uste dut hausnarketa beste ildo batetik egin behar dela. Ezker abertzalea egon da bere teilatura harriak botatzen, eta ez dugu asmatu. Hausnarketa sakona egin behar da; planteatu behar dugu EH Bilduren noranzkoa, zein estrategia eraman behar dugun, non kokatzen garen koalizio luze honetan: ezkerrean, eskuinean, erdian... Ildo politiko batzuk birplanteatu egin behar dira. Eta ezkertiar moduan instituzioak irabazi bai. baina ezin da sekula kalea galdu, eta ezker abertzaleak hor bere espazioa galdu izan du.

**Oposizioan egongo da EH Bildu.**

Bai, eta hori ere ondo dago. Proiektuak aurrera ateratzeko ez dago beti garaile izan beharrik. Ezker abertzale barruan oso egoera zailak izan ditugu: ilegalizazioa, kartzela... Badakigu egoera zailetan egoten eta aurrera egiten. Nik uste dut teilatua apur bat apurtuta dugula, baina zutabeak, ezker abertzalearen eta EH Bilduren zutabeak, oso sendoak direla. Eta hortik gora egin behar dugu guztion artean, baina beti behetik gora eta ez goitik behera.

**"Instituzioak irabazi bai, baina ezin da sekula kalea galdu"**



ESKERRIK ASKO
ARETXABALETA
eaj pnv

# Kultura kalera ateratzeko '7x7' ekimena

## Ekainaren 3an txotxongilo emanaldia izango da Gipuzkoa plazan

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA

Zazpi egunetan, zazpi gunetan, zazpi kultura ekitaldi; horixe da Udaleko Kultura Sailak antolatutako *7x7*. Kultura lau hormaren artetik ateratzea da horren asmoa, eta, era berean, herria girotzea. "Iazkoak eman zuenarekin oso pozik gaude eta errepikatzea erabaki dugu", argitu du Kultura zinegotzi Zigor Quintanillak.

Datorren astean dira lehen ekitaldiak: eguaztenean, ekainak 3, *Lagunekin baratzean* txotxongilo emanaldia izango dute neska-mutikoek TTR taldearen eskutik Gipuzkoa plazan (19:00); eta egubakoitzean, ekainak 5, Leizarra musika eskolako bandak joko du Arlutzeko kantxan, (19:00). Ekainaren 10ean Rakoto Trio taldeak eskainiko du kontzertua Mitarte plazan, (19:00), eta egubakoitzean, hilaren 12an, Pirritx eta Porrotx pailazo ezagunak etorriko dira Herriko Plazara (18:00). Ekainaren 17an berriro txotxongilo emanaldia egongo da Gipuzkoa plazan; 19an, musika eskolakoen konbo emanaldia Gurea taberna ostean; eta uztailaren 3an, The Pinball's Blues Party taldearen kontzertua Iralabarri plazan.



JOSE RAMON INTXAUSPE

## Iriarteren espiritua bertan zela

Demetrio Iriarte bertan zela sentitu zuten askok domekan, parrokian. Gasteizko Udal Musika Bandak kontzertu dotorea eman zuen eta azken abestietan bailarako txistulariak batu zitzaizkien Iriartek berak konposatutako *Hasierak* eta UDAren ereserkia jotzeko. Aretxabaleta Abesbatzak kantuan egin zuenean hunkitu egin ziren asko.

## Dantzak eta zirkuko jokoak Haurren Astearen barruan

**M.A.** | ARETXABALETA

Kurtzebarri eskolako gaztetxoenek Haurren Astea ospatuko dute astelehenetik eguenera bitartean. Emanaldi dotoreak gertatu dituzte gainerako ikaskideei eta gurasoei eskaintzeko –gurasoendako emanaldiak 18:00etan dira–, eta, besteak beste, honako hauek dantzatuko dituzte: 2 urtekoek, *Sorgintxoa*; 3 urtekoek, *Karramarroaren dantza*; eta 4 urtekoek, *Singing in the show*. 5 urtekoek, ostera, zirkua ekarriko dute eguenean, eta ekilibristen, magoen eta pailazoen topaleku izango da eskolako aretoa.



AGEko kideek udaletxe zaharraren aurrealdean jarritako taberna. | M.A.

## 'Gazte eguakotxak' gaur hasita udaletxe zaharrean AGErekin

**M.A.** | ARETXABALETA

Aretxabaletako Gazte Ekimeneko kideek ere girotu gura dute ekaina, eta, gaur hasita, egubakoitz guztietan izango dira ekitaldiak udaletxe zaharrean *Gazte eguakotxak* leloarekin. "Orain dela lau urte ere egin genuen eta ohitura berreskuratu gura dugu", jakinarazi du AGEko kide Ibai Zangituk, eta gaineratu: "Bertan edukiko ditugu jatekoa, edatekoa, giro ona eta zuzeneko musika. Horren asmoa da uda datorrela-eta herriari bizitasuna eman, ondo pasatu eta, bide batez, beste ekintza batzuetarako diru apur bat ateratzea; Andramaixetarako, batez ere".

Etxeko taldeak emango die hasiera gaur *Gazte eguakotxei*; Theskarga taldeak, hain zuzen. Ska doinuak ekarriko ditu hark, 19:30ean. Ekainaren 5ean, ostera, bertso musikatuak eskainiko ditu Oskar Estangak, Leikaxoka bertso eskolakoekin elkarlanean.

Ekainaren 12an Arrasateko Hans, Jondi eta konpainiak emango dute kontzertu akustikoa, 19:30ean. Eta bukatzeko, Kataluniatik etorritako Itaca Band taldeak ekainaren 19ko gaua girotuko du.

Gazte Ekimeneko kideek aretxabaletarrak gonbidatu gura dituzte ekitaldiotara: "Herritar guztiak animatu gura ditugu udaletxe zaharrera; gazte, heldu eta nagusi, guztiok izango zarete ongietorriak gurean".

DEBAGOIENEKO XI. TRIKITIXA EGUNA 2015
ARETXABALETA



MAIATZAK 30
10:30 -Hamarretakoa Herriko Plazan
11:15 -Kalejira Herriko gune desberdinetan
13:00 -Jaialdia Plazan
14:30 -Bazkaria
17:00 -Erromeria jaiari amaiera emateko BIDE BATEZ taldearekin

Leizarra musika eskola lme
Aretxabaletako Udala
goiena KOMUNIKAZIO TALDEA
banka kooperatiboa
LABORAL kutxa

# Haur dantzarien topaleku izango da Aretxabaleta

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA

Debagoieneko haur dantzarien taldeak Aretxabaletara gerturatuko dira domekan: Arrasateko Txikitxu-Arrostaitz eta Lore Gazteak; Oñatiko Oñatz; Antzuolako Oinarin; eta Soraluzeko Urrats. Etxekoek, Leizarrakoek, ez dute hutsik egingo eta guztien artean dantza erakustaldiekin girotuko dute herria.

Herriko Plazan elkartuko dira, 10:30ean, hamarretakoa hartzeko, eta ondoren, 10:45 inguruan, kalejira egingo dute txistularien laguntzarekin. Dantza erakustaldiak 11:30ean hasiko dituzte herriko hainbat gunetan eta 13:30ean bazkaltzera joango dira guztiak. 17:00etan alardeari ekingo diote plazan eta horrekin emango dute eguna bukatutzat.



Hainbat dantzari. | GOIENA

# Kirolez busti-busti egiteko hiru egun antolatu ditu UDAk ekainerako

**M.A.** | ARETXABALETA

Ekainaren 5ean, 6an eta 7an egingo du Aretxabaleta kirol elkarteak *Kirolez busti* ekimena. Hainbat kirol mota ezagutzera ematea da asmoa, baita herria girotzea ere. Iaz egun bakarrean egin zituzten ekitaldiok: "Aurten hiru egun borobil gertatu ditugu; nobedade mordoarekin, gainera", jakinarazi du UDAko kide Agurtzane Elkorok.

Egubakoitzean egingo dituzte bizikleta esprintak eta xunba erakustaldia, besteak beste, eta film laburren emanaldia ere egongo da; zapatuan: doke txapelketa, street boulderra, cricketa… Eta domekan paella gertatuko dute herriko sukaldari ezagunenek– Iñaki Uribetxebarria eta Jesus Mari Errasti– Getxotik etorritakoekin batera.




FLOREN ELORTONDO

## Oraingoan ere domina mordoa

**Dominak lepotik zintzilik, halaxe itzuli ziren joan den zapatuan herriko hiru igerilari Altzan jokatutako txapelketatik. Alex Elortondok urrezkoa eta zilarrezkoa lortu zituen, Iker Arejolaleibak, urrezkoa, eta Juan Carlos Barkerok urrezko bi. "Zorionak, hiruroi eta segi lanean orain arte legez!", esan gura diete senideek.**

## NIRE USTEZ



**MAITE FRAILE**

# Pitzadurak estaldu

Ez da ezusteko kontua, badaramatzagu urteak eta dagoeneko moldatu gara 2008an jatorria izan zuen krisi ekonomiko finantzarioak utzitako gaitzarekin bizitzen. Langabezia, lanaldi luze eta soldata baxuko prekarietatea, BEZaren igoerak eragindako kontsumismo jaitsiera eta agintaldian dauden alderdi politikoen ustelkeria, besteak beste, egungo gizarte eredua guztiz pitzatu duten arrazoiak dira, aberats eta behartsuen arteko desoreka bermatuz.

Politika da bizitzako egunerokotasuneko ardatza, horregatik, lurrikara honen pitzadurak konpondu dezakeen aukera bakarra demokrazian oinarrituriko politika da; herrigintzan herri hobeago bat eraiki behar dugu, non gizarteko pertsona denok ongizate komuna lortzeko eskubide berdinak ditugun, oinarrizko zerbitzuak guztion eskura eta justizia sozialean oinarrituriko garapen ekonomiko baten aldeko politika sustatu beharra dago (enpresa txiki eta ertainei, langile eta langabeei, behartsuei…).

Herri eroso eta duin baten bizitzeko eskubidea daukagu eta aretxabaletar eta herritar bezala ez nuen aukera galdu, bozkatzera joan nintzen! Nik, orain arte, nire esku dagoen dena egin dut; orain, agintean jartzen denaren txanda izango da! Che Ghevarak esan bezala: "Amestu eta espirituz aske izango zara, borrokatu eta bizitzan aske izango zara!".

## Astelehenean odola ateratzera etorriko dira Arabako odol bankuko kideak osasun etxera

Arabako odol bankuko kideak odola ateratzera etorriko dira ekainaren 1ean, astelehena. Osasun etxean izango dira (16:30-20:00). Bestetik, Aretxabaletako odol emaileen ordezkariak beste norbaiti pasatu gurako lioke ardura. Interesaturik egonez gero, deitu honako zenbaki honetara: 636 68 56 06 (Ramon Eraña).

LANBIDE HEZIKETA DEBAGOIENEAN
ikasLAN Gipuzkoa
"etorkizuna zure esku"

ARETXABALETAN
ALE - Aretxabaleta Lanbide Eskola
Etxebarri auzoa, z/g - 22Pk.
20550 ARETXABALETA
✆ 943 79 79 00 / 943 79 79 43
ia@iaretxabaleta.com
www.iaretxabaleta.com

BERGARAN
IEFPS Miguel Altuna GLHBI Bergara
Ibargarai, 1
20570 BERGARA
✆ 943 76 24 91 / 943 76 38 40
imaltuna@saremail.com
www.imaltuna.com

OÑATIN
IES RM Zuazola - Larraña BHI
San Lorentzo, z/g
20560 OÑATI
✆ 943 78 21 50
013015aa@hezkuntza.net
www.onati.net

AURREMATRIKULA: Maiatzaren 25etik Ekainaren 5era. MATRIKULA: Uztailaren 16tik 21era.

# Atez atekoaren gaineko herri-galdeketa iragarri dute

## Mugikortasunaren gaia zentzu zabalean aztertuko dute; batez ere, oinezkoentzako erdiguneko gunea

**IMANOL BELOKI** | ESKORIATZA

Berba hauek esan zituen Joxe Ramon Zubizarretak herenegun eman zuten prentsaurrekoan: "Eskoriatzarrek konprometitutako gobernu talde bat nahi dute, arduraz lan egingo duena, gertuko gobernu bat, bizilagunei entzungo diena, eta gu jendearengandik gertu egongo gara".

Ilusioz eta pozik hartu dute *enkargua* alderdi jeltzaleko kideek, eta, herritarrei esker ona adieraziz, eskoriatzarrei hutsik ez egiten saiatuko direla esan zuten. "Eskoriatzarrek argi eta garbi esan dute aldaketa bat nahi dutela"; hala, aldaketa horretarako giltza izatea espero du alderdi jeltzaleak.

Hemendik aurrera begira, gainontzeko alderdietako hautatuekin batuko dira EAJkoak. Baita hautatua izan ez den Alderdi Sozialistarekin ere. Izan ere, orain arte Udalean egon da, eta, aipatu zuten moduan, herritar guztientzat egin nahi dute lan, nahiz eta alderdi horrek ordezkaritzarik ez izan datozen lau urteotan.



Eskoriatzako EAJko bost hautetsiak talde argazkian. | IMANOL BELOKI

**Hondakin bilketa lehentasun**

EAJren lehentasunak bi izango dira: zaborraren gaia, batetik, eta mugikortasunarena, bestetik.

Hondakinen bilketa sistema erabakitzeko herri-galdeketa antolatuko dute, lehenbailehen. Herritarrek zer nahi duten eta nola nahi duten jakin nahi dute. Joxe Ramon Zubizarretaren esanetan: "Atez atekoak gaur egun duen gastua, kentzeak duen gastua… aztertuko dugu. Birziklatzearen aldekoak gara, baina bosgarren edukiontziaren aldeko apustua egingo dugu".

**Oinezkoentzako bidea**

Bestalde, mugikortasun plana zentzu zabalenean aztertuko dute. Erdiguneko oinezkoentzako bidea, norabide bakarrarekin jarraitu, edo bikoitza jarri, autoen abiadura… aztertu nahi dituzte.

# Beñat Herce: "Emaitzak sorpresaz eta harriduraz hartu ditut"

**I.B** | ESKORIATZA

Domekako emaitzek "zapore gazi-gozoa" utzi diote Beñat Herce jarduneko alkateari: "Batzuek diote atez atekoagatik dela. Izan liteke, baina ez da hori bakarrik izan. Beste batzuek herritarrei ez diegula entzun diote. Baina nik ez dut ezagutu Eskoriatzako udalik hainbeste bilera informatibo eta parte-hartze prozesu abiatu dituenik. Agian sektore batzuetara ez gara heldu, baina esan bezala, ez da izan saiatu ez garelako! Argi dago, gure eskuinera beste fronte zabal bat ireki dela. Botoa aktibatzen jakin dute, abstentziotik eta PSE-PPtik. Itxuraz, Gipuzkoa ez da uste genuen "ekialdeko lurralde gorria" (...).



Beñat Herce jarduneko alkatea. | GOIENA

Gure botoak ere jaitsi dira eta honek autokritika sakonerako parada eman behar digu. EH Bildu bezala erlaxatu egin gara, konfiantza izan. Delegazionismo puntu bat ikusi dut, Udalean, kalean… eta hori aldatu beharra dago, herrigintza zabal eta anitza martxan jarriz.

Bestalde, penaz hartzen dut lau urtetan ezer gutxi egin duen alderdi batek irabaztea. Gu lanera etorri ginen; ez genuen hau edo beste egiten botoak handik edo hemendik jasotzeko. Agian, hori egin behar genuen: lan gutxiago eta kanpaina gehiago, edo ez? Ba ez; hasieratik garbi izan dugu gu lanera etorri garela, Eskoriatza hobetzeko. Eta egin dugu, lan asko eta ona.

Alde horretatik oso pozik nago. Baina hauteskundeetako emaitzak argiak dira: herritarrek beste eredu baterako hautua egin dute, gurearen guztiz kontrajarria. Halaxe da, ba, demokrazia eta kiroltasunez onartuko ditugu emaitzok. Gaur, 4 urte atzera begira, uste dut egin genuen errazena hauteskundeak irabaztea izan zela. Ez dute lan makala izango hurrengo datozenek! Agortu zaizkie aitzakiak eta, behintzat, prentsan ika-mikatik zerbait egitera pasatzen badira ez da gutxi izango! Baina guk ere baditugu ardura eta erantzukizunak: oposiziotik lan zorrotza egingo dugu, hori ere oso garrantzitsua baita".

# Hunkitzeko moduko omenaldia egin diote Itoitz Armendaritzi

**IMANOL BELOKI** | ESKORIATZA

Itoitz Armendaritz munduko mushing txapeldunari omenaldi berezia eskaini zioten Zaldibar antzokian. Aretoko sarreran haren argazkiak, kamisetak… zeuden zintzilikatuta apaingarri gisa, eta lagunek, familiakoek eta herritarrek aretoa bete zuten.

Orain arte egin duen lana aitortzeko omenaldiak txapelduna hunkitu zuen. Haren esanetan: "Ez nuen espero horrelako omenaldirik; egia esan, ez nekien zertara nentorren ere". Hala, txalo zaparrada jasota igo zen oholtzara eguneko protagonista, eta, urduritasuna baretzeko asmoz, bere ibilbidearen inguruko bideo batekin hasi zen ekitaldia.

Aurkezlea Aitor Elduaien izan zen, Euskadi Irratiko esataria eta Armendaritzen laguna. Elduaienek bidaien eta abenturen saioa eskaintzen du astebururo *Bidaldi* saioan, eta, hori horrela, Armendaritzen ibilbidea gertutik ezagutzen du. Hala, txapeldunaren gaineko bitxikeria, istorio eta abentura ugari kontatu zituen, giro eder eta umoretsuan.

**Oroigarriz betetako ekitaldia**

Eskoriatzako bi neska gaztek aurreskua dantzatu eta gero, Hankamotx Bertso Eskolakoek bertsoak abestu zizkioten. Ondoren, Karmelo Oñate ilustratzaileak koadro bat oparitu zion, berak marraztutakoa; bertan, Armendaritz lerarekin eta txakurrekin elurretan agertzen da.

Udalaren partetik, berriz, Jose Angel Petralandak Zubiate labean egindako oroigarri bat eman zion eta Igor Ezpeleta Kirol zinegotziak, berriz, lehiaketetarako diru laguntza bat.



Oroigarria, koadroa eta Udalaren diru laguntza jaso zituen. | IMANOL BELOKI

**Amaiera paregabea**

Ekitaldi amaiera oso dibertigarria izan zen guztientzat. Izan ere, Zaldibar aretotik irten, gurpildun lera hartu, txakurrak lotu, eta antzoki parean bira batzuk emateko aukera izan zuten bertaratutako guztiek. Nahiz eta baldintza onenetan ez izan; mushinga nolakoa den eta txakurren erreakzioak ikusteko modu polita izan zen.

Batez ere, gaztetxoek disfrutatu zuten, eta hurrengo batean elurretan probatzeko gogoz egongo dira, seguruenik.






**Ima Beristain** | Antzuolako jarduneko alkatea

# "Herritarrek ulertu eta baloratu egin dute gure lana"

Hamabost egun barru egingo den inbestidura–ekitaldian, ekainaren 13an, Beñardo Kortabarria izendatuko dute datozen lau urteetarako alkate

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Ima Beristaini, Antzuolako jarduneko alkateari, lekukoa emateko aste pare bat geratzen zaizkio. Baina, alkatetzari agur esan aurretik, Beristainek domekako hauteskundeetako emaitzen gaineko balorazioa egin du.

**Udal hauteskundeetako emaitzen gainean zein balorazio egiten duzu?**
Herri mailan oso balorazio positiboa egiten dut. Talde-lan bikaina egin dugula esango nuke. Jendeak ulertu eta baloratu egin duela gure lana uste dut. Inguruko herrietako eta Gipuzkoako emaitzek, berriz, penatu egin naute pixka bat; eta Nafarroa eta Arabakoek, aldiz, asko poztu.

**Lau urte hauetan taldean egindako lanaren gainean zein balorazio egiten duzu?**
Borondate ona bezalakorik ez dago gauzak ondo egiteko. Hala geneukan, eta, hanka-sartze batzuk gorabehera, lan ona egin dugula uste dut. Gainera, oker harturiko hainbat erabaki herritarrek zuzendu dizkigute. Hainbat eta hainbat herritarren inplikazio hori ere eskertu nahiko nuke.

**Eta zure lanaren gainekoa, lan pertsonalari dagokiona, zela ikusi duzu?**
Hartu ditugun erabaki guztiak taldean landuta hartu ditugu, eta horrek patxada ematen dio bati. Beraz, berriro ere, lau urteotan lortutakoa talde-lanaren uzta dela azpimarratu nahi nuke. Niri dagokidanez, egindako lana aberasgarria suertatu zait izan dudan taldeari eta herritarrei esker. Hori zen gure helburuetako bat eta uste dut herritik gertu sentitu gaituztela herritarrek.



Ima Beristain, Goiena telebistako platoan. | MAIDER ARREGI

**"Lortutako emaitza talde-lanaren uzta izan dela azpimarratzen dut"**

**"Egindako lana aberasgarria suertatu zait herritarrei esker"**

**Nolakoa ikusten duzu udalbatza berriaren etorkizuna?**
Udal kudeaketan esperientziarik ez duten arren, konfiantza handia dut osatu den EH Bilduren zinegotzi taldearengan. Guk ikasi dugun bezala, haiek ere ikasiko dute; aldamenean izango gaituzte, gainera, edozertarako. Aipatu gura dut herrikoak ez diren zinegotziek ezer gutxi gehitu dutela azken lau urteotan. Ez daukat esperantza handirik aurrerantzean egingo dutenaren inguruan. Asko poztuko naiz oker baldin banabil.

**Aurrerantzean lanean jarraituko duzu?**
Talde-lana eta parte-hartzea indartzen jarraitu behar dugula uste dut; ni ere horretan ibiliko naiz, Udalean daudenei laguntzen.

## Aldaketarik gabeko udalbatza berria izango du Antzuolak

M.A. | ANTZUOLA

Astelehen goizean argitu zen jokoan zegoen zinegotzia zein alderdirena izango zen. Sozialistek boto nahikoa ez jaso arren zinegotzia eskuratzeko, eurendako izango da udalbatza osatzeko eserlekua agintaldi honetan.

Hala, mantendu egingo du PSE-EEk zinegotzia, eta, orain dela lau urteko mapa politiko bera geratuko da Antzuolako udalbatzan: EH Bilduk zazpi zinegotzi izango ditu; PSE-EEk bat eta EAJ alderdiak hiru.

Antzuolak alkate berria izango du: EH Bildu alderdiko Beñardo Kortabarria.




## Arabako fronteko lubakietara irteera egingo dugu domekan

KOMUNITATEA GOIENA | ARROLA MENDI TALDEA | ANTZUOLA

1937ko apirilaren 4an Antzuolako, Bergarako eta Elgetako hainbat gudari hil ziren Larragorrin. Hala, domekan, hilaren 31n, Oketan eta Larragorrin dauden lubakiak eta fronteko lekuak ikusteko irteera egingo dugu. Egun argia izanez gero, fronteko lerroaren zati handi bat ikusi ahal izango da. Hala, egun hartan gertatutakoa hobeto ulertzeko aukera izango da.

Larragorrirantz 09:00etan abiatuko gara, Antzuolatik, autoz. Etxaguen eta Oketa arteko ibilbidea –9 kilometro– egingo dugu lehenik; ondoren, Aiao eta Larragorri artekoa –2 kilometro.

13:30ean Aiaoko pagadian bazkaltzea da asmoa. Animatu!

## 'Nordic walking' kirol jardueraz gozatzeko aukera gaur eta bihar

M.A. | ANTZUOLA

Oinez ibiltzea baino pixka bat azkarragoa, baina gorputzarendako ez korrika egitea bezain bortitza. Horixe da, labur azalduta, *nordic walking* edo ibilera nordikoa izena daukan ariketa fisikoa.

Bi bastoiren laguntzarekin egiten da eta teknika berezia eskatzen du. Osasunarekin lotura zuzena dauka eta lesiorik ez izateko kirol jarduera egokia, segurua dela nabarmendu du Xabier Azkaratek, Udal Gimnasioko arduradunak.

**Trenbide zaharrean barrena**

Gaur, arratsaldean, eta bihar, goizean, trenbide zaharrean zehar ibiliko dira parte hartu gura duten antzuolarrak. Hala, interesa dutenek izena eman dezakete 943 76 66 61 telefonora deituta. Kirola kanpora ateratzeko aukera ona, zalantza barik.

## Eskerrik asko antzuolarrei nepaldarrei laguntzeagatik

KOMUNITATEA GOIENA | AUZOKO | ANTZUOLA

Hainbat antzuolarrek Auzoko programan parte hartzen dugu. Elkar biziz euskara ikasi eta praktikatzen dugu. Gure artean, besteak beste, bi nepaldar daude. Hori dela eta, San Isidro egunean, plazan, diru bilketa egin genuen Nepalgo lurrikarak kaltetutakoei laguntzeko. 1.223 euro batu genituen eta AMS gobernuz kanpoko erakundeak *Ongams.wordpress.com* helbidean duen kontu korrontean sartu dugu. Lurrikararen ostean umezurtz geratu diren neskatilak sexu trafikatzaileengandik salbu uzteko lanean ari den erakundeak jasoko du dirua. Etxerik gabe geratu diren emakumeei erditzen laguntzeko ere bideratuko da laguntza.

Eskerrik asko une gogor honetan antzuolarrek erakutsi duzuen elkartasunagatik.




San Isidro egunean nepaldarrendako laguntzak jaso genituen. | AUZOKO

## OHARRAK

**UDALEKUAK ZALDITEGIAN**
Gailur zalditegiak udarako udalekuak antolatu ditu. Naturan eta zaldiekin gozatzeko prest dauden 7 eta 15 urte bitarteko gaztetxoei zuzendua dago. Izen-ematea zabalik dago.

**AIHERRAKO UMEAK**
Gaur, 10:30ean, Aiherrako umeei harrera egingo diete Herri Eskolan. Antiguako errota bisitatuko dute eta futbol-zelaian bazkalduko dute. Ondoren, 14:30ean, jokoak egingo dituzte patioan.



Aurreko edizio batean egindako jaialdian parte hartu zuten Dirty Brothers. | IMANOL SORIANO

# Eguzkierripa rock jaialdia egingo dute, beste behin

## Gazte Asanbladak antolatuta izango da Aramaioko Gazte Eguna; Andra Mari ermitan ospatuko dute

**ARANTZAZU EZKIBEL** | ARAMAIO

Andra Mari ermita berriro ere rock musikaren topagune bilakatuko dute. Gazte Asanbladak antolatuta, Eguzkierripa rock jaialdia egingo dute, zazpigarren aldiz. Aramaioko Gazte Eguna bezala ezagutzen duten eguna izaten da zapatukoa. Eguzkierripa auzoko Andra Mari ermitan egiten dute, eta, hain zuzen, hortik datorkio izena jaialdiari: Eguzkierripa rock jaialdia.

Eguerdi partean hasiko dute eguna bertso-pote musikatuarekin. Herriko tabernetan ibiliko dira, bertsotan eta musikarekin poteoa girotzen.

**Bazkaria 40 lagunendako**

14:30ean bazkaria izango dute Andra Mari ermitan. "Azkeneko urteetan bazkaria gertatu egin izan digute; baina aurten, guk prestatuko dugu. Menua izango da makarroiak eta oilo-bularkia. Horrez gain, postrea eta kafea ere egongo da", azaldu du Gazte Asanbladako kide Edurne Kortabarriak.

Txartelak 5 euroren truke jarri dituzte salgai –atzo zen txartelak erosteko azkeneko eguna–. Bazkarirako 40 bat lagun elkartuko direla adierazi du Kortabarriak.

**Musika lasaia eta rocka**

Bazkalondoren musika lasaia izango dute: Aluak Dizerdit Aramaioko taldeak eta Bizarra Eta Bere Gitarra Zaharra talde oñatiarrak girotuko dute bazkalostea. 20:00etan, rock kontzertuak hasiko dituzte.

"Aramaioko eta inguruko herrietako taldeak ekartzen saiatu izan gara beti", dio Kortabarriak. Aurten, musika jarriko dute Aramaioko Zarzamora eta ERM taldeek, Gasteizko Codigo Norte eta Entropia taldeek eta Gernikako Backbonek.

Jaialdiaren helburua herriko gazteak elkartzea da, besteak beste. Gainera, inguruko herrietako gazteak ere mugitzen ditu Eguzkierripa rock jaialdiak. Bihar ere horrela izango da.

**EGITARAUA**

**MAIATZAK 30**

**13:00** Bertso–pote musikatua.

**14:30** Bazkaria.

**Ondoren,** Aluak Dizerdit eta Bizarra Eta Bere Gitarra Zaharra.

**20:00** Kontzertuak: Zarzamora, ERM, Entropia, Backbone eta Codigo Norte.

▶ Bazkaria eta kontzertuak Andra Mari ermitan izango dira.

# Emakumeen topaketa ospatuko dute Aramaion

## Ekainaren 5ean izango da jardunaldia: hitzaldia eta antzerkia izango dituzte kultura etxean

**A.E.** | ARAMAIO

Zuiako Kuadrillako emakume guztiei zuzendutako eguna ospatuko dute datorren ekainaren 5ean. XX. Emakume Topaketa egingo dute.

Zuiako Kuadrillako gainerako herrietan autobusak jarriko dituzte Aramaiora joateko. 15:00etan irtengo da autobusa, Izarratik, eta azkeneko emakumeak Oletan jaso ostean Aramaiora helduko dira. Aurtengo gaia *Emakume, zaindu zure burua!* izango da. Horri buruz hitzaldia eskainiko du Alberto Martinez de Santos psikologo eta sexologoak. 16:00etan izango da hitzaldia. Emakumeei hainbat gomendio eskainiko dizkie Martinez de Santosek, euren burua zaindu eta mimatzeko.


Karteleko irudia. | ZUIAKO KUADRILLA

**Umorezko antzerkia**

Hitzaldiaren ondoren Panpinpanpox antzerki taldeak *Arreglá, pero informá: pero arreglá, arreglá (oiga usté)* lana eskainiko du. Kultura etxean izango da emanaldia.

Horrez gain, kafea hartzeko tartetxoa hartuko dute jardunaldian parte hartuko dutenek. Itzulerako autobusa 20:30ean izango da.


ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA

## Peru Abarrategi txapeldun

Peru Abarrategi aramaioarrak irabazi zuen joan den zapatuan Kanpezun jokatu zuten Arabako bertso eskola arteko finala. Eskola arteko topaketa eta gazteen finala egin zuten Kanpezun. Bertsotan ibili ziren oholtza gainean goizean eta plazan arratsaldean. Ekainaren 27an Orion jokatuko den Euskal Herriko eskola arteko finalerako txartela lortu du, hala, Abarrategik.

# Helduendako oporretan izena emateko epea zabalik

**A.E.** | ARAMAIO

Helduendako oporren programan eskariak aurkezteko epea zabalik dago. Programa horren bitartez, interesatuek penintsulara, Balearretara edo Kanarietara joateko aukera izango dute, eta kultura zirkuituak edo natura turismoa egiteko modua izango dute. Eskariak ekainaren 5era arte aurkez daitezke, udaletxean. Programan parte hartzeko baldintzak dira: 65 urte edo gehiago izatea; pentsioen sistema publikoko erretiro-pentsioduna izatea; alarguntasun pentsioduna eta 55 urte edo gehiago izatea; beste kontzeptu batzuen pentsioduna edo diru laguntzen onuraduna izatea, eta kasu guztietan 60 urte edo gehiago izatea. Ezkontideak parte har dezake eta ez ditu zertan baldintzak bete.

# Martitzenera arte eman daiteke izena udalekuetan

**A.E.** | ARAMAIO

Uztailaren 8tik 21era bitartean egingo dituzte aurtengo udalekuak, 3 eta 12 urte bitarteko umeei zuzenduta. Interesatuek ekainaren 2ra arte, martitzena, izango dute izena emateko aukera. Eskaria udaletxean entregatu behar da. Matrikula egiterakoan, familia bakoitzaren ume kopurua kontuan izango dute: seme-alaba bakarragatik 50 euro, bigarren seme-alabarengatik 30 euro eta hirugarren seme-alabarengatik 20 euro. Bestalde, begirale moduan parte hartu nahi duenak gaur izango du izena emateko azkeneko eguna. Baloratuko da begirale titulua eta EGA izatea, eta baita umeekin esperientzia izatea eta Aramaiokoa izatea. Baldintza da 17 urtetik gorakoa izatea. Interesatuek Ana Muñoarekin egon behar dute.

# Herri arteko txapelketako partiduak bihar

Arabako herri arteko pilota txapelketaren barruan beste jardunaldi bat izango dute bihar, zapatua, Aramaioko pilotariek. Jon Herrarte, Oihan Bideburu eta Ander Aspe pilotariek Artzeniegarren aurka jokatu beharko dute. Partiduak 17:00etan hasiko dira eta Aramaioko pilotalekuan jokatuko dituzte.

Oxel Erostarbe | Elgetako jarduneko alkatea

# "Gura dugu alkatetza aldaketa ondo egitea, (...) egin dezagun erreleboa natural"

- Erostarbek Lazkano zoriondu du emaitzengatik
- Gu Geu ere proposamen interesgarria dela dio


Oxel Erostarbe, eguaztenean, udaletxe aurrean. | L.Z.

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Ekainaren 13an izendatuko dute Iraitz Lazkano Elgetako alkate. Oxel Erostarbe beste etapa baten atarian da.

**Elgetarrek hitz egin dute. Ze hausnarketa sortu dizute emaitzek?**
Faboritoa zen EH Bildu eta bete egin da pronostikoa. Parte hartzea dezentekoa izan da, elgetarrek berba egin dute eta konfiantza eman diote Iraitz Lazkanori. Domekan bertan eman nizkion zorionak eta orain ere ematen dizkiot lerro hauetatik. Nik alde txikiagoa espero nuen; ehun boto dezenteko aldea da gurea moduko herri batean. Gu Geu Elgetak egin duen proposamena interesgarria iruditu zait, alderdiak alde batera laga eta herritarren zerrenda egitea.

**Gu Geu Elgeta babestu duzu zuk.**
Mila biztanleko herri bat gara eta sinesten dut Elgetarako onena dela independentez osatutako zerrenda bat. Zerrenda horretan daudela EAJko, ezker abertzale ofizialeko edo Aralarko kide izandakoak? Ba, ederto. Denborak esango du, baina gurea moduko herri batean kontuan hartzeko proposamena iruditzen zait herritar ezberdinez osatutako herri kandidatura egotea.

**Iraitz Lazkano izango da alkate berria. Zer iruditu zaizu aurkeztu duten programa?**
Gura nuke herrigintza izatea ardatza, eta ez makro-politika. Gauzak aldatzera datorrela esan du EH Bilduk. Aldatzea baino, nik nahiago nuke hobetzea. Gurea moduko herriekin konparatzen badugu, orokorrean azpiegiturei eta zerbitzuei dagokienez Elgeta ondo dagoela esango nuke. Beti dago zerbait hobetzeko, baina gauzak egiten hasteko oinarri ona utzi dugu. Gura dugu alkatetza aldaketa ondo egitea; mahai gainean dauden gauzak azaldu, zalantzak argitu; azken finean, gauzak normal egin. Batzuk bagoaz eta beste batzuk badatoz, egin dezagun erreleboa natural. Dagoeneko harremanetan jarri gara EH Bildukoekin hori ondo gauzatzeko. Gu Geu Elgetakoekin ere elkartzea da asmoa.

**Gu Geu Elgetak oposizio lanak egin beharko dituela dirudi. Talka handiak aurreikusten dituzu?**
Gu Geu Elgetak egin beharreko ibilbidea Gu Geu Elgetakoek adierazi beharko dute. Elgetarrok talka baino nahiago dugu adostasuna.

**Elgetatik kanpoko emaitzek ze gogoeta sortu dizute?**
EAJ indartsu ikusi dut, Gipuzkoan eta eskualdean gorakada espero zitekeen, baina Arrasateko edo Bergarako alkatetzak lortzea ez. Alderdi Sozialista eta Alderdi Popularra beheraka doaz etengabe. Ezker Batuak aguantatu egin du oraingoan. Indartsu dator Podemos, Elgetan bertan 50 boto lortu ditu. Lau gogoeta egingo nituzke:
1) Nafarroa Bai-ren alde egin genuen batzuek ezker abertzalean; Geroa Bai-k jarraipena eman dio apustuari. Hortik etorriko da aldaketa Nafarroan. Poztekoa. Egunotan asko gogoratu naiz Jon Abrilekin, Aintzane Ezenarrorekin, Mikel Basaberekin, Itziar Gomezekin eta Uxue Barkosekin. Baita garai haietan gure ondoan egon ziren militanteekin ere, asko gure eskualdeko militanteak eta zinegotziak. Denborak nor bere lekuan ipintzen du.
2) Herritarrei hitza eta erabakia emango zaiela esatea ez da nahikoa. Esan egin behar da eta eman. Politikako egunerokoak harrapatu egiten zaitu, pentsatzeraino zure ingurukoak direla herria. Herria guztiak dira, zure aldamenekoak eta beste modu batera pentsatzen dutenak.
3) Gero eta zailagoa da edozein herritarrek alderdi edo kandidatura batean joateko pausoa ematea. Iritzi batekoak edo bestekoak izan pauso hori ematen dutenak gehiago baloratu behar genituzke. Ez hori bakarrik, pausoa eman eta epe motzean alderdi edo kandidaturaren izenean jardun duten alkateak eta zinegotziak babestu egin behar dira alderdietatik. Batez ere, lehenago alderdia joan denean aurkezteko eskatzera eta adostasunetara heltzeko jarrera erakutsi dutenean.
4) Autokritika egin behar da beti. Eta batzuetan dimisioa aurkeztu ere bai, gutxienez etxe barruan eta hedabideetatik kanpo.

> "Alde txikiagoa espero nuen; ehun boto dezenteko aldea da"

**Alkate eta legebiltzarkide izan zara. Zer inpresio utzi dizu politikagintzak?**
Nik gustuko dut herrigintza. Politikagintzari dagokionez, alde onak eta txarrak ezagutu ditut. Nik sinesten dut jende askok ematen duela politikan inplikatzeko pausoa zintzotasunez eta onenak emateko asmoarekin. Politikagintzatik karrera egin gura dutenak ere topatu ditut. Politikagintzan gertatzen ari dira aldaketak. Esango nuke alderdi batzuk, behintzat, konturatu direla ezin direla euren egoitzetan geldirik egon, konturatu direla gerturatu egin behar dutela herritarrengana.

**Irakurri dizut langabeziara zoazela. Zaila da arlo profesionalean beste etapa bat zabaltzea?**
Gure amak esan zidan orain dela hamabi urte ez ote zen hobeto lehenengo lana topatzea eta gero heltzea beste kontuei. Agian, arrazoi zeukan, baina ni ez naiz damutzen hartutako erabakiaz. Lehenago ere jardun dut tabernan lanean, eskolak ematen... Gainontzeko langabe gehienen moduan, badut lana topatzeko esperantza.


Hilaren 16an Elgetako gaztetxean egindako batzarra. | ELGETAKO GAZTETXEA

## Gaztetxeko jardunari jarraipena emateko apustua egin dute herriko hainbat gaztek

L.Z. | ELGETA

Hamazazpi lagun elkartu ziren hilaren 16an gaztetxearen etorkizunari buruzko bilera irekian. "Hasiera batean, gaztetxearen egungo egoera eta batzarrean egindako irakurketa partekatu genuen etorri ziren lagunekin. Ondoren, denon artean, etorkizunerako ideia berriak proposatzen eta iritziak kontrastatzen joan ginen", adierazi dute Gazte Asanbladatik. "Herriko gazte dezente batu ziren bertan eta orain arte batzarretan parte hartu ez duten hainbat gaztek prestutasuna adierazi zuten batzarrotan parte hartzeko", esan dute. "Gaztetxea gazteen beharrizanei erantzuten eta alternatiba sendoak eraikitzen dituen eremua izanda, aurrera jarraitzeko apustua egin dugu autogestioaren eta elkarlanaren bidetik".

Barikuetan, 17:00etan, egingo dituzte batzarrak. Parte hartzera animatu dituzte herriko gazteak. Facebook bidez jarrai daiteke gaztetxearen jarduna *elgetakogaztetxia* kontuaren bitartez.

## OHARRAK

**AZKEN BARIKUA**
Presoen aldeko elkarretaratzea gaur, 20:00etan, plazan.

**MAGIA MOSTRA**
Gaur hasita Elgetako XI. Magia Mostra. Ikus 30. orria.

**MENDI IRTEERA**
Kantsatzek antolatuta, domekan, irteera Aiako Harrira. 08:00etan herriko plazatik.

**BASERRITARRAK**
Domekan, 14:00etan, baserritarren elkarteko kideen bazkaria egingo dute Maialde hotelean.

**EH BILDUK BATZAR IREKIA**
Hauteskundeetako emaitzen balorazioa egin eta aurrera begirakoak aztertzeko batzar irekia deitu du Elgeta EH Bilduk ekainaren 4rako, eguena, 19:00etan, udaletxean

**UDALEKUAK IZEN-EMATEA**
Ekainaren 23tik uztailaren 24ra izango da aurten uztaileko udaleku zerbitzua. Interesatuek udaletxean eman behar dute izena ekainaren 11a baino lehen.

## Gu Geu Elgeta plataformako kideek eskerrak eman eta lanerako gogoz daudela adierazi dute

Pozik daude Gu Geu plataforman: "Eskerrak eman nahi dizkiegu guregan sinistu duten elgetar guztiei. Hilabetean sorturiko plataforma batentzat izugarrizko garaipena da hainbeste elgetarren babesa lortu izana. Gure lana hemendik aurrera herritarrek dauzkaten beharrei erantzutea izango da. Lanerako prest gaude, gogoz eta ilusioz gure betebeharrei aurre egiteko", esan dute.



INTXORTAKO LEHOIAK

## Intxortako Lehoiak Bartzelonan

Elgetatik 28 laguneko taldea abiatu da gaur, barikua, Bartzelonara. Guztiek dute biharko finala ikusteko sarrera. Pankarta erraldoia prestatu dute, eta Camp Noun zabaltzen saiatuko dira. Pankartan *Intxortako Lehoiak Elgeta* irakur daiteke. Esan dute ez dela erraza izango, baina Athleticek finala irabazten badu autobusa antolatuko dutela doan astelehenean Bilbora gabarra ikustera joateko.

**Eugenio Otsoa** | Leintz Gatzagako jarduneko alkatea

# "Talde berriak gure laguntza bermatuta du, nahi duten arte"

- 20 urte pasa egin ditu Udalean lanean, alkate zein zinegotzi
- Lehena, oraina eta geroa bermatuta ikusten ditu Otsoak talde berriarekin

**UBANE MADERA** | LEINTZ GATZAGA

Jaiotzez arrasatearra izan arren, Leintz Gatzagari izugarri emandakoa eta oraindik ere ematen dion pertsona da Eugenio Otsoa. Hala erakusten du lau agintalditan bere alkate jardunak (1987 eta 2000. urte artean eta 2011-2015 agintaldian) eta beste lau urtez izandako zinegotzi jardunak (2003-2007). Hori guztia egin du Otsoak bestelako zeregin publiko batzuekin uztartzen, gainera; Gatz Museoko bisiten gidari-lanak, adibide bat jartzearren. Baina agintaldi hau azkena izango zuela iragarri zuen Otsoak, eta lau urteon amaierara iritsita, gaur egun jarduneko alkate dena azkeneko egunak ditu alkatetzean agintari. "Oraindik jardunean nabil, baina", dio hark, berezkoa duen umore puntu horrekin. Hala ere, domekakoaz eta ostekoaz jarduteko astia ere hartu du:

**Emaitza esku artean, zelako irakurketa egiten duzu?**

Bagenekien bertakoak aterako zirela. Positiboa da. Azken lau agintaldietan lehen aldia da alderdi bakarra aurkezten dena. Aurrekoetan PP ere aurkeztu izan da. Beraz, egoera horrekin lasai geunden. Hemengo taldea atera da eta horrek lehena, oraina eta geroa bermatzen ditu. Hori nahi genuen; eurek izango dute hurrengo lekukoa, eta ikusiko dute ze gauza egin ditugun, onak, txarrak eta hobetzekoak. Eta hortik aurrera, badaukate laguntza bermatuta eurek nahi duen arte.

**Leintz Gatzagako Hautesle Elkartearen kasuan –oraingoa eta datorrena–, dagoeneko hasita zarete lanean; bereziki, non edo ze arlotan?**

Bai, batez ere, gaur egunera arte egin diren gauzak aztertzen. 2015a denon artean gabiltza ikusten, eta ekainera arte egin diren ekimenen gaineko azalpenak, zergatiak... eman, eta hortik aurrera aurrekontuetan dauden gaietan, adibidez, eurek dute zeresan handiagoa guk baino. Guk esplikatu egin genezake, baina, azkenean, eurak asmo jakin batzuekin eta ilusioarekin datoz, eta hemendik aurrerakoa eurek hausnartu beharko dute.



Eugenio Otsoa. | UBANE MADERA

**"Nire desioa beti izan da abertzaleen artean konponbideak topatzea"**

**Edozein modutan, lehen aipatu duzu laguntzen jarraitzeko gertu zaudetela; ekainaren 13ko aginte aldaketa gauzatu ostean ere bai?**

Guk aurrekoengandik izan genuen laguntza; eskertzekoa da. Haien aurrekoengandik ere bai. Eta nik uste dut hori hemen (Gatzagan) badela ohitura bat. Orain arte ez da kontrakorik gertatu, eta hori da inportantea. Herriarekin lotutako gauza asko egoten dira ikasteko: ohiturak, jaiak... segituan etorriko direnez, gainera, aurretik ditugun esperientziak baliaturik, horiek guztiak errazagoak izango dira talde berriarendako: eremuak ezagutu, mendiak ezagutu, hemen dauden jarduerak ezagutu, urak... behintzat, horiek guztiak gaur egun zelan dauden ikus dezatela.

**Horrenbeste urtez alkate –eta zinegotzi– zereginetan ibili ostean –berezko lanbidearekin uztartuta–, zela ikusten duzu zure etorkizun pertsonala?**

63 urte ditut, 64 urtera noa. 60ko hamarkadan sartuta, hirugarren adinera noala ikusten dut, eta urteetan alde batera utzita ditudanak landu nahi nituzke: kirol apur bat egin, paseoak, gauzak lasaixeago hartu... hori da nire nahia, nagi puntua ez bazait sartzen... Izan ere, hori ere sartzen da... [Barre]

**Besterik gura baduzu gaineratu...**

Euskal Herri osoari begira, neure irakurketa eta desioa beti izan da abertzaleen artean konponbideak topatzen ibiltzea, horrela ibili gara eta ibiliko gara. Eta animatu egin nahiko nuke.




*Gatza* liburuaren azala. | GOIENA

## Herritarren erretratu bilduma, kalean

**U.M.** | LEINTZ GATZAGA

Lau urteko lanaren emaitza aurkeztu zuen atzo, eguena, Jose Felix Diaz de Tuesta argazkilari arrasatearrak. *Gatza: Leintz Gatzagako herritarren erretratuak* izenburua jarri dio, hain justu, berorrek esaten duen moduan bertako bizilagunei ateratako erretratuz osatutako liburuari. 200 ale argitaratu dituzte, eta salgai jarriko dute. 128 orrialdez osatutako lana da.

Liburuaren aurkezpenarekin batera, argazki erakusketa inauguratu zuten; hain zuzen ere, liburuan jaso ez diren argazkietako batzuekin landutako erakusketa da kultura etxean ikusgai dena atzo ezkero.

Debagoieneko
**PROFESIONAL LIBERALAK**

**ABOKATUAK**

**BERNARDINO MAIZTEGI**
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

**BEGOÑA LASAGABASTER**
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

**RAFAEL ARANBURU**
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

**ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)**
ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10-pab.
Tel.: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

**AHOLKULARITZAK**

**ANDRA MARI AHOLKULARITZA**
ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

**ASEGI AHOLKULARIAK**
ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
Tel.: 943 71 25 49
Faxa: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

**TBG AHOLKULARITZA**
BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

**ZENBAKI AHOLKULARIAK**
ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
Tel.: 943 71 21 12
Faxa: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

**ARKITEKTOAK**

**BIARK ARKITEKTOAK**
ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

**ARKITEKTO TEKNIKOAK**

**JESUS LASKURAIN PEREZ**
BERGARA / Zurradero 4
Tel.: 943 76 53 53

**ETXE ADMINISTRAZIOAK**

**URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK**
ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea
Tel.: 943 79 51 25
Faxa: 943 71 19 85
uribesalgo@telefonica.net

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.

FUTBOLA

# 'Play-off' faseko lehena domekan Getxoren kontra

## Aretxabaletak igoera fasea jokatuko du, aste barruan Bizkaiko taldeen jarrera ikusi ostean

XABIER URZELAI | ARRASATE

Aretxabaletak Hirugarren Mailara igotzeko *play-off* fasea hasiko du domekan, Bizkaiko ligan bigarren sailkatu den Getxoren kontra (16:30, Ibarran). Aste barruan izandako batzarrek garbi erakutsi dute Bizkaiko taldeak ez daudela gertu 21 taldez osatutako liga batean jokatzeko, edo, beste modu batean esanda, ez daudela gertu talde gipuzkoar baten igoera zuzena onartzeko. Hori ikusita, UDAk igoera faseaz "gozatzeko" erabakia hartu du. Faseko hirugarren taldea Gasteizko Elgorriaga izango da.

**Zaleen babesa domekan**

Aretxabaletak, Getxok eta Elgorriagak jokatuko dute hirugarren mailara igotzeko *play-off*-a. Eta lehenengo norgehiagoka, teorian, faseko indartsuenen artekoa izango da: Aretxabaleta eta Getxo. Hala, Gorka Valleren mutilek Bizkaiko taldea izango dute domekan aurrean: "Berez, Bizkaiko multzoa Gipuzkoakoa baino indartsuagoa izaten da, baina, dakigunagatik, Aretxabaleta eta Getxo parean dauden bi talde gara. Eurek guk baino jokalari gutxiago erabili dituzte denboraldian zehar, hamahiru inguru, eta gure entrenatzaileak hogei jokalariren artean banatu ditu minutuak", adierazi du UDAko presidente Adrian Merinok. "Baina gauza bat da aurreikuspenek zer dioten eta beste bat da berdegunean zer gertatzen den. Dakigun gauza bakarra da domekan Aretxabaletak zale askoren babesa izango duela harmailetan". Bizkai aldetik ere zale asko erakarriko ditu Getxok, berez da-eta jarraitzaile asko dituen kluba. Horrenbestez, giro paregabea izango da domekako futbol partidurako.



Aretxabaletako jokalariak ligan egindako gol bat ospatzen. | IMANOL SORIANO

**Elgorriaga, ustez, makalena**

Getxoren kontrako partiduaren ostean, ekainaren 7an, UDAkoak Gasteizera (Betoño) joango dira Elgorriagaren kontrako partidua jokatzera: "Partidu horretarako autobusa jarriko dugu", eta azken norgehiagokan, ekainaren 14an, bizkaitarrak eta arabarrak izango dira zein baino zein gehiago, eta UDAk atseden izango du: "Aurreikuspenak baino ez dira, baina hor ere gauza bera: berez, Arabako multzoa Bizkaikoa edo Gipuzkoakoa baino makalagoa da, baina partidu batean edozer gerta daiteke".

**Igoera ez da segurua**

*Play-off*-a irabazteak, baina, ez du Hirugarren Mailarako txartela ziurtatzen, horretarako goiko kategorian hutsune bat egon behar da-eta: "Hainbat karanbola izan behar dira goiko mailetan. Faseaz gozatzera mugatuko gara".

ESANAK

"Bizkaitarren ezezkoa ikusita faseaz gozatuko dugu; domekan zaleen babesa izango dugu harmailetan"

"Aretxabaletaren eta Getxoren artean indarrak parean daude; ikusi egin beharko da gero berdegunean"

ADRIAN MERINO | UDA-KO PRESIDENTEA

### Bizkai aldetik ezezkoa

Martitzenean Bizkaiko federazioak eta Bizkaiko taldeek ezezko borobila eman zuten. Gipuzkoako presidente Juan Luis Larrearen proposamena zen Ondarroako Aurrera –hirugarren mailara igo den taldea– Bizkaiko federaziora pasako denez Gipuzkoako ligan bigarren geratu den ordezkaria ere zuzen igotzea. Aretxabaleta zen egoera horretan zegoen taldea, baina bizkaitarrek ez dute halakorik onartu: "Larreak batzarrean emandako azalpenak arrazoizkoak izan ziren, baina bizkaitarrek lehenagotik hartua zuten erabakia", azaldu dio GOIENAri UDAko presidente Adrian Merinok. "Gura barik saltsaren erdian egon gara gu, baina, ezezkoa ikusita, faseaz gozatzea da gure asmoa".

PILOTA



JULEN IRIONDO

# Txapelketa borobila; finalak ez horrenbeste

Astelehen iluntzean jokatu zituzten Bergara Hiriko finalak ez ziren politak izan. Promesetan Zabalak eta Garmendiak bost tanto baino ez zizkieten egin Elordiri eta Pujanari. Nagusietan, berriz, hainbesteko alderik ez zen egon azken emaitzan, baina pilotariek huts asko egin zituzten. Arteagak eta Gorrotxategik 22-16 irabazita jantzi zuten txapela.

ausolan
auzo lagun

AUZO LAGUN Koop. E. – ARRASATE

Estatutu Sozialen 32. artikuluak dioenaren arabera,
Ohiko Batzar Orokorrerako deia egiten da.

OHIKO BATZAR OROKORRA
Deialdia

Eguna: 2015eko ekainak 6
Ordua: 10:00etan, lehen deialdia
10:30ean, bigarren deialdia
Tokia: Garaia Berrikuntza Gunearen Auditoriuma (Arrasate)

GAI - ZERRENDA

1. 2014ko BATZAR OROKORREKO AKTAREN ONARPENAREN BERRI EMATEA, ETA BATZAR HONETAKO AKTA ONARTZEKO BAZKIDEAK IZENDATZEA
2. KUDEAKETA AZTERTZEA ETA ONARTZEA
   2.1 2014ko Kudeaketa onartzea
   2.2 2015eko Kudeaketa Plana berrestea
3. 2014ko EKITALDIKO KONTUAK AZTERTZEA ETA ONARTZEA
4. SOBERAKIN GARBIEN BANAKETA
5. EKONOMIA ARAUBIDEARI BURUZKO ESTATUTUEN XEDAPENAK
   5.1 Sarrera kuotak eta ekarpena
   5.2 Kapitalari egindako ordainketa
   5.3 IPDK aplikatzeko irizpideak
6. AUDITOREAK IZENDATZEA
7. ESTATUKO GARBIKETA UNITATE PROIEKTUA AZTERTZEA ETA ONARTZEA
8. ORGANO SOZIALETAKO KIDEAK HAUTATZEA
   8.1 Kontseilu Errektorea
   8.2 Zaintza Batzordea
   8.3 Errekurtso Batzordea
9. KONTSEILU ERREKTOREAREN JAKINARAZPENAK
10. MONDRAGON TALDEARI ETA ERKOP KOOPERATIBARI BURUZKO TXOSTENAK.
11. GALDERAK ETA ESKARIAK

Lehendakaria
2015ko maiatzaren 22a



Izarraitz Aloñako jokalariak gertu daude lauko finala jokatzeko. | RAFA ZULUETA

ESKUBALOIA

# Rafa Zulueta: "Zaleen laguntza ezinbestekoa izango da igoerako lauko finala etxean jokatuta"

Euskadiko Txapelketarako azken fasea Oñatin jokatuko dute bihar eta etzi

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

*#aurtenbai*. Hori da Aloña Mendiko Eskubaloi Sailak lauko finala girotzeko bota duen traola. Zozketa bidez izanda ere, aste bukaeran jokatuko du Izarraitz Aloñak Euskadiko Txapelketara igotzeko azken fasea. Oñatiarrekin batera Barakaldo, Sestao eta Tolosa nor baino nor gehiago. Finalerdiak irabazten dituzten bi taldeek lortuko dute igoera.

**Barakaldoren kontra lehena**

Zubikoan jokatzea abantaila da Rafa Zuluetaren taldearendako. "Zaleek asko babestu gaituzte aurten, eta badakigu harmailak bete egingo direla. Hori abantaila da guretzat. Taldea animatzeko eskatzen diegu zaleei, epaileak eta beste taldea alde batera utzita", esan du entrenatzaileak.

Finalerdiak gainditzea da erronka nagusia. Barakaldo menderatuta Euskadiko Txapelketan egongo direlako. "Bizkaitarren kontrako azken partidua oso gogorra eta parekatua izan zen. Gauza asko oso ondo egin genituen, eta beste hainbat gaizki. Horiek zuzendu beharko ditugu".

Erronka horri aurre egiteko gertu ditu jokalariak. Gogotsu daude guztiak. "Antsietatea neurtzen jakin beharko dugu", dio Zulueta entrenatzaileak.

Dani Martins izan ezik, gainerako jokalari guztiak daude jokatzeko moduan.

**Taldea sendoago**

Iaz emaitza gazia izan zuen Izarraitz Aloñak jokatutako igoera fasea. Ez ziren lauko finalerako sailkatu. Ordutik taldeak izan duen bilakaera itzela izan da. "Denboraldi intentsua izan da. Gure jokoa asko sendotu dugu eta talde indartsua garela esango nuke. Iaztik hona jokalariak errepikatzen dira, baina euren maila eta jokoa asko hazi da", diote.

Zaleak eta jokalariak hasi dira sare sozialak berotzen albistearen hasieran aipatutako traolarekin: *#aurtenbai*.

**IGOERA FASEKO PARTIDUAK**

**ZAPATUA**

**16:30** Tolosa–Sestao.

**18:30** Aloña–Barakaldo.

**DOMEKA**

**10:30** Hirugarren eta laugarren lekuetarako lehia.

**12:00** Finala.

ESKOLA KIROLA

# Leintz Eskola Kiroleko azken jaian txapelketak eta opariak nagusi

M.B. | ARRASATE

Leintz Eskola Kiroleko begiraleek eta neska-mutikoek zapatuan, hilaren 30ean, bukatuko dute 2014-2015 ikasturtea. Ekitaldiz betetako azken jaia egingo dute (ikus ondoko egitaraua). Ikasturtean zehar ekintzetan parte hartu duten 1.120 neska-mutikoak elkartuko dira Laubide, Jokin Zaitegi eta Biteri plazetan.

**Kirolaz harago**

Leintz Eskola Kirolaren kudeaketa Leintz bailarako ikastetxeen ardura da 2004-2005 ikasturtea ezkero. Haurren heziketa eta garapen integrala lantzen dute jolasak eta kirola lagun dituztela. Asteroko jarduerez gain, bestelakoak ere egin dituzte: hiruko saskibaloi txapelketa eta Baskoniaren partiduak ikusi.

**AZKEN JAIA**

**10:00:** *Altxorraren bila* LH-1eko eta LH-2ko ikasleendako, herrian zehar.

**10:00-12:30:** Olinpiadak LH-3tik LH-6ra arteko ikasleendako, Laubiden, Jokin Zaitegin eta Biterin.

**12:30:** *Zumba* erakustaldia LHko eta DBHko ikasleekin.

**12:45:** Ekitaldi nagusia. Sari banaketa ekitaldia eta oparien zozketa.

PILOTA

# Bi partidu irabazi beharko dituzte Herri Artekoan aurrera egiteko

M.B. | ARRASATE

Arrasateko pilotariek Herri Arteko Txapelketaren bigarren kanporaketako itzulerako norgehiagokak jokatuko dituzte gaur, egubakoitza, Astigarragan. Aurrera egiteko, gutxienez, bi partidu irabazi beharko dituzte, joaneko emaitzari buelta eman ahal izateko. Uarkapen jokatutako partiduetan 1-2 galdu zuten arrasatearrek: gazte mailako bikote Garate-Egiak bakarrik irabazi zuen. Llodio-Murua kadeteek eta Zuatzua-Bolinaga seniorrek galdu egin zituzten euren lehiak: 18-22 eta 11-22, hurrenez hurren.

**Bi partidu eta tantoak**

Aurreko asteko emaitzak kontuan hartuta, kanporaketari buelta emateko gakoa kadete eta senior mailetako partiduetan egongo da. Derrigor bi norgehiagoka irabazi beharko dituzte, eta, behin hori lortuta, aldeko eta kontrako tantoak hartuko dituzte aintzat.

Astigarragara desabantailarekin joan arren, pilori arrasatearrek ez dute amorerik eman eta aurrera egiteko "esperantza" badute oraindik, nahiz eta Astigarraga taldea Herri Arteko Txapelketa irabazteko hautagai nagusietakoa izan.

TRIATLOIA

# Argider Isastik 'SoplaoMan' lasterketa irabazi du

Argider Isasti oñatiarrak igeriketa, korrika eta mendiko bizikleta batzen dituen *SoplaoMan* lasterketa irabazi zuen. Igeriketan hamar kilometro, korrika 74 kilometro eta mendiko bizikletan 110 egin behar izan zituzten parte-hartzaileek. Guztira, 30ek hartu zuten irteera San Vicente de la Barquera (Kantabria).



ARGIDER ISASTI




Adinaren arabera korrika distantzia ezberdinak egin beharko dituzte. | MIKEL LABAKA

# Gaztetxoendako lehen triatloia Bergaran egingo dute

## Ekainaren 7an egingo dute benjamin, alebin eta infantil mailetako neska-mutikoendako proba

MIREIA BIKUÑA | BERGARA

Antxintxika Triatloi Taldeak gaztetxoendako triatloia egingo du ekainaren 7an. Benjamin, alebin eta infantil mailetako neska-mutikoendako proba izango da. Adinaren arabera distantzia ezberdinak egin beharko dituzte. Antxintxikak helburu bakarra du: "Gaztetxoengan parte-hartzea bultzatu gura dugu, eta, bide batez, triatloia gertutik ezagutzeko aukera izan dezatela", esan du Mikel Labakak.

Dagoeneko egin dute deialdia Debagoieneko ikastetxeetan. Bailarara mugatuko dute parte-hartzea. "Multikirolean diharduten neska-mutiko debagoiendarrek izango dute triatloian parte hartzeko aukera. Lehen aldia izanik, bailarara mugatuko dugu", dio Labakak. Interesatuek ekainaren 2a baino lehen eman beharko dute izena.

**Distantziak**

Triatloi txikiaren parte-hartzaileek bakarka edo erreleboka parte hartu ahal izango dute. "Pertsona berak egin ditzake hiru diziplinak, edo talde berean bi edo hiru pertsona elkartu, eta euren artean probak banatu", esan dute antolatzaileek.

Hauek dira adinaren arabera egin beharreko distantziak: benjaminek 50 metro igerian, 2.000 bizikletan eta 400 korrika; alebinek 100 igerian, 4.000 bizikletan eta 800 korrika; eta infantilek 150 korrika, 4.000 bizikletan eta 800 korrika.

> ESANAK
>
> **"Gazteak triatloira hurbildu gura ditugu"**
>
> MIKEL LABAKA | ANTOLATZAILEA

# Eskoriatza Kirol Elkartearen aldeko jaia egingo dute

## Areto futbol eta saskibaloi sailendako dirua batzeko askotariko ekintzak egingo dituzte

M.B. | ESKORIATZA

Zazpigarrenez egingo du Eskoriatza Kirol Elkarteak denboraldi amaierako jaia. Bihar izango da, zapatua. Indartzen doan ekimena izanik, herritarrek ondo erantzungo dutela espero dute antolatzaileek: "Gutxienez 150 pertsona batu gura ditugu bazkarirako".

Helburua da kirola herritarrengana hurbiltzea eta kirol elkarteko taldeei bultzada ematea. Hain zuzen, areto futbol, mendi, saskibaloi eta pilota sailak batzen ditu Eskoriatza Kirol Elkarteak.

**Jesus Candelas**

Egun osoko egitarauan askotariko ekintzak egongo dira, baina bereziki azpimarratu gura dute Jesus Candelas entrenatzaile ospetsuak egingo duen hitzaldia. Candelas Irango areto futbol selekzioko entrenatzailea da. "Hitzaldi ikusgarriak egiten ditu. Arlo teorikoa eta praktikoa landuko ditu parte-hartzaileekin", diote antolatzaileek.

> EGITARAUA
>
> **10:00:** Beteranoen saskibaloi lehia.
>
> **12:00:** Jesus Candelasen hitzaldia.
>
> **10:00-13:00:** Txistor pintxoak eta sagardo dastatzea Fernando Eskoriatza plazan.
>
> **14:30:** Herri bazkaria.
>
> **16:00:** Umeendako jolasak.
>
> **19:30:** Parrillada.
>
> **21:30:** Errege Kopako finala ikusteko pantaila erraldoia ipiniko dute.


Paella-jana Eskoriatza Kirol Elkartearen iazko jaian. | IMANOL SORIANO




Egun ahaztezina izateko osagai guztiak eskaintzen dituen XIII-XIV. mendeko jauregi ikusgarria.

- Lorategiak.
- Parking handia.
- Ezkonberrien zerbitzura egongo den lantalde zabala.
- 220 gonbidaturentzako tokia
- Zure ezkontza eguneko koktela eta dantzaldia egiteko terraza zabala eta egokia. Bertan ezkontza zibilak ospatzeko leku aproposa.
- Gastronomia zaindua eta aukera zabalekoa…

Ezkontzetan espezializatuta dagoen jatetxea

leku eta egun ahaztezinak

Etxe-Aundi
Hotela · Jatetxea
Torre Auzo, 9 • 20560 OÑATI
Tel.: 943 78 19 56 • Fax.: 943 78 32 90
etxeaundi@etxeaundi.com • www.etxeaundi.com

Eskaintza berezia dugu ezkontzetarako: dena barne duen pack-a

# KULTURA

# Espaloia antzokia hamaikagarrenez magoen aterpe

- Ikuskizunak eta magia tailerrak asteburuan Elgetan
- Nazioartean izen handia duten artistak aurten ere



Adrian Condek *Piccolo Camerino* saioa egingo du gaur, egubakoitza. | J. L. SUAREZ

**A. ARANBURUZABALA** | ELGETA

Gaur hasi eta domeka bitartean, nazioarteko eta Estatuko magoen topaleku izango da Elgeta. Pikupe Produkzioak-en eskutik dator hamaikagarren edizioa, Gasteizko Magialdia antolatzen duen Arabako Ilusionisten Elkartearekin elkarlanean, eta, besteak beste, Udalaren eta Goienaren laguntzarekin.

Kalitatezko mago profesionalak dira guztiak. "Elgeta estimatua da magoen artean, badakite tratu gozoa eta gertukoa jasoko dutela eta aurrean izango duten publikoa magian aditua dela. Hamar urtetako ibilbidea ez da-eta alferrikakoa izan", azaldu du Jose Luis Suarezek, Arabako Ilusionisten Elkartekoak.

### Umore magikoa, hasteko

Gijonen bizi den Adrian Conde argentinarrak zabalduko du aurtengoa. Elgetan izandakoa da; iazko Mostran herriko plazan *Petit Caravan* ikuskizuna egin zuen. "Hego Amerikan, Italian eta Estatuan sari asko eskuratu dituen *Piccolo Camerino*-rekin dator oraingoan. Antzerti-formako magia moduan definitzen dugu; hau da, ikuskizunean zehar istorio bat kontatzen du Condek, magia-trukuak eta umorea erabiliz. Ez dira truku solteak, istorio edo hari bati lotutakoak baizik. Ordubete pasako ezohiko saioa izango da", dio Suarezek.

### Lau mago eta aurkezlea bihar

Biharko gala ere Condek aurkeztuko du. Paper garrantzitsua duela diote antolatzaileek, aurkezlearen lanak bermatzen du-eta sarritan ikuskizunaren kalitatea. Hamar minutu inguruko saioa egingo du bakoitzak eta horiek guztiak lotuko ditu Argentinakoak, magiarekin eta umorearekin baliatuta.

Ordu eta erdi inguruko ikuskizunean, estilo askotariko magia batuko dute: "Mag Marin katalanaren espezializazioa, esaterako, *ilusio handiak* dira. Sandra arrebaren laguntzarekin, pertsonak desagerrarazi edo erditik moztuko ditu, telebistan sarritan ikusi ditugun trukuak gurera ekarrita. Oso gaztea da, baina, era berean, une honetan dagoen magorik aktiboenetakoa da. Sari asko eskuratu ditu Mag Marinek ere, eta Europan, onenen artean dago kokatuta".

Madrildik datorren Los Taps bikotea ere makina bat sari jasotakoa da. Hego Amerikan egiten den magia kongresu garrantzitsuena irabazita, uztailean Italian egingo duten lehiaketan Espainiako ordezkariak izango dira. "Umorezko magia egiten dute. *Quick change* estiloan espezializatutakoak dira, bereziki. Arropak azkar-azkar aldatzen ikusiko ditugu, beraz, besteak beste.

Valentziako Nuel Galan, berriz, trebea da CDak manipulatzen. "Gauza harrigarriak egiten ditu CDekin: desagerrarazi, hegan eginarazi... Estetika modernoa duen saioa da harena".

Objektuak manipulatzen ere abila da laukotea osatuko duen Madrilgo Lautaro magoa. "Garai bateko magoen moduan, kartak eta usoak erabiliz magia klasiko-klasikoa egiten du. Hala ere, ez dugu txisterarekin eta horrelakoekin ikusiko; magia klasikoa bai, baina estetika modernoarekin eta oso pertsonalarekin.

### Sarrerak 'on line' eta leihatilan

Espaloia antzokian eta *Pikupe.com* atarian eskura daitezke gaurko eta biharko ikuskizunetarako sarrerak. Egubakoitzekoak 15 eurotan salduko dituzte –bazkideendako 10 eurotan–; eta biharko galarako, berriz, 18 eurotan –bazkideendako 15 eurotan–. Tailerrak, berriz, doan izango dira.

## MAGIA MOSTRA, EGITARAUA

**29, EGUBAKOITZA**

**22:30** *Piccolo Camerino*, Adrian Conde (Argentina)

**30, ZAPATUA**

**16:30** Familia osoarendako eskulan eta magia tailerrak Udal Aretoan, doan.

**19:00** Magia gala: Mag Marin (Bartzelona); Los Taps (Madril); Nuel Galan (Valentzia) eta Lautaro (Madril).

**31, DOMEKA**

**11:00** Magia eta eskulan tailerrak ume eta gazteei zuzenduta, doan.

**12:00** Tabernetan magia saioak.

## Magia galako protagonistak



**MAG MARIN**
BARTZELONA
**MAGIA ILUSIONISTA**



**LOS TAPS**
MADRIL
**KOMEDIA MAGIKOA**



**NUEL GALAN**
VALENTZIA
**CD MANIPULAZIOAREKIN EGINDAKO MAGIA**



**LAUTARO**
MADRIL
**USOEKIN ETA KARTEKIN EGINDAKO MAGIA**



Jone Alaitz Uriarte, erakusketako komisarioa. | GOIENA

**Jone Alaitz Uriarte** | Erakusketako komisarioa

# "Herriko ondarearen zati txiki bat ikusgai dugu orain, gutxienez"

'Dinbi danba mailuaren hotsa' erakusketak hilabete darama Arrasateko Harresi aretoan ikusgai

**MIREN ARREGI** | ARRASATE

Hilabete pasatxo da errementariaren ofizio galduaren gaineko erakusketa ireki zutenetik Arrasateko Harresi aretoan, Bixente Barandiaran herriko azken errementariaren bilduma oinarri. Tarte honetan zer-nolako harrera izan duen jakin guran jo du GOIENAk Jone Alaitz Uriarte erakusketako komisarioarengana.

**Hiabete erakusketa zabaldu zenetik; zer-nolako harrera ari da izaten?**

Oso pozik gaude alde horretatik. Egunero jaso izan ditugu bisita dezente eta jendearen komentarioak oso positiboak izan dira. Pozik gaude egindako lanarekin eta lan hori ematen ari den emaitzekin.

**Jende asko joan da ikustera?**

Ez ditugu datu zehatzak atera, baina eguen eta zapatuetan egoten da zabalik eta batez bestekoa hogei pertsonakoa da.

**Zein profileko jendea da?**

Gehienak erretiratuak eta adineko jendea; asko, Bixenteren ingurukoak, hura ezagutu zutenak. Arrasateko jendea etorri da, gehienbat, baina Debagoienekoa ere bai, eta Bilbotik eta Gasteiztik ere etorri dira.

**Zerk ematen dio bisitariari atentzio handien?**

Jendeak bereziki nabarmentzen du erakusketaren garrantzia. Askok diote bazela ordua Arrasaten horrelako zerbait egiteko. Herriak oso historia aberatsa du eta falta zen halako erakusketa bat. Inguruko herrietan badira museo eta erakusketa iraunkorrak, eta, hori horrela, jendeak pozik hartu du. Orain, gutxienez, badugu herriko ondarearen zati txiki bat ikusgai.

**Ondare hori mantendu eta erakusgai ipintzeak zein garrantzi du?**

Niretzat oso garrantzitsua izan da; izan ere, Arrasateko historia orokorrean ezagutzen nuen, baina lan honetarako ikerketa lan handia egon da eta asko disfrutatu dut ikusten Arrasatek zer -nolako historia aberatsa izan duen eta gaur egun daukaguna oso antzinatik datorren zerbaiten lekuko dela. Ibilbide historiko hori egitea, dokumentatzea eta artxiboen eta argazkien bitartez ilustratzea oso lan polita izan da.

**Historia hori kasu honetan herriko seme baten lanaren bitartez egin da, gainera.**

Errementariaren lana ez zen ofizio isolatua eta Bixente da oso antzinatik datorren tradizio baten azken katea. Erakusketan ikusten da gutxienez XIII. mendetik landu izan dela Arrasaten burdina. Erdi Arotik datorren tradizio baten azken adibidea da Bixente Barandiaran, eta oso garrantzitsua eta pisutsua da. Artisau eran egiten zuen lan hori oso antzinatik datorren zerbait delako.

**Barandiaranen bilduma, baina, erakusketan azaltzen dena baino askoz zabalagoa da.**

657 piezaz osatuta dago bilduma eta erakusketan heren bat bakarrik ipini dugu. Saiatu gara funtsezko makina eta tresna guztiak ekartzen, baina egia da beste horrenbeste gelditu direla kanpoan. Bixenteren bilduma, bestetik, Udalaren bilduma industrialaren zati txiki bat da.

**Zu egon zara orain arte gidari lanetan; utzi egingo duzu, baina.**

Nik bukatu egingo dut, baina beste pertsona bat kontratatuko da dinamizatzaile moduan, eta bisita gidatuak egin ditzan. Aurrerantzean ere, bestelako ekintzak egingo dira erakusketaren bueltan, eta, beraz, pertsona bat egongo da erakusketan.

**"Jendeak oso positiboki baloratu du erakusketa; gu ere oso pozik gaude"**

# Udako ikastaro monografikoak antolatu ditu Herrixa Dantzan ekimenak

Hamar orduko ikastaroak izango dira; Debagoien osoari zuzenduta daude

**M.A** | ARRASATE

Patxi Monterok zuzenduta, ikastaro monografikoak antolatu ditu Herrixa Dantzan ekimenak udara begira. Ikasturtean zehar egiten diren dantza saioetan parte hartu ezin dutenei eta dantzetan sakondu gura dutenei zuzenduta daude ikastaroak.

Ikastaroek astebete iraungo dute; ekainean, uztailean eta irailean egingo dira eta egunean bi orduko saioak izango dira; guztira, beraz, hamar ordu. Aste bakoitzean gai monografiko bat landuko dute, astelehenetik ostiralera, esan bezala, egunean bi orduz. Izen-emate epea zabalik dago eta horren arabera zehaztuko dira ordutegia eta ikastaroak egingo diren tokia. Interesatuek *www.herrixadantzan.eus* webgunean dute informazio guztia; *herrixadantzan@gmail.com* helbidera idatzita edo 943 78 90 70 telefonora deituta ere eskuratuko dute informazioa. 50 euro kostako da.



Herrixa Dantzan ekimenean parte-hartzaileak dantzan. | GOIENA

**Monografiak**

Ikastaroak, esan bezala, monografikoak izango dira, eta horietan, honako dantza hauek erakutsiko dituzte; dantza jauziak –oinarrizkoa eta sakontzea–, mutil dantzak –ezinbestekoa da dantza jauziak jakitea–, dantza lotuak, dantza solteak, ingurutxoak eta kontradantzak eta larrain-dantza. Azken eguneko saioaren ostean afaria eta dantzaldia egingo dituzte.






Martitzenean egin zuten Trikiti Egunaren aurkezpena. | ANDER LARRAÑAGA

# Debagoieneko XI. Trikiti Eguna ospatuko dute bihar Aretxabaletan

## Leizarra musika eskola izan da hamaikagarren edizioa antolatzeko ardura hartu duena

**MAITE TXINTXURRETA** | ARETXABALETA

Duela bederatzi urte bezala, aurten ere Aretxabaletan bilduko dira ibarreko trikitilari eta pandero-jotzaileak kaleak musikaz betetzeko asmoz. Guztira, 300 ikasle inguruk hartuko dute parte biharko ekimenetan; tartean, baita Soraluze eta Zumarragatik etorritakoak ere.

Trikiti Egunaren helburua, ondo pasatu eta pasaraztea gain, bailarako eta inguruko herrietako trikiti eskolen arteko harremana sendotu eta jende berri gehiago erakartzea da. Hala azaldu zuen Leizarra eskolako zuzendari Mariatxen Urkiak aste honetako martitzenean zentroan bertan eginiko aurkezpenean.

### Ekintzak egun osoan

Goizean hasiko da biharko festa-egitaraua. Hasteko, 10:30ean, hamarretakoa egingo dute herriko lau puntutan banatuta: Murubide plazan, Basotxo inguruan, Iralabarri plazan eta Araba ibilbideko plazan.

Horren ostean, berriz, musikari guztiek elkartu eta kalejira erraldoia egingo dute Ilargi plazatik abiatuta herriko plazaraino. Han, taldekako musika emanaldiekin jarraituko dute, eta herri bakoitzeko taldeek pieza bana joko dute.

Gero, 14:30ean, bazkaria egingo dute guztiek batera, eta, azkenik, arratsaldeko bostetatik aurrera, Bide Batez taldearen erromeria izango da, trikiti eta pandero doinuz jositako egunari amaiera giro onean emateko.

Leizarra musika eskolako antolatzaileek adierazi dutenez, eguna antolatzeko "lan gogorra" egin behar izan dute, baina "ilusio handiz" aritu dira.

### Lekukoa Bergarari

Iaz Arrasatek Aretxabaletari pasatu bezala, aurten Bergarako musika eskolak jasoko du lekukoa. Haientzat ere ez da lehen aldia izango, eta prest ikusten dute euren burua.

Aritz Alustiza izango da datorren urteko Trikiti Eguneko antolatzaileetako bat, eta hura ere Aretxabaletan izango da bihar. Adierazi duenez, "ilusioz" hartuko dute beste behin anfitrioi izateko ardura: "Hirugarren edizioa ere Bergaran ospatu zenez, badugu eskarmentua jadanik".

Musika eskolan irailetik aurrera hasiko dira datorren urtera begira lanean.

### 'Gosariak'-en agurra bihar Bonberenean

Arrasateko Gose musika taldeak bere lana aurkezteko azken kontzertua emango du bihar, 22:30ean, Tolosako Bonberenean. Proiektu berezia izan da *Gosariak*, elkarlanean burutu baitute. Diskoko letra guztiak Joseba Sarrionandiak idatzi ditu, hark taldekoei hala proposatuta, eta ilustrazioak Iñigo Arregi eta Juan Luis Goikolea artista arrasatearrenak dira. Goseko Iñaki Bengoaren esanetan, lan handia egin behar izan duten arren, "esperientzia oso aberasgarria" izan da eta taldean lan egiten ikasteko balio izan die. Sarrionandiarekin aritzea "ohorea" izan dela gaineratu du Bengoak.

### Tobera egingo dute ekainaren 11n Huhezin Sustrai Colinarekin

Ikasleek auzitara eramango dute Eskoriatzako Huhezi fakultatea, Euskara batzordeak hilaren 11rako antolatu duen toberan. 10:15ean hasiko da antzezlana, eta ordu erdi inguruko iraupena izango du, eskolen atsedenaldian egingo baita. Bertako ikasleak arituko dira aktore lanetan eta epailea, berriz, Sustrai Colina bertsolaria izango da. Azken horrek epaia bertsoz inprobisatuko du momentuan. Diego Egizabalek abokatu lanak egingo ditu, fiskala Josu Zubia izango da eta idazkaria, berriz, Miren Deba. Iñaki Urruzola irakaslea arduratuko da tobera zuzentzeaz.

# Aurtengo Ostegun Bidaiariak argazki lehiaketa ekainaren 4an hasiko da, eguena

## Parte-hartzaileek herriko lau tabernatan aurkeztuko dituzte euren bidaien diaporamak

**M.T.** | ARRASATE

Hirugarren edizioa izango du Ostegun Bidaiariak lehiaketak ekainaren 4an hasita. Aurten, lau parte-hartzaile aurkeztu dira, eta datozen eguenetan euren bidaia argazkiak aurkeztuko dituzte, 21:30ean, Aretxabaletako hainbat tabernatan. Orain arteko edizioetan bezala, Udalak eta Arteman kooperatibak elkarlanean antolatu dute ekimena.

Aurkezpen bakoitzean, publikoak botoa eman ahal izango du, hiru arlo baloratuta: azalpena, argazkien kalitatea eta bidaietarako ideia iturri izatea. Irabazleak 100 euroko saria jasoko du.

Antolatzaileen esanetan, aurreko edizioetan ekimenak oso harrera ona izan du herrian, eta aurten ere hala izatea espero dute. "Ostegunetako giroa sendotzea da helburua", Artemaneko Gorka Zubizarretaren esanetan.

### Lau bidaia, hamaika bizipen

Lehendabiziko diaporama-pasea datorren eguenean izango da, Haizea tabernan. Bertan, Zigor Lasagabaster eta Maria Caro aretxabaletarrek 2012ko irailean abiatuta Zeelanda Berriraino egin zuten bi urte eta erdiko bidaiaren argazkiak konpartituko dituzte bertaratzen direnekin.

Ekainaren 11n, berriz, Mirari Arandoren eta Koldo Balantzategiren txanda izango da. Bata Aretxabaletakoa da eta bestea, berriz, arrasatearra. Orly tabernan egingo dute aurkezpena. Bikotea Hego Amerikan, Asian eta Ozeanian izan zen Round the World bidaia txartelarekin.

Haritz Lazkanoiturburu mondragoetarrak hilaren 18an Dagda tabernan proiektatuko ditu bere argazkiak. 2011n hasita, Hego Amerika zeharkatzen eman zituen bi urte, eta jarraian Ozeanian ibili zen urte eta erdiz. Azkenik, Asian beste urtebete egin zuen.

Azken diaporama sortaren izenburua *Thailandia barnerantz* da, eta Joseba Gabilondo eskoriatzarrak aurkeztuko du ekainaren 25ean Urbaltzen. Iaz izan zen Gabilondo Asiako herrialdean, norberaren barnealdea ezagutzeko eginiko egonaldian.

Lehiaketaren irabazlearen izena uztailaren hasieran emango dute aditzera antolatzaileek.



Maria Caro eta Zigor Lasagabaster parte-hartzaileen argazkietako bat. | ZIGOR LASAGABASTER ETA MARIA CARO

**Miren Fernandez** | Komunikatzaile bisuala

# "Ikusmen bidezko pertzepzioa entzutezkoa baino eraginkorragoa da kontzeptuak barneratzeko"



Eskuz zein gailu elektronikoekin egiten du lan Fernandezek.

MAITE TXINTXURRETA

**MAITE TXINTXURRETA** | BERGARA

Miren Fernandez (Bergara, 1992) marrazkilaria eta komunikatzaile bisuala da. Make It Visual enpresa sortu zuen lagun batekin batera duela hiru urte, eta bertan murgilduta dabil gaur egun. Ideiak irudi eta eskemen bidez komunikatzea da haren lana, eta makina bat proiektutan parte hartu du dagoeneko. Lidergo, Berrikuntza eta Ekintzailetza Gradua amaitu zuen iaz, eta orain, master bat egiten dihardu.

**Nola sortu zen Make It Visual?**

Unibertsitateko hirugarren urtean San Frantziskora (AEB) egin genuen bidaia. *Visual thinking* deritzonaren sorlekua da, eta 30 urte daramate hura lantzen. Bertan ikastaro batzuk jaso genituen, eta, besteak beste, aitzindari den The Grove enpresa bisitatu genuen. Asko erakarri gintuen, eta orduan hasi ginen proiektua martxan jartzen; edozelan ere, poliki-poliki garatzen joan gara, eta esan daiteke aurten egonkortu egin dela.

**Zer egiten duzue, zehazki?**

Irudi bidezko komunikazioa lantzen dugu, hainbat modutan. *Graphic recording*-aren bidez, esate baterako, hitzaldi edo aurkezpenak ulergarriagoak egiten laguntzen dugu. Horretarako, hizlariak dioena momentuan bertan eskema modura marrazten dugu, mural antzeko bat osatuta. Horretaz gain, bideo edota dokumentu bisualak ere egiten ditugu, baita ikastaroak eman ere.

**Nola laguntzen diote irudiek komunikazioari?**

Frogatuta dago ikusmen bidezko pertzepzioa entzutezkoa baino eraginkorragoa dela kontzeptuak ulertu eta barneratzeko. Irudien bidez ulermen prozesua azkartzea eta ideiak memorian denbora luzeagoz gordetzea lortzen dugu.

**Urduri jartzen zara aurkezpenetan?**

Hasi aurretik beti izaten dut urduritasun puntu bat. Azken finean, ezin da aurrez jakin nola joango den prozesua, eta sarritan inprobisatu egin behar da. Baina margotzen hastean pasatu egiten zait.

**Nola lortu duzue Make It Visual ezagutzera ematea?**

Egia esan, oraindik ez dugu arlo hori askorik landu. Webgune bat daukagu eta batzuek bertara idazten digute, baina ahoz ahoko transmisioa izan da batez ere bezeroak ekarri diguna.

**Nolako lekuetan aritu izan zara lanean?**

Basque Culinary Centerren izan gara eta Mondragon Taldearekin eta Soziolinguistika Klusterrarekin lan egin izan dugu, besteak beste, baina baita maila txikiagoan ere: aholkularitza-enpresendako bideoak egiten, adibidez. Europa mailan, Suitzan eta Finlandian aritzen gara, batez ere ekintzaileei laguntzen. Eta Txinan eta Indian aurkezpenak eta ikastaroak egin izan ditugu, Unibertsitatetik, bertan izan garenean. Hainbat arlo jorratzen ditugu: hezkuntza, enpresa...

**Ezinbestekoa da marrazkilari ona izatea?**

Lagungarria da, noski, baina ez da derrigorra artista izatea. Garrantzitsuena horrenbeste nahasten diren ideia guztiak prozesatu eta irudi batez islatzea da. Hori egiteko gai izan ezean, ezinezkoa da lana ondo egitea, marrazkilari aparta izanda ere.

**Master bat egiten diharduzu orain.**

Bai; marketin, publizitate eta diseinu grafiko masterra egiten dihardut Internet bidez, eta asko ikasten ari naiz. Master hori aukeratu nuen, egiten dudanerako baliagarria izango zelakoan; izan ere, *visual thinking* (pentsamendu bisuala) deritzonari lotutako lan asko eskuzkoak dira, baina beste asko digitalak, eta arlo horretan nire burua ez nuen behar beste prestatuta ikusten. Horrenbestez, horretan hobetu nahi dut orain.

**Bidaiaria ere bazara.**

Bai, asko gustatzen zait bidaiatzea. Gurasoek umetatik eraman izan naute kanpora oporretan, eta gustua hartua diot. Gainera, ikasi dudan graduari esker egonaldi luzeak egin ditut hainbat tokitan, eta kultura asko ezagutzeko aukera izan dut.

**Asian, Afrikan, Europan eta Amerikan izan zara.**

Bai; orain, Ozeania-edo bisitatu beharko dut...

## PERTSONALA

**Gustuko janari bat:** Arroza.

**Ezagutu nahiko zenukeen toki bat:** Asia, orokorrean.

**Musika talde bat:** Esne Beltza.

**Kolorerik gustukoena:** Urdina.

**Bisitatu duzun toki bat:** India.

**Errotuladoreak ala ordenagailua?** Biak.

**Liburu bat:** Viktor Frankl-en *Man's search for meaning* (Gizakia zentzu bila).

**Zaletasun bat:** Bidaiatzea.

**Amets bat:** Gustatzen zaidan horretatik bizi ahal izatea.

## 1. ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Aramaio.** Arraga auzoan baserria salgai, lursailarekin. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 615 71 02 07 edo 615 70 59 96

**Bergara.** Etxebizitza salgai erdigunean, Burdinaten. Hiru logela, egongela, sukaldea eta bi komun, trastelekua eta igogailua. Garajea aukeran. Guztiz jantzita eta bizitzera sartzeko moduan. Argitsua. 93 metro koadro. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 696 99 25 01

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Erguin kalean etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela. Berritua, jantzia eta berokuntzarekin. Egoera onean. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 617 17 18 23

**Arrasate.** Erguinen, Udalpe kalean, etxebizitza ematen da errentan. Guztiz jantzia. Egoera onean. Bi logelakoa. 17:00etatik aurrera deitu zenbaki hauetara: 620 15 15 08 edo 943 78 70 07

**Arrasate.** Ferrerias kalean logela bateko etxebizitza ematen da errentan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 619 34 88 52

**Arrasate.** Hiru logelako etxebizitza ematen da errentan unibertsitatetik gertu, Munarren. Igogailua eta berokuntza zentrala. Guztiz jantzita eta dena kanpoaldera begira. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 659 44 86 79

**Bergara.** Erdigunean etxebizitza ematen da errentan. Bi logelakoa. Igogailua. Jangela-egongela handia. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 688 68 33 81

**Conil de la Frontera (Cadiz).** Bi etxebizitza ematen dira errentan opor sasoirako. Bata bi logelakoa eta bestea hirukoa. Hondartza ondoan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 653 73 34 57 (Rosa Mari).

**Pineda (Tarragona).** 65 metro koadroko etxebizitza ematen da errentan. Terraza handia eta altzariz hornitua. Hondartzatik 200 metrora. Urte osorako edo uda sasoirako. Asteko, hamabost eguneko eta hilabeteko tarifak. Harremanetarako, deitu 634 42 13 70 zenbakira edota idatzi honako helbidera: oskar.carrascal@gmail.com.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Etxebizitza behar dugu errentan. Erdigunean eta bi logelakoa bada, hobeto. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 634 84 41 94

**Arrasate.** Pertsona arduratsua naiz eta lanean ari naiz. Bi logelako etxebizitza txikia hartuko nuke errentan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 722 45 33 59

**Baserri bila.** Bikote arrasatearra baserri bila. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 680 34 29 60 edo 699 28 99 06

**Bergara.** Etxebizitza errentan hartu nahi dut. Presazkoa da eta gehienez 400 euro ordain ditzaket. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 689 69 79 86

**Bergara.** Bergarako bikote gazte bat gara eta etxebizitza bat errentan hartuko genuke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 678 47 43 54

**Bergara.** Etxebizitza behar dut errentan. Urgentea da. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 696 84 19 51

**Bergara.** Igogailua duen etxebizitza behar dut errentan. Logela bat edo bikoa. Hilean 400-500 euro ordain ditzaket. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 697 86 48 91

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate edo Bergara.** Neska euskalduna logela bila, Arrasaten edo Bergaran. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 688 82 69 68

**Bergara.** Mutil arduratsuak logela edo apartamentu txikia behar du errentan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 610 34 97 88

**Logela bila Oñatin.** Oñatin logela bila nabilen neska arduratsua naiz. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 688 64 19 25

**Oñati.** Logela ematen da errentan etxebizitza berri batean, erdigunetik gertu. Wifi konexioarekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 656 74 29 49

## 4. LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Arrasate.** Gizon jator eta euskalduna behar da, etxean bertan bizi izaten, pertsona adindun bat zaintzeko domeka arratsaldetik egubakoitz goizera arte. 619 18 12 81 edo 676 64 10 22

**Elgeta.** Emakume nagusi bat zaintzeko neska euskalduna batbehar da, etxean bertan bizi izaten. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 619 68 38 90

**Etxeko laguntza.** Emakume euskalduna behar da etxeko lanak egin eta jatorduetan adineko emakumea atenditzeko, Arrasaten. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 669 10 14 77

**Zaintzailea.** Pertsona bat behar da goizetan ordu batez eta iluntzeetan beste ordu batez, emakume heldu bat zaintzeko. Interesatuok deitu telefono honetara: 696 12 46 40

### 402. ESKAERAK

**Arrasate, Bergara edo Oñati.** Erizain laguntzailea gertu nagusiak zaintzeko. San Juan de Diosen eta Aita Menninen lan egindakoa naiz. 943 78 62 19 edo 639 66 57 88

**Arrasate.** Lana behar dut. Nagusiak zainduko nituzke etxean bertan bizi izaten, egunez edota orduka. Umeak zaindu edo garbiketak egiteko ere gertu nago. 603 33 50 64 edo 682 31 97 37

**Bergara, Antzuola edo Arrasate.** Neska gertu arratsaldetan ume eta nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Interesatua egonez gerodeitu zenbaki honetara: 696 84 19 51

**Bergara.** Emakume bergararra gertu ume eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta informe onak ditut. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 610 34 97 88

**Debagoiena.** Erizain laguntzailea den esperientziadun emakumea pertsona nagusiak zaintzeko prest. Etxean bizi izaten, egun osoz edo orduka. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 618 93 59 29

# ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.eus | www.goiena.eus/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:** PREZIO BEREZIAK GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

**- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.**

Astebeteko prezioa: 17 euro / 15 euro Goiena Klubeko bazkideentzat (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
Iragarkiak Goiena paperean eta Goiena.eus-en argitaratuko dira.

**- Profesionalen moduluak.**

Modulo bakarra: 22 euro (+BEZ).

**1. ETXEBIZITZAK**
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

**2. GARAJEAK**
201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

**3. LOKALAK**
301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

**4. LANA**
401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

**5. IRAKASKUNTZA**
501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

**6. MOTORRA**
601. Saldu
602. Erosi
603. Errentan eman
604. Bestelakoak

**7. ANIMALIAK**
701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

**8. DENETARIK**
801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805.Trukatu
806.Galdu
807.Aurkitu
808. Bestelakoak

**9. HARREMANAK**
901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

KOROSTI INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA:**
- Aranerreka 77m², 3 logela, trastero eta garajearekin. PREZIO JEITSIERA. 170.000 €
- Matxiategi 80 m², 3 logela. Berriztuta. Terrazarekin. 200.000 €
- Bolun 135 m²ko Elkartea salgai. Ekipatua. 123.600 €.
- Angiozarren erretegia alokagai. Erretegi bezala erabiltzeko dena ekipatua eta martxan.
- San Anton Abad 71 m², 3 logela. 2 aparkaleku eta txokoarekin. 85.000 €
- San Lorenzo 85 m², 3 logela, garajea eta trastelekuarekin. 150.000 €
- Espoloia 95 m², 3 logela. Trastelekuarekin. Garajea aukeran. 235.000 €
- Irizar pasealekua. 3 logela, igogailuarekin. 200.000 €
- Simon Arrieta 68 m², 2 logela, 80 m²ko terrazarekin. 132.600 €
- Simon Arrieta 69 m², 3 logela. 20 m²ko terrazarekin. 107.100 €
- Ibargarai 73 m², 3 logela. 235.000 €
- Zubieta 110 m², 3 logela. Hortua, lokala eta trastelekuarekin. 95.000 €
- Fraizkozuri 162 m², 4 logela. Trastelekuarekin.
- San Pedro 73 m², 3 logela. 13 m²ko terrazarekin. 115.000 €
- San Antonio 86 m². 3 logela, trastelekua eta garajearekin. Igogailua. 204.000 €
- Angiozar 170 m², duplexa. Garajea, txokoa eta 180 m²ko lur sailarekin.
- Artekale 47 m², 2 logela. Berriztua. Trastelekuarekin. 100.000 €
- Barrenkale 113 m², 3 logela, duplex berria. Igogailuarekin.
- Masterreka 72 m², 2 logela, duplexa. Trastelekuarekin. Berria estrenatzeko. 150.000 €
- Zubiaurre 70 m², 2 logela. Erabat berriztua 180.000 €
- Simon Arrieta 82 m², 3 logela. Igogailuarekin. 160.000 €
- Ibargarai 57 m², 2 logela, oso ondo. Garajearekin. 215.000 €
- Bidekurutzeta 71 m², 2 logela, erabat berriztua. Igogailua eta terraza haundiarekin. 204.344 €
- Angiozar 60 m², 2 logela, erabat berriztua. Trastelekuarekin. 92.000 €
- Zubiaurre 104 m², 2 logela. Berria. Igogailua. Trastelekua, Terrazarekin.
- Martoko 60 m², 2 logela, berogailua eta igogailua. 60.000 €
- Aranerreka 79 m², 3 logela, berogailua, trastelekua. Garajea aukeran. 164.850 €
- Bidekurutzeta 65 m². 2 logela. Trastelekua. 85.000 € PREZIO JEITSIERAREKIN
- Matxiategi, 115m², 3 logela, trastelekua eta balkoia. Berriztua. Oso ondo.

**ANTZUOLA:**
- Sagasti 140 m², duplexa. 250.000€
- Sagasti 90 m², 3 logela. Oso ondo. Garajearekin. 242.050€
- Beheko Auzoa 60 m². 2 logela. Oso ondo. Prezio jeitsierarekin.
- Errekalde 94 m². 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 120.202 €
- Aiherra 83m². 3 logela. Igogailua eta balkoia. Oso ondo. Prezio ona.

**SORALUZE:**
- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri, Loralde eta Rekalde. Etxe onak.

**ELGETA:**
- Torrealdea 77 m². 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iturbe, adosatua 150 m² + 45 m² garajea + 90 m² lursaila.

**OSINTXU:**
- Osintxu 85 m² 3 logela. Igogailua. Berriztua. 130.000 €. AUKERA BIKAINA.

**Debagoiena.** 26 urteko neska euskalduna, erizain laguntzaile tituluduna, nagusiak zaintzeko gertu. Arduratsua naiz eta nagusiak zaintzen esperientzia daukat. Autoa daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 617 20 59 43

**Debagoiena.** Emakume arduratsu eta esperientziadunak etxean bertan bizi izaten lan egingo luke, nagusien zaintzan. Lege paperak eguneratuta dauzkat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 631 90 22 07

**Debagoiena.** Emakumea garbiketa lanak egiteko gertu: etxe, atari eta abarrak. Ordutegi malgua. 632 77 35 38 edo 645 57 29 87

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu. Etxean bertan bizi izanda, egun osoz edo orduka. Interesatua egonez gero deitu zenbaki honetara: 632 46 17 94

**Debagoiena.** Erizain laguntzaile titulua duen neska gertu orduka zaintza lanak egiteko. Zazpi urteko esperientzia daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 620 23 58 15

**Debagoiena.** Erizain laguntzailea gertu nagusi edota ezinduak zaintzeko. Baserrietara joateko arazo barik, autoa daukat-eta. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 678 37 32 43

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izanda edo bestela, nagusiak zaintzeko gertu nago. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 603 65 88 95

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke, zaintza lanetan edota garbiketak egiten. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 687 36 21 83

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke, zaintza lanetan edota garbiketak egiten. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 617 12 61 44

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke, pertsona nagusien zaintzan. Erreferentzia onak ditut. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 600 21 25 16

**Debagoiena.** Geriatria laguntzailea gertu orduka nagusiak zaintzeko, etxean zein ospitalean. 943 25 05 72 edo 658 70 56 94

**Debagoiena.** Gizona edozein lanetarako prest 10:00etatik 17:00etara: etxeko lanetan, nekazaritzan, lorezaintzan eta abarretan. Pertsona nagusiak zaintzen esperientzia handia dut. Paperak eta erreferentzi onak ditut. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 688 33 34 03

**Debagoiena.** Gizona gertu nagusiak zaintzeko. Esperientzia daukat etxeko lanetan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632 26 01 84

**Debagoiena.** Mutila gertu nagusiak zaintzeko edo elkarte eta abarren garbiketak egiteko. Etxean bertan bizi izanda edo bestela. 603 63 21 99

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen lan egingo nuke etxean bertan bizi izaten edo orduka. Baita garbitasunean ere. Lege paperak eguneratuta dauzkat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 606 64 16 09

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen, garbiketan edo sukaldari laguntzaile jardungo nuke. 943 54 09 41 edo 691 03 25 02

**Debagoiena.** Neska arduratsua gertu nagusiak zaindu eta paseoan laguntzeko zein etxeko garbitasun lanak egiteko. Egun osoz edo orduka. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 629 80 77 73

**Debagoiena.** Neska arduratsua gertu nagusiak zaindu, garbiketa lanak egin edo tabernan jarduteko. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Lege paperak ditut. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632 36 83 95

**Debagoiena.** Neska arduratsua lanerako gertu: tabernan, sukaldean, garbiketan, ume eta nagusiak zaintzen eta abar. Baita baserrietan ere. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Autoa daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 697 20 00 86

**Debagoiena.** Neska espainiarra, esperientziaduna, nagusiak zaindu eta etxe garbiketak egiteko gertu. Egun osoan zehar lan egin dezaket: egunez edo gauez. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 633 84 65 30

**Debagoiena.** Neska bat gertu dago zaintza lanetan aritzeko. Gauez edo eta egunez. Interesatuo egonez gero deitu zenbaki honetara: 645 58 71 61

**Debagoiena.** Neska lan bila: ume eta nagusiak zaintzen edo garbitasunean. Orduka, asteburuetan edo etxean bertan bizi izanda. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 631 28 22 03

**Debagoiena.** Orduka lan egingo nuke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 689 95 12 83

**Debagoiena.** Pertsona nagusi eta umeak zaindu edo garbiketa lanetan arituko nintzateke. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Lege paperak eguneratuta dauzkat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 696 30 19 10

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaindu edo garbiketa lanetan arituko nintzateke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 686 44 70 38

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zainduko nituzke, hoteletan lan egin, sukaldari laguntzaile gisa lan egin, garbiketa lanak eta abar. Autoa daukat. Interesatua egonez gero deitu zenbaki honetara: 636 11 23 40

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zainduko nituzke. Berdin zait ospitalean edo etxean bertan. Ruben. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632 08 57 69

**Debagoiena.** Pertsonak zaintzen edo garbiketan lan egingo nuke. Auto daukat. Sandra. Interesatua egonez gerodeitu zenbaki honetara: 602 12 18 27

**Debagoiena.** Zaintza lanetan arituko nintzateke. Arratsaldetan, orduka edo asteburuetan ere bai. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 622 05 30 57

**Lorezaina.** Lorezaintzan eta eraikinen mantenu lanetan jardungo nuke. Gidabaimena daukat eta erabateko prestutasuna. Interesatua egonez gero deitu zenbaki honetara: 943 79 82 43

## 5. IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Elektromekanika.** Autoen elektromekanika moduluko Fluido eta Zirkuitu elektrikoen ikasgaietan eskolak emango dizkigun norbait behar dugu. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 609 94 90 01

## 7. ANIMALIAK

### 703. EMAN

**Katakumeak opari.** Katakumeak ematen dira opari. Interesatuok deitu iluntzean mesedez. 943 76 38 58

**Txakurkumeak.** Euskal artzain txakurkumeak ematen dira opari. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 685 75 78 16 (Marines)

## 8. DENETARIK

### 802. EROSI

**Bizikleta estatikoa.** Bizikleta estatikoa erosiko nuke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 943 79 60 89

**Erremolkea.** Toldodun erremolkea erosiko nuke autoarentzat. Interesatuaegonez gero deitu zenbaki honetara: 656 75 76 98

## ZORION AGURRAK



ARRASATE
**Iraitz Etxagibel Ruidiaz**
Ekainaren 3an, 11 urte. Zorionak eta muxu handi handi bat etxekoen partetik.



ESKORIATZA
**Enara eta Olatz Urrutia Lasagabaster**
Enarak ekainaren 2an, 8 urte eta Olatzek ekainaren 4an, 4 urte. Zorionak, printzesak! Heldu da! Ondo-ondo pasatu zuen urtebetetze eguna! Patxo zaparrada zuentzat, guztion partetik!



ARRASATE
**Eider Zugasti Santos**
Maiatzaren 31n, 5 urte. Zorionak, printzesa! Patxo potolo bat familia guztiaren partetik!



ARRASATE
**Janitz Abasolo Zugasti**
Maiatzaren 30ean, 10 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure egunean, familiaren eta lagun guztion partetik!



BERGARA
**Aratz Domenech**
Maiatzaren 30ean, 8 urte. Zorionak, pitxin. Ia zelako txokolatezko pastela egiten duzun! Zortzi belarri tirakada etxekoen partetik, bereziki, Gorka, aitatxo eta amatxo. Oso ondo pasatu eguna.



ESKORIATZA
**Maider Hernandez Baños**
Maiatzaren 30ean, 12 urte. Zorionak, printzesa! Musu handi bat etxeko guztien partetik. Egun ederra pasatu! Asko maite zaitugu.



BERGARA
**Aratz Sotil Barrio**
Maiatzaren 30ean, 6 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Patxo handi bat etxekoen partetik. Bereziki Sara eta Unai.



BERGARA
**Idelsa Maria Ventura Kingsley**
Maiatzaren 29an, 10 urte. Zorionak eta urte askotarako zure amatxoren partetik! Oso ondo pasatu zure eguna!



BERGARA
**Manex Arana Garitano**
Maiatzaren 29an, 4 urte. Zorionak, txapeldun! Patxo handi bat etxekuen eta, batez ere, Peioren partetik.



ARETXABALETA
**Ekain Urteaga Larrea**
Maiatzaren 28an, 2 urte. Zorionak, Ekain! Ze aguro egin zaren handi! Patxo handi-handi bat danon partetik!



ANTZUOLA
**Jessica Escobar eta Izadi Peñalba**
Jessicak maiatzaren 28an, 32 urte eta Izadik 30ean, 3 urte. Zorionak, potxolitak! Ondo-ondo ospatu zuen urtebetetziak eta jarraitxu zareten modukuak izaten! Mila patxo Nagoren eta Aritxoren partetik!



ARETXABALETA
**Ainhize Ibabe Sillero**
Maiatzaren 27an, 11 urte. Zorionak, Ainhize! Musu pila bat etxeko guztion partetik. Ondo-ondo pasatu zure eguna.



OÑATI
**June Urtaza Ronda**
Maiatzaren 27an, 4 urte. Zorionak, printzesa! Muxu bat etxeko guztien partetik. Ondo pasatu zure eguna!



OÑATI
**Ander Nogueiras Guzman**
Maiatzaren 27an, 6 urte. Zorionak, Ander! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta muxu asko etxeko danon partetik. Asko maite zaittugu. Mua!



ARETXABALETA
**Naia Gonzalez Seijo**
Maiatzaren 26an, 9 urte. Zorionak, Naia! Oso-oso ondo pasatu eguna eta muxu handi bat, etxekoen partetik. Ea opari asko harrapatzen dituzun!



ANTZUOLA
**Aiantze Irizar Iztueta**
Maiatzaren 25ean, 7 urte. Zorionak eta urte askotako! Ondo-ondo pasatu zure egunean, polit hori! Eta muxu potolo bat aitatxoren, Enaitzen, Izeiren eta amatxoren partetik!



BERGARA
**Ekain Akizu Bilbao**
Maiatzaren 25ean, 2 urte. Zorionak, Ekain! Ondo pasatu zure urtebetzean eta muxu handi bat Laidaren, aitatxoren, amatxoren eta familiakoen partetik! Eman buelta batzuk barraketan!



ESKORIATZA
**Xabier Orobengoa**
Maiatzaren 25ean, 2 urte. Zorionak, txiki, etxekoen partetik. Batez ere anaia Anerrek eta lehengusina Malenek besarkada handi bat bidaltzen dizute. Jarraitu orain arte bezain alai eta jator.



ANTZUOLA
**Ekain Irizar Fernandez**
Maiatzaren 25ean, 5 urte. Zorionak, Ekain! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta muxu handi bat etxeko danon partetik.



ARETXABALETA
**Maddi Iturricastillo Elkoro**
Maiatzaren 24an, 8 urte. Zorionak, printzesa! Ondo pasatu zure urtebetetze egunean eta muxu erraldoi bat etxeko guztion partetik.



BERGARA
**Alain Davila Iza**
Maiatzaren 23an, 4 urte. Zorionak, txapeldun! Dagoeneko lau urte! Oso ondo pasatu zure eguna jaixetan eta muxu handi bat etxekoen partetik!



ARETXABALETA
**Inge Berridi Errasti**
Maiatzaren 23an, 4 urte. Zorionak, printzesa! Zelako handi ein zaren. Muxuak Nahiaren partetik!



OÑATI
**Jon Zelaia**
Maiatzaren 20an, 5 urte. Zorionak, pottoko! Ondo-ondo pasatu eguna. Muxu potolo bat Paularen eta Sararen partetik!



OÑATI
**Aimar Hernandez**
Maiatzaren 20an, 6 urte. Zorionak, txapeldun! Sei urte dagoeneko! Ondo pasatu zure urtebetetze egunian eta muxu handi bat familiaren eta, bereziki, Lurren partetik. Mua-mua!

# Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

**Internet**
Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta *http://goiena.eus/zorionagurrak* helbidean sartu zorion agurra.
Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

**Posta elektronikoa**
Mezua bidali *zorionagurrak@goiena.eus* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

**Ordezkaritzak**
Etor zaitez Goienaren ordezkaritzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

## ASTEA GOIENAN


GOIENA

### 'Pauso bi' saioa eguaztenean

Mondragon Unibertsitateko Huheziko ikasleek ekoiztutako saioa estreinatuko du Goienak eguaztenean: *Pauso bi*. Lehenengo atalean Internet izango dute hizpide saioko parte-hartzaileek, eta erreportajeak ere eskainiko dituzte.
**'Pauso bi'**
Eguaztena, 22:00


AMAIA TXINTXURRETA

### Bergarako jaien gaineko saio berezia gaur

Pentekoste jaiak amaitu dira, baina Bergaran jasotako irudi eta herritarren adierazpenekin osatutako saio berezia eskainiko du Goiena telebistak gaur, egubakoitza. Bitorianatxoren jaitsieratik jaien azken egunera arte jasotakoa erakutsiko dute.
**'Jaiak: Bergarako jaiak'**
Egubakoitza, 22:00

## GOIENA TELEBISTA

**EGUBAKOITZA, 29**

**12:00** Debagoiena zuzenean
**12:30** Galdegazte
**13:00** Ikuskizuna: Kukai dantza gelajauziak
**13:55** Zorion Agurrak
**14:00** Debagoiena zuzenean
**14:30** Berriak
**15:00** Amaia DJ
**15:30** Onein
**16:00** Debagoiena zuzenean
**16:30** Berriak
**17:00** Ikusi irratia
**18:00** Ur eta lur
**18:25** Zorion Agurrak
**18:30** Berriak
**19:00** Erreportajea: Ñañarri 2015
**19:30** Amaia DJ
**20:00** Debagoiena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Jaiak: Bergarako jaiak
**22:45** Debagoiena zuzenean
**23:15** Berriak
**23:45** Ahotsenea
**00:00** Astea iruditan
**00:15** Debagoiena zuzenean
**00:45** Berriak

**ZAPATUA, 30**

**10:00** Amaia DJ
**10:30** Jaiak: Bergarako jaiak
**11:15** Debagoiena zuzenean
**12:00** Mahai-ingurua: Hauteskundeak
**13:00** Onein
**13:30** Erreportajea: Ñañarri 2015
**14:00** Amaia DJ
**14:30** Erremeixuak
**15:00** Debagoiena zuzenean
**16:00** Astea iruditan
**16:05** Jaiak: Bergarako jaiak
**17:00** Erreportajea: Ñañarri 2015
**17:30** Zorion Agurrak
**17:35** Ertzak
**18:30** Erreportajea: Ñañarri 2015
**19:00** Debagoiena zuzenean
**20:00** Astea iruditan
**20:00** Mahai-ingurua: Hauteskundeak
**21:00** Amaia DJ
**21:30** Ahotsenea
**22:00** Ikuskizuna: Kukai dantza gelajauziak
**23:00** Debagoiena zuzenean
**00:00** Erremeixuak
**00:15** Erreportajea: Ñañarri 2015
**00:30** Ahotsenea
**01:00** Amaia DJ

**DOMEKA, 31**

**10:00** Debagoiena zuzenean
**11:00** Astea iruditan
**11:00** Ertzak
**12:00** Amaia DJ
**12:30** Ikuskizuna: Kukai dantza gelajauziak
**13:30** Jaiak: Bergarako jaiak
**14:15** Debagoiena zuzenean
**15:15** Astea iruditan
**15:15** Erremeixuak
**15:45** Zorion Agurrak
**15:50** Mahai-ingurua: Hauteskundeak
**16:45** Amaia DJ
**17:15** Debagoiena zuzenean
**18:15** Astea iruditan
**18:20** Erreportajea: Ñañarri 2015
**18:50** Ikusmira
**19:00** Debagoiena zuzenean
**20:00** Jaiak: Bergarako jaiak
**20:00** Astea iruditan
**20:50** Ikuskizuna: Kukai dantza gelajauziak
**22:45** Mahai-ingurua: Hauteskundeak
**23:45** Amaia DJ
**00:45** Debagoiena zuzenean
**01:45** Astea iruditan

**ASTELEHENA, 1**

**12:00** Debagoiena zuzenean
**13:00** Onein
**13:30** Zorion Agurrak
**13:30** Debagoiena zuzenean
**14:30** Berriak
**15:00** Ahotsenea
**15:30** Onein
**16:00** Debagoiena zuzenean
**16:30** Berriak
**17:00** Ikusmira
**17:15** Ikusi irratia
**18:15** Zorion Agurrak
**18:30** Berriak
**19:00** Artearen ibilbidea
**19:15** Jaiak: Bergarako jaiak
**20:00** Debagoiena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Harmailatik
**22:30** Debagoiena zuzenean
**23:00** Berriak
**23:30** Ahotsenea
**00:00** Debagoiena zuzenean
**00:30** Berriak

**MARTITZENA, 2**

**12:00** Debagoiena zuzenean
**12:30** Harmailatik
**12:55** Zorion Agurrak
**13:00** Jaiak: Bergarako jaiak
**13:45** Artearen ibilbidea
**14:00** Debagoiena zuzenean
**14:30** Berriak
**15:00** Harmailatik
**15:25** Zorion Agurrak
**15:30** Onein
**16:00** Debagoiena zuzenean
**16:30** Berriak
**17:00** Ertzak
**18:00** Harmailatik
**18:25** Zorion Agurrak
**18:30** Berriak
**19:00** Ikusi irratia
**19:30** Erreportajea: Ñañarri 2015
**20:00** Debagoiena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Jaiak: Bergarako jaiak
**22:45** Debagoiena zuzenean
**23:15** Berriak
**23:45** Harmailatik
**00:15** Debagoiena zuzenean
**00:45** Berriak

**EGUAZTENA, 3**

**12:00** Debagoiena zuzenean
**12:30** Erremeixuak
**13:00** Ikusi irratia
**13:55** Zorion Agurrak
**14:00** Debagoiena zuzenean
**14:30** Berriak
**15:00** Erremeixuak
**15:30** Onein
**16:00** Debagoiena zuzenean
**16:30** Berriak
**17:00** Ertzak
**18:00** Ur eta lur
**18:30** Berriak
**18:55** Zorion Agurrak
**19:00** Amaia DJ
**19:30** Erremeixuak
**19:55** Zorion Agurrak
**20:00** Debagoiena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Pauso bi
**22:30** Debagoiena zuzenean
**23:00** Berriak
**00:00** Debagoiena zuzenean
**00:30** Berriak

**EGUENA, 4**

**12:00** Debagoiena zuzenean
**12:30** Pauso bi
**13:00** Ertzak
**14:00** Debagoiena zuzenean
**14:30** Berriak
**15:00** Erreportajea: Ñañarri 2015
**15:25** Zorion Agurrak
**15:30** Onein
**16:00** Debagoiena zuzenean
**16:30** Berriak
**17:00** Ikusi irratia
**18:00** Ur eta lur
**18:25** Zorion Agurrak
**18:30** Berriak
**19:30** Ikuskizuna: Kukai dantza gelajauziak
**20:00** Debagoiena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Amaia DJ
**22:30** Debagoiena zuzenean
**23:00** Berriak
**23:30** Harmailatik
**23:30** Pauso bi
**00:00** Debagoiena zuzenean
**00:30** Berriak

## ARRASATE IRRATIA

### 'Txapeldun' ikuskizunari buruz datorren astean

Ekainaren 6an, Amaia antzokian, dantza, antzerkia eta zuzeneko musika batzen dituen *Txapeldun* ikuskizuna egingo dute, 19:30ean. Bertako protagonistek emanaldiari buruzko xehetasunak emango dituzte Arrasate Irratiko *Igo autobusera!* irratsaioan entzun ahal izango den elkarrizketan.

### Sarrerak eta eleberri bat irabazteko aukera zozketan

Iñaki Zubeldiaren *Leize-zuloko misterioa* eleberria eta ekainaren 6an Amaia antzokian egingo den *Txapeldun* ikuskizunerako sarrerak zozketatuko dituzte datorren asteko egubakoitzeko zozketan. Parte hartzeko, deitu 943 25 05 05 telefonora edo, bestela, idatzi *irratia@goiena.eus* helbidera.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

| | | | |
|---|---|---|---|
| **ARRASATE** | | | |
| **Egubakoitza, 29** | ETXEBERRIA | Zarugalde kalea 38 | 943 77 16 30 |
| **Zapatua, 30** | ALBERTO AZKOAGA | Ferrerias kalea 1 | 943 79 15 15 |
| **Domeka, 31** | M.FCA. AZKOAGA | Iturriotz 17 | 943 79 79 99 |
| **Astelehena, 1** | FERNANDEZ | Maisu Aranbarri kalea 1 | 943 79 22 26 |
| **Martitzena, 2** | IRIZAR | Erguin 11 | 943 79 12 39 |
| **Eguaztena, 3** | AMEZUA | Sta. Marina 32 | 943 79 09 74 |
| **Eguena, 4** | ESPAÑOL MORALES | Araba Etorb., 14 | 943 79 18 65 |
| **BERGARA** | | | |
| **Egubakoitza, 29** | URRUTIKOETXEA | Orixondo plaza 4 | 943 76 11 74 |
| **Zapatua, 30** | ZABALA | Barrenkale 25 | 943 76 16 87 |
| **Domeka, 31** | ZABALA | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |
| **Astelehena, 1** | GUALLAR | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| **Martitzena, 2** | ESTELLA | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |
| **Eguaztena, 3** | MOZOS | Iparragirre 2 | 943 76 12 15 |
| **Eguena, 4** | URRUTIKOETXEA | Orixondo plaza 4 | 943 76 11 74 |
| **OÑATI** | | | |
| **Egubakoitza, 29** | IGARTUA | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| **Zapatua, 30** | IGARTUA | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| **Domeka, 31** | IGARTUA | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| **Astelehena, 1** | GARATE | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| **Martitzena, 2** | GARATE | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| **Eguaztena, 3** | JULDAIN | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| **Eguena, 4** | JULDAIN | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |

**Gipuzkoako farmaziak eskuko telefonoan izateko, bidali FARMA 215800 zenbakira.**
Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, (www.cofgipuzkoa.com).

## EZKONTZAK ETA EZTEI-OSPAKIZUNAK



### Juli eta Fernando

Maiatzaren 29an Juli Rodriguezek eta Fernando Urbinak urrezko ezteiak ospatzen dituzte. "Famila guztiaren partetik, ondo pasatu eguna, zorionak eta patxo handi bana!".





### Urko eta Maite

Urko Narbaitza eta Maite Goikoetxea maiatzaren 30ean ezkonduko dira Elgetako udaletxean. "Zorionak, kuadrillaren eta mantekibolaren partetik. Zapatuan behar den moduan ospatuko dugu!".

ESKER ONA

## Jesus Irasuegi Torregarai



Arrasaten hil zen 2015eko maiatzaren 25ean, 81 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi
eskerrik asko, sendikoen izenean.

**Arrasaten, 2015eko maiatzaren 29an.**

ESKER ONA

## Jose Mari Unamuno Loidi



Gasteizen hil zen 2015eko maiatzaren 25ean, 80 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi
eskerrik asko, sendikoen izenean.

**Arrasaten, 2015eko maiatzaren 29an.**

ESKER ONA

## Jexux Urmeneta Urteaga

'Xolonpo'



Maiatzaren 21ean hil zen, 58 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,
agur polit bat antolatu eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

**Oñatin, 2015eko maiatzaren 29an.**

ESKER ONA

## Melchor Errasti Astondoa



Aramaion hil zen 2015eko maiatzaren 1ean, 79 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, Artabeko familiaren izenean.
—
Ondra-meza zapatuan izango da, maiatzaren 30ean,
19:00etan, Barajuengo elizan.

**Aramaion, 2015eko maiatzaren 29an.**

OROIGARRIA

## Txema Hernandez Paunero



*Ez zaitugu ahaztuko.*

**Zure kuadrillakoak.**
**Arrasaten, 2015eko maiatzaren 29an.**

OROIGARRIA

## Anastasi Ibabe Orueta



Arrasaten hil zen maiatzaren 24an, 95 urte zituela.

*Anastasi, Anastasi, zein suerteduna izan zaren. Hor eukittuzu alaba eta gainontzekuak maittasuna emuten gaur arte. Zein suertedunak zure onduen egon garenak be. Zure txispa eta pronto horrekin momentu edarrak pasau eraittiarren. Zauzen lekuen egonda be, jarraittu zure barre pikaro horrekin danoi kaña emuten!*

*Asko maitte zaittugu ama/amama.*

**Etxekuak.**
**Arrasaten, 2015eko maiatzaren 29an.**

OROIGARRIA

## Gregori Epelde Arano



Soraluzen hil zen 2015eko maiatzaren 24an, 90 urte zituela.

*Kontu txikienekin*
*alai aurpegia*
*eman guztia baina*
*azaldu erdia*

*irribarrez agurtu*
*nahi zaitugu tia*
*zu ezagutu izana*
*baita oparia.*

**Zure ilobak.**
**Bergaran eta Arrasaten, 2015eko maiatzaren 29an.**

OROIGARRIA

## Pedro Irizar Gisasola



Donostian hil zen 2015eko maiatzaren 24an.

*Ez nau izutzen negu hurbilak*
*uda betezko beroan*
*dakidalako irauten duela*
*orainak ere geroan.*

*Agur, tio.*

**Zure Bidaurreko ilobak.**
**Antzuolan, 2015eko maiatzaren 29an.**

MEZA

## Esperanza Echeverria Unzalu



Zaragozan hil zen 2015eko maiatzaren 12an, 93urte zituela.

Haren arimaren aldeko meza domekan izango da, maiatzaren 31n, 11:30ean,
Aretxabaletako Jasokundeko Amaren parrokian.
—
*Zure eskuzabaltasun eta alaitasuna beti izango ditugu gogoan*

**Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.**
**Aretxabaletan, 2015eko maiatzaren 29an.**

URTEURRENA

## Marilu Belastegi Aranzabal



2014ko maiatzaren 25ean hil zen, 50 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, maiatzaren 31n, 11:00etan,
Angiozarko Mikel Goiaingeruaren elizan.
—
*Beti izango zara gure oroimen eta bihotzetan.*

**Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.**
**Bergaran (Angiozar), 2015eko maiatzaren 29an.**

URTEURRENA

## Eusebio Anduaga Irizar



Oñatin hil zen 2014ko maiatzaren 29an, 94 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza zapatuan izango da, maiatzaren 30ean, 19:00etan,
Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.
—
*Joana zara gure ondotik*
*Izarretara urruti,*
*Baina zurekin bizitakoa*
*Bihotzean dugu beti.*

**Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.**
**Oñatin, 2015eko maiatzaren 29an.**

URTEURRENA

## Angel Jauregi Loiti



Aramaion hil zen 2014ko maiatzaren 30ean, 85 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, maiatzaren 31n, 11:00etan,
Arexolako Santa Marina elizan.

**Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.**
**Aramaion, 2015eko maiatzaren 29an.**

## HILDAKOAK

**Esperantza Etxeberria Untzalu.** Zaragozan, maiatzaren 12an. 93 urte.
**Felix Arenaza Barrena.** Arrasaten, maiatzaren 19an. 77 urte.
**Maria Sierra Espejo Casado.** Arrasaten, maiatzaren 21ean. 83 urte.
**Jexux Urmeneta Urteaga.** Oñatin, maiatzaren 21ean. 58 urte.
**Txema Hernandez Paunero.** Arrasaten, maiatzaren 22an. 52 urte.
**Martin Larrañaga Agirrezabal.** Bergaran, maiatzaren 22an. 87 urte.
**Rogelio Moraleja Aranburu.** Arrasaten, maiatzaren 23an. 83 urte.
**Julio Vicente Etxarri.** Bergaran, maiatzaren 23an. 87 urte.
**Maria Riera Perez.** Bergaran, maiatzaren 23an. 67 urte.
**Maria Izura Marco.** Arrasaten, maiatzaren 24an. 99 urte.
**Gregori Epelde Arano.** Soraluzen, maiatzaren 24an. 90 urte.
**Pedro Irizar Gisasola.** Donostian, maiatzaren 24an.
**Anastasi Ibabe Orueta.** Arrasaten, maiatzaren 24an. 95 urte.
**Jose Mari Unamuno Loidi.** Arrasaten, maiatzaren 25ean. 80 urte.
**Jesus Irasuegi Torregarai.** Arrasaten, maiatzaren 25ean. 81 urte.

**OROILORE**
Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta ardura handienarekin,*
*nire asmoa da familiari ahalik eta traturik beroena eta hurbilekoena ematea*

*Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak*
*esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu:*
*NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua*
*AUKERA DEZAKEZULA BETI.*



***maribi 617 44 21 55***
***BERGARA***

## ZINEMA

### ARRASATE

**AMAIA ANTZOKIA**

**La sombra del actor**
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

**Tom txiki (euskaraz)**
Domeka: 17:00.

### OÑATI

**KULTURA ETXEA**

**Suite francesa**
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

### EIBAR

**COLISEO**

**Asterix**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**Felices 140**
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

**La familia Belier**
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

**ANTZOKIA**

**Tomorrowland**
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

### GASTEIZ

**FLORIDA**

**Tomorrowland**
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

**Poltergeist**
Egubakoitzetik domekara: 16:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00.

**Suite francesa**
Egubakoitzetik domekara: 18:25, 20:30.
Astelehenetik eguenera: 18:45.

**Mad Max**
Egubakoitzetik domekara: 22:30.
Astelehenetik eguenera: 20:45.

**Una paloma se poso en una rama a reflexionar**
Egubakoitzetik domekara: 16:30, 20:30.
Astelehenetik eguenera: 18:45, 21:00.

**Dando la nota, aun mas alto**
Egubakoitza: 16:30, 18:20.
Zapatua eta domeka: 12:00, 16:30, 18:20.
Astelehenetik eguenera: 20:30.

**Mandarina**
Egbakoitzetik domekara: 18:40, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 18:45.

**Lo mejor para ella**
Egubakoitzetik domekara: 17:45.
Astelehenetik eguenera: 18:15.

**Vengadores: la era del Ultron**
Egubakoitza: 20:00.
Zapatua eta domeka: 12:00, 20:00.
Astelehenetik eguenera: 20:30.

**La familia Belier**
Egubakoitzetik domekara: 16:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 16:30, 18:45, 20:30.

**A cambio de nada**
Egubakoitzetik domekara: 16:30, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 21:00.

**Nuestro ultimo verano en Escocia**
Egubakoitza: 18:30, 20:30, 22:30.
Zapatua eta domeka: 12:00, 18:30, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 20:45.

**La cancion del mar**
Zapatua eta domeka: 12:00.

**Minusculo**
Zapatua eta domeka: 12:00.

**La oveja Shaun**
Zapatua eta domeka: 12:00.

**BOULEVARD**

**Tomorrowland**
Egubakoitza eta zapatua: 23:50.
Egubakoitzetik eguenera: 18:30, 19:40, 21:10, 22:20.
Zapatua eta domeka: 15:50, 17:00.

**Nuestro ultimo verano en Escocia**
Egubakoitza eta zapatua: 00:25.
Egubakoitzetik eguenera: 18:25, 20:25, 22:25.
Zapatua eta domeka: 16:25.

**It follows**
Egubakoitza eta zapatua: 00:45.
Egubakoitzetik eguenera: 18:15, 20:25, 22:35.
Zapatua eta domeka: 16:05.

**Mad Max**
Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

**Mad Max 3D**
Egubakoitzetik domekara: 21:30.
Astelehenetik eguenera: 19:30.

**Dando la nota: aun mas alto**
Egubakoitzetik eguenera: 17:50, 20:10, 22:30.
Zapatua eta domeka: 15:30.

**Caza al asesino**
Egubakoitza eta zapatua: 00:30.
Egubakoitzetik eguenera: 19:50, 22:10.

**El viaje mas largo**
Egubakoitza eta zapatua: 00:25.
Egubakoitzetik domekara: 21:50.

**Vengadores: la era del Ultron**
Egubakoitzetik domekara: 19:00, 22:00.
Zapatua eta domeka: 16:00.
Astelehenetik eguenera: 18:30, 21:30.

**Vengadores: la era del Ultron 3D**
Astelehenetik eguenera: 22:00.

**Cenicienta**
Zapatua eta domeka: 15:30.

**Superpoli en Las Vegas**
Egubakoitzetik eguenera: 17:50.

**Asterix**
Egubakoitzetik domekara: 17:30.
Zapatua eta domeka: 15:30.

**Con la magia en los zapatos**
Egubakoitzetik domekara: 19:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

**Home**
Zapatua eta domeka: 15:30.

**Sweet home**
Egubakoitza eta zapatua: 00:50.

**La oveja Shaun**
Egubakoitzetik domekara: 17:35.
Zapatua eta domeka: 15:40.

**La familia Belier**
Egubakoitzetik domekara: 19:30.
Astelehenetik eguenera: 20:00.

**Poltergeist**
Egubakoitza eta zapatua: 00:00.
Egubakoitzetik eguenera: 18:00, 20:00, 22:00.
Zapatua eta domeka: 16:00.

**Poltergeist 3D**
Egubakoitza eta zapatua: 00:15.
Astelehenetik eguenera: 17:40.

**El maestro del agua**
Astelehenetik eguenera: 17:40.

**Una nueva amiga**
Astelehenetik eguenera: 22:15.tu

## KRITIKA

# Harreman bereziak

**UNA NUEVA AMIGA** ★★★★★
**Zuzendaria:** François Ozon.
**Herrialdea:** Frantzia.
**Aktoreak:** Romain Duris, Anais Demoustier.

François Ozon zuzendariak film pila bat egin ditu. 47 urte ditu. la urtero pelikula berri bat estreinatzen du zinema aretoetan eta bere lanekin zinemaldi askotan parte hartu izan du. Donostiako Zinemaldiak dituen atal desberdinetan bere lanak ikusteko aukera izan dugu. Duela hiru urte *En la casa*-rekin Zinemaldiko Urrezko Maskorra lortu zuen. Nahiko zuzendari eklektikoa da. Mota eta genero askotariko filmak egiten ditu: musikala, komedia, drama, suspense-filmak... Eta, kasu askotan, genero askotako ezaugarriak nahasten ditu bere lanetan. *Una nueva amiga* Donostiako Zinemaldian aurkeztu zen. Komediarekin, dramarekin, amodioarekin eta suspensearekin jokatzen du.

*Una nueva amiga* ez da sailkatzeko erraza. Agian, *bitxia* da hitz egokiena Ozonen proposamena nolakoa den adierazteko. Pelikularen lehenengo eszena benetan harrigarria da, gauza bat ikusten ari garela dirudi guztiz kontrako gauza denean. Ondorengo hamar minutuetan oso modu trebean eta kontatzeko ahalmen handiarekin saminez betetako istorioa baten sartzen gaitu zuzendariak. Neska gazte baten heriotzaren ostean, haren lagun minenak alargun geratu den gizona eta haren seme-alabak zaindu beharko ditu. Harreman horretan ezusteko bat egongo da eta hortik aurrera euren arteko harremanak aldatu egingo dira. Elkar ezagutu beharko dute berriro eta ezagutza honetan norberaren ezagutza ere izango da. Horrela, istorioak dramatik komediara joko du, baina ukitu aztoratzailea galdu barik. Pertsonaiak nahastuta daude, baina, ere berean, bizitzan gertatzen diren aldaketekin erakarrita. Romain Durisek eta Anais Demoustierrek ederki islatzen dituzte pertsonaiek jasaten ari diren emozio jarioak. Filmarekin gozatzeko ikusleak puntua hartu behar dio Ozonek kontatzen digun istorio gorabeheratsuari.

ANTONIO ZABALA



YOUTUBE.COM

**ARRASATE Grupo Capachos taldea zuzenean**
Boleroak, bachatak, baladak, rantxerak eta sanba doinuak izango dira nagusia Capachos taldearen kontzertuan. Askotariko instrumentuak erabiltzen dituzte.
Bihar, zapatua, Amaia antzokian, 19:30ean.

**OÑATI Rock kontzertua Errekaldeko jaietan**
Eskean Kristo, Estricalla, Arkada Social eta Gramones taldeen kontzertua egubakoitzean (21:00). Bestalde, aste bukaeran askotariko ekitaldiak egingo dituzte: goitibehera lasterketa, auzo bazkaria, umeendako jolasak eta mus txapelketa, besteak beste.
Aste bukaeran, Errekalde auzoan.



# NON-ZER

MAIATZA 29
EKAINA 4

**Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.**
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

## MUSIKA

**ESKORIATZA Juan Karlos Irizar eta Parrokiako abesbatza**
*We are like you Liberia* egitasmoari laguntzeko emanaldia egingo dute. Sarrerak, doan.
Gaur, egubakoitza, Zaldibarren, 20:00etan.

**OÑATI Ikastetxeak Kantari**
Urgaingo, Elkar Heziko eta Ikatolako neska-mutikoek parte hartuko dute.
Etzi, domeka, Santa Anan, 19:00etan.

**ARETXABALETA Iker Piris eta Blas Picon bikotea**
Iker Piris tolosarrak eta Bartzelonako Blas Piconek indarrak batu eta bikote moduan dihardute. Sarrera, doan.
Etzi, domeka, Pako tabernan, 19:30ean.

**ARETXABALETA Piano emanaldia**
Leizarra musika eskolakoen emanaldia.
Ekainaren 2an, Arkupen, 18:00etan.

**ARETXABALETA Gitarra emanaldia**
Leizarra musika eskolakoen emanaldia.
Ekainaren 4an, Arkupen, 18:00etan.

## ERAKUSKETAK

**BERGARA Juan Luis Goikoleaen pinturak**
Arrasateko margolariaren lanak Aroztegi aretoan ikusgai, martitzenetik domekara arte.
Ekainaren 14ra arte, Aroztegi aretoan.

**ELGETA 'Izarren azpian'**
Eider Iturriaga elorriarraren argazki erakusketa. Hainbat musika talderen zuzenekoekin ateratako argazkiak.
Ekainaren 21era arte, Espaloian.

**OÑATI 'Ukerewe: la isla olvidada'**
TAU Fundazioaren eta Arantzazuko Adiskideak erakundearen eskutik. *Arantzazu, Afrikarekiko topaleku* jardunaldiarekin bat egiten du erakusketak.
Ekainaren 7ra arte, Gandiaga topagunean.

**ARETXABALETA 'Moda Labo' erakusketa**
Kattalin Antxia diseinatzailearen lanak ikusteko azken egunak.
Maiatzaren 31ra arte, Arkupen.

**ARRASATE Margo Taldekoen lanak**
Zilarrezko ezteiak ospatzeko erakusketa; besteak beste, natura hilak eta erretratuak.
Gaur da azken eguna, Kulturaten, arratsaldez.

**ARRASATE 'Dinbi, danba, mailuaren hotsa'**
Azken errementari Bixente Barandiaranen lanak eta burdinaren kulturak herriaren bilakaeran izan duen eragina ikusgai.
Harresi aretoan ikusgai.

## ANTZERKIA

**ARETXABALETA 'Erdibana'**
Amaren herentzia banatzeko istiluak sortuko dira Jose Ramon Soroizen eta Iker Galartzaren artean. Sarrerak, lau euro.
Gaur, egubakoitza, Arkupen, 22:00etan.

**BERGARA 'Amilami'**
Pantzart taldearekin 4 urtetik gorako umeendako antzezlana.
Etzi, domeka, Zabalotegin, 18:00etan.

## LITERATURA

**BERGARA 'Helduen eskutik**
Umeendako ipuin kontaketa saioa egingo du Dorleta Kortazarrek.
Gaur, egubakoitza, liburutegian, 18:00etan.




GOIENA

**ARAMAIO Eguzkierripa rock jaialdia**
Bertso poteoaren hasiko dute eguna (13:00). Ostean bazkaria, Andra Mari ermitan (14:30), eta 20:00etan kontzertuak: Zarzamora, E.R.M., Codigo Norte, Entropia eta Backbon taldeak.
Bihar, zapatua, Andra Mari ermita inguruan, aipatutako orduetan.



GOIENA

**ESKORIATZA Ipuin kontaketa**
Dorleta Kortazarrek *Berba kateatuak* ipuin kontaketa egingo du. Askotariko berbak bata bestearekin kateatu eta hainbat istoriotan bizi direnen gaineko saioa eskainiko du. Sarrerak, lau euro.
Bihar, zapatua, Zaldibarren, 22:30ean.

## DANTZA

**ARRASATE Herrixa Dantzan**
Ikasturteko azken dantza saioa egingo dute Biteri plazan, Patxi Monteroren gidaritzapean. Emanaldia irekia izango da herritar guztiendako.
Gaur, egubakoitza, Biterin, 20:00etan.

## OSPAKIZUNAK

**ARRASATE BesteBat! Eguna**
Bosgarren urtez egingo dituzte ospakizunak. Askotariko ekintzak; besteak beste, zuzeneko musika herriko lau tabernatan: Amaiur, Osorik, Iluntz eta DAT tabernetan.
Bihar, zapatua, egun osoan zehar.

**ARRASATE Erretiratuen Eguna**
SUDC elkartearen eskutik erretiratu arrasatearrek urteko jaia egingo dute. 700dik gora elkartuko dira bazkaltzeko Musakolan, eta gizonezko zein emakumezko edadetuenak omenduko dituzte.
Bihar, zapatua, egun osoan zehar.

**ARETXABALETA Trikitixa Eguna**
Hamaikagarrenez elkartuko dira bailarako trikitilariak. 300dik gora elkartuko dira Leizarra musika eskolaren eskutik. Ekitaldi nagusia Herriko Plazan egingo dute, 13:00etan.
Bihar, zapatua, egun osoan.

**ESKORIATZA Eskoriatza Kirol Elkartearen Eguna**
Elkartearendako dirua batzeko askotariko ekintzak egingo dituzte egun osoan. Ekitaldi aipagarrienetakoa Jesus Candelas areto futbol entrenatzaileak egingo duen hitzaldia izango da. Saio teorikoa eta praktikoa egingo ditu, hain zuzen.
Bihar, zapatua, egun osoan.

**ARETXABALETA Haur Dantzarien Eguna**
Bailarako dantza taldeetako ordezkariak elkartuko dira. Goizean kalejira egingo dute eta arratsaldean alardea, guztiok elkarrekin dantzatuta.
Etzi, domeka, egun osoan.

**ELGETA XI. Nazioarteko Magia Mostra**
Magia izango da protagonista aste bukaeran: egubakoitzean Adrian Conde (22:30) eta zapatuko galan Mag Marin, Los Taps, Nuel Galan eta Lautauro (19:00). Magian trebatzeko tailerrak ere egingo dituzte. Sarrerak, *Pikupe.com* atarian, Pikupe Produkzioak-en bulegoan eta Espaloian.
Gaurtik domekara arte.

## JAIAK

**OÑATI Araotzeko jaiak**
Trinitate jaiak ospatuko dituzte aste bukaeran. Besteak beste, auzo bazkaria, haur jolasak, bolo txapelketa eta herri kirol jaialdia egingo dituzte.
Aste bukaeran, Araotzen.

## BERTSOLARITZA

**OÑATI Gipuzkoa Bertsotan**
Bigarren itzulian sartuta dago txapelketa. Goizeko (11:30) eta arratsaldeko (17:30) saioetan, seina bertsolari kantuan.
Bihar, zapatua, Santa Anan, aipatutako orduetan.

## BESTELAKOAK

**ARETXABALETA Ate irekiak ludotekan**
Umeak adinaren arabera banatuko dituzte: 3, 4 eta 5 urtekoak 16:45etik 18:15era eta 6 urtetik gorakoak 18:15etik 19:30era.
Gaur, egubakoitza, ludotekan.

**BERGARA DYAren sentsibilizazio kanpaina**
Bihotz-biriken geldialdi baten aurrean jokatzen jakitearen garrantzia azpimarratzeko ekitaldia egingo dute. Suspertzeko oinarrizko teknikak ikasteko aukera izango dute herritarrek, hamar minutuko saioetan.
Etzi, domeka, San Martin plazan, 10:00etan.

**ESKORIATZA Mendi ibilaldia**
Hamargarren *Tikirri Tikirri* ibilaldia egingo dute: Eskoriatza-Degurixa-Mugarriluze-Eskoriatza.
Etzi, domeka, Fernando Eskoriatza plazan, 07:00etan.

**ELEGETA Bisita gidatua**
Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroa eta *Intxortako atea* ezagutzeko aukera.
Etzi, domeka, Espaloian, 10:00etan.

## HITZALDIAK

**ARETXABALETA Loditasunari buruz**
Aretxabaletako haurren loditasunari buruzko berbaldia. Egoera zein den eta ze neurri har daitezkeen azalduko dute.
Ekainaren 1ean, Arkupen, 18:00etan.

**BERGARA Duintasun Martxak**
Duintasun Martxak osatzen dituzten sindikatu eta eragileetako kideen hitzaldi sorta. Bergaran egongo dira Lluis Blanco, Edu Lucas, Felix Irizar, Antonio Arteaga eta Jose Manuel Reina.
Ekainaren 3an, Irizarren, 19:00etan.

## IKUS-ENTZUNEZKOA

**ARETXABALETA Bideoklip aurkezpena**
Pausoka haur eskolaren 25. urteurreneko bideokliparen aurkezpena egingo dute.
Ekainaren 3an, Arkupen, 18:00etan.



Bi lagunendako otorduen zozketa astero Puntuan. **Hartu parte eta... on egin!**



Bergarako Sirimiri jatetxeko Galeperra.

puntua

'PUNTUA' ORAINDIK ETXEAN JASOTZEN EZ BADUZU:
*943 25 05 05 edo Puntua.eus edo Whatsapp: 688 69 00 07*

goienakluba



goiena

2015-05-29


BUKATZEKO



San Viatorko Batxilergoko 4. mailako ikasleak 1965ean. | FERNANDO LASPIUR



1990ean elkartu ziren, Santa Barbaran. | FERNANDO LASPIUR

# 50 urteren ondoren, berriz elkarrekin

- 1965ean San Viatorren Batxilergoko 4. maila bukatu zuten ikasleak elkartuko dira bazkaritarako
- Duela 25 urte ere elkartu ziren; aurtengo topaketa ekainaren 13an egingo dute, Arrasaten

**MIREN ARREGI** | ARRASATE

San Viator ikastetxean Batxilergoko 4. mailako ikasketak bukatu zituzten ikasleek bazkaria egingo dute ekainaren 13an, horiek bukatu eta 50 urtera. 1949an, 1950ean eta 1951n jaiotako 30 bat lagun elkartuko dira, ordukoak gogora ekarri eta egun-pasa ederra egiteko. 1965ean bukatu zuten Batxilergoko 4. maila –14, 15 eta 16 urte zituztela–, San Viatorren. Orduan 45 ziren. Handik 25 urtera, 1990ean, ikasle haiek bazkaritarako elkartu ziren Arrasaten, eta aurten ere, 50 urte igaro ostean, berdina egingo dute: "Duela 25 urte egin genuen moduan, Santa Barbarara igoko gara argazkia ateratzera", dio Fernando Laspiurrek, antolatzaileetako batek.

**Kanpotik hamar bat**

Asko Arrasaten bertan bizi dira, baina beste batzuk kanpotik etorriko dira ospakizun-egun ederra igarotzera: "Hamar bat etorriko dira kanpotik; euretako bat, esaterako, Valentziatik. NASAn lanean aritu zen eta gaur egun Valentziako Unibertsitateko irakasle da", dio Laspiurrek. 11:30ean elkartuko dira denak Karkabal elkartean eta handik hartuko dute Santa Barbarako bidea: "Ez gara bakarrik egongo, trikitilarien laguntza izango dugu", adierazi du. Argazkiaren ostean triki-poteoa egingo dute herriko kaleetan barrena eta bazkaltzera Karkabalera bueltatuko dira: "Ondoren, ondorengoak", gaineratu du, irribarrez.

Oroitzapen onak ditu Laspiurrek San Viatorren egindako urteez: "Clemente Lopez Cano zen zuzendaria eta irakasleetako bat Felix Aiala. Guztiz desberdina zen; mezetara joaten ginen, dantza egitearren zigortu egiten gintuzten... Bidaiak ere egiten genituen; esaterako, Codorniu upategiak bisitatzera joan ginen behin, Bartzelonara". Orduko oroitzapen onak ditu; zer esanik ez, duela 25 urteko ospakizunaz: "Tamalez, orduko guzti-guztiok egoterik ez dugu izango", dio. Ekainaren 13an elkartuko dira, esandako moduan. Hurrengoa, hemendik 25 urtera izango ote?

AZKEN BERBA

**AGURNE BARRUSO**



## Maiatzak 24

Udal eta foru hauteskundeen ondorengo zutabea egitea tokatu zait, eta, hauteskunde hauetan Bergarako EH Bilduko zerrendaburua izan naizenez, zenbait gauza esateko baliatuko dut aukera hau.

Lehenik eta behin, zorionak eskualdean zerrenda bozkatuenak izan zareten guztioi. Niri dagokidanez, zorionak Bergarako EAJri lortutako emaitza onengatik.

Bigarrenik, eskerrik beroenak gugan zuen konfiantza jarri duzuen 2.835 bergararrei. Zuek emandako botoak erantzukizunez baliatuko ditugu datozen lau urteetan eta gogor egingo dugu lan jasotako konfiantza hori emaitzekin bueltatzeko.

Eta azkenik, duela lau urte EH Bildu bozkatu eta oraingoan egin ez duzuenon mezu garbia ere jaso dugu. Zergatik erretiratu diguzuen konfiantza aztertuko dugu.

Autokritika egin, egindako akatsak aitortu eta berriz gerta ez daitezen bideak jartzea dagokigu orain.

Datozen lau urteetan oposiziotik lanean gogor arituko gara Bergararen alde.

Akatsetatik ikastea bada bertute, eta, penatuta gauden arren, lanerako ilusioa eta indarra ez zaizkigu falta.


